

Maria Stella Matutinako mojen iragan iluna

Mikael Corre
kazetari
frantziarrak 'La
Croix' hedabidean
idatzi du
Bergarako mojen
kongregazioaren
sortzaileen
sexu-abusuen
gainean / 32



**49.528 debagoiendar
deituta domekako
hauteskundeetara;
posta bidezko botoa
laukoiztu egin da / 2**

**Urkulu hain maila
baxuan egotearen
arrazoia, "2022ko
urtariletik oso euri
gutxi" egin duela / 4**

UDALDIA

Honako egun hauetan jasoko
dituzue hurrengo aldizkariak:
GOIENA: irailaren 1ean.
'Puntua': uztailaren 28an.

Ondo
ibili!



Itsas zeharkaldiak:
itsasoan igeri
egitearen xarma

Olatz Arregi Uriarte
ikerlariari
elkarrizketa



**NEREA AGIRREZABAL:
"EZ DUT HORREN URRUN IKUSTEN
BANDERA BAT IRABAZTEA"**

Arraunlari bergararrak Tolosaldea traineruarekin
dihardu, Lehen Mailan. Liga hasiera bikaina izan dute
eta hirugarren dira sailkapenean.

Iraillean Kontxan egoteko gogor ari dira / 32

Agirrezabal, Pasaian, joan den
asteke entrenamendu saio batean.

TOLOSALDEA ARRAUN KLUBA

MERKEALDIA

2MÓ 199€

LEHEN 229€

PROGRESIBOAK

Kontsultatu kanpainaren ezaugarriak.



Otalora Lizentziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA



eskatu hitzordua



MULTIÓPTICAS
kalitatea - konfiantza - diseinua



Debagoiendar bat botoa ematen maiatzeko udal eta foru hauteskundeetan. GOIENA

49.528 debagoiendar daude botatzera deituta domekarako

Kongresuko eta Senatuko aulkiak nortzuek beteko dituzten erabakiko da domekan; 2019ko hauteskunde orokorretatik, laukoiztu egin dira posta bidezko boto eskaerak

Idoia Aranbarri Arzuaga DEBAGOIENA

Bi hilabete egingo diren bigarren hauteskundeak dira domekakoak. Oraingo honetan, baina, Espainiako Gorteetarako eserlekuak daude jokoan; bai Espainiako Kongresukoak, baita Senatukoak ere. 49.528 debagoiendar daude deituta botoa ematera, Espainiako Estatistika Institutuak (INE) helarazitako datuen arabera, maiatzean baino 67 lagun gutxiago: Arrasaten 16.932, Bergaran 11.286, Oñatin 8.777, Aretxabaletan 5.531, Eskoriatzan 3.230, Antzuolan 1.601, Aramaion 1.150, Elgetan 856 eta Leintz Gatzagan 165.

Domekako hauteskundeetako hautetsontzietan bi boto eman ahal izango dira: bata, zuria, Kongresuko botoa; eta bestea, laranja, Senatuko. Boto horiek ibarreko 21 hauteslektutan eman beharko dituzte debagoiendarrek, bakoitzak dagokionean. Arrasaten sei hautesleku jarriko dituzte, Bergaran bost, Oñatin lau eta Aretxabaletan, Eskoriatzan, Elgetan, Aramaion, Antzuolan eta Leintz Gatzagan bana. Goizeko bederatzietatik arratsaldeko zortzietara egongo dira hauteslekuak zabalik.

Eserlekuak jokoan

Kongresurako 350 eserleku aukeratu dira, denera –Gipuzkoan 6, Bizkaian 8, Araban 4 eta Nafarroan 5–, eta Gipuzkoan Kongresurako hamabi zerrenda aurkeztu dira; 2019an aurkeztu

zen kopuru bera. Alderdi hauek dira Gipuzkoan aurkeztu direnak: EH Bildu, EAJ, PSE-EE, Sumar, PP, VOX, Partido Animalista (PACMA), Aulki Zuriak, Recortes Cero, Euskadiko Langileen Alderdi Komunista (ELAK),

Frente Obrero eta Bidezko Mundurantz (PUM+J), hain zuzen ere. Senatuan, berriz, 208 eserleku aukeratu dituzte; lau Gipuzkoan eta hamaika alderdi aurkeztu dira Senatuko –Kongresurako berak, Frente Obrero izan ezik–.

Inoizko eskaera gehien

Hego Euskal Herrian 2.308.985 lagun daude deituta botoa ematera –Gipuzkoan 585.879, Araban 260.213, Bizkaian 942.980 eta Nafarroan 519.913–, eta horietatik 262.086 herritarrek eskatu dute posta bidezko botoa: Gipuzkoan 57.559k, Araban 30.928k, Bizkaian 126.188k eta Nafarroan 47.411k. Gaur, 14:00ak arte eman ahal izango da botoa posta bidez Correosen.

Marka guztiak hautsi ditu posta bidezko botoen eskaera kopuruak; 2019ko azaroko Gorteetako hauteskunderi erreparatuta, laukoiztu egin dira datuak Hego Euskal Herrian –orduan, 67.314 eskaera egin ziren–. Eskaeren gorakadaren aurrean, Correosek hartu dituen neurrietako batzuk izan dira zerbitzuak indartzea, pertsona gehiago kontratatzea eta ordutegia malgutzea –Arrasateko bulegoa hilaren 13tik 22:00ak arte egon da zabalik–.

Parte-hartzea

Maiatzeko hauteskundeetan %40ren bueltakoa izan zen abstentzioa EAEn eta %32koa

Nafarroan, eta, domekari begira, Iñaki Galdos analista politiko oñatiarrak dio parte-hartzea handia izango dela: "Gehiago igoko da Espainiako hainbat lurraldetan, baina hemen, gutxi gorabehera, partaidetza handia egongo da. Txikiagoa izango da Katalunian, independentismoaren sektore batek abstentziora deitu baitu. Katalunian baino handiagoa izango da partaidetza hemen. Gurean ere badaude abstentziora deitzen dutenak, eta ikusi egin beharko da ze eragin duen". Hala ere, ez du espero "sorpresarik".

Posta bidezko boto eskaera laukoiztu egin bada ere, jakina zela azaldu du, hauteskunde eguna zein den ikusita, baina horrek ez duela esan nahi parte-hartzea aldatuko denik: "Asko haziko zela argi zegoen; gero parte-hartzea askoz handiagoa izango den zalantza daukat. Ez dut uste eskaerak izugarri igo izanak parte-hartzea izugarri igoko denik; ez, behintzat, maila berean".

Maiatzeko joera bera

Azken urteetako hauteskundeetan EH Bilduk hartu du indarra Debagoiengan, eta gainontzeko alderdiek beherakada izan dute. Duela bi hilabeteko emaitzak ikusita, Galdosek argi dauka horren denbora gutxian ez dela gauzarik aldatuko; joera, gutxi gorabehera, bera izango dela:

"Emaitza onak" errepikatzeko erronka

EH Bilduk Oñatin eta Arrasaten hilaren 15ean eta 17an egin dituzten hauteskunde kanpainako ekitaldiak asteon. Arrasateko ekitaldian Gipuzkoako batzarkide eta EH Bilduko ordezkari Maddalen Iriartek eta Kongresurako Gipuzkoako hautagai Maialen Urzelai oñatiarrak hartu zuten hitza, eta ondoan izan zituzten alderdikideak.

Oñatiarrak nabarmendu zuen Espainiako Kongresuan eta Senatuan EH Bilduk egindako lanari esker "hobetu" egin direla euskal herritarren bizitzak. Halere, "gehiago nahi eta behar" dutela azaldu zuen, EH Bilduk urrunago heldu gura duela: "Erabakigarri izaten



EH Bilduko kideak, Arrasaten, asteleheneko kanpaina ekitaldian. GOIENA

jarraitu gura dugu, eta gehiago izan behar dugu horretarako".

M28aren bide beretik

Maddalen Iriartek, bestalde, M28an alderdiak lortutako

emaitzak goraiatu zituen, eta uztailaren 23ko hauteskundeetara begira Gipuzkoan emaitza onak lortzeko duen garrantzia nabarmendu zuen.

Sozialistak, Arrasaten

Kongresurako Gipuzkoako PSE-EEko zerrendako lehen eta bigarren hautagai Rafaela Romerok, Maria Luisa Garciak eta alderdikideek arrosak hauteskunde-materiala banatuko dituzte, 11:00etan, Arrasateko Jose Maria Arizmendiari plaza.

Kanpaina hasieratik, uztailaren 7tik, ez dute kanpainako ekitaldirik egin bailaran, eta, egun hartan, Kongresurako alderdiko Gipuzkoako zerrendaburu Romero izan zen Arrasaten.




"Bi hilabete ez dago astirik joerak aldatzeko".

M28 eta U23 ezberdinak direla azpimarratu du, ordea; euskal alderdiek "pittin bat" protagonismoa galtzen dutelako Espainiako gorteetako hauteskunderen: "Hauteskunde orokorretan jendea gehiago egon da Espainiako Estatuko lau alderdi nagusiei begira. Hala ere, uste dut bi euskal alderdi nagusiek euren lekua topatu dutela eta, hain zuzen, maiatzeko joerak jarraituko dutela euren emaitzetan".

Kongresuko EAeko hamazortzi eserlekuei buruzko azken inkestean arabera, EH Bilduk, EAJk eta PSE-EEK bosna esku-ratuko lituzkete, jeltzaleek bat galdu eta ezker abertzaleak eta sozialistek bana irabazita; Sumarrek bat, bi galduta; eta PPK bi, bat irabazita. "EH Bilduk aukera du Bizkaian sartzeko eta EAJk bat galdu lezake. PP Araban sartuko da, baina gora egitea logikoa da, Ciudadanos-ek bere ordezkariak galdu baitu. Batzar Nagusien edo zinegotzien kasuan, mugimendu samurragoak dira, baina Euskadin eserleku gutxi daude banatzeko, eta aldaketa handiak izateko mugimendu sakonak gertatu behar dira", dio.

Presidentetza: ezkerre ala eskuina Espainiako presidente izateko lehian, alderdirik bozkatuena PP izango dela diote inkestek: "PP eta VOX Gobernura heltzen badira, ikusi beharko da elkarren

Azken urteetako hauteskunderen emaitzak bailaran



"BI HILABETETAN EZ DAGO ASTIRIK EMAITZEN JOERAK ALDATZEKO"

IÑAKI GALDOS, ANALISTA POLITIKOA

GOIENAK BOZKETA EGUNAREN ETA EMAITZEN GAINEKO JARRAIPIEN BEREZIA EGINGO DU

"BERE HAUTESLEEKIN ASMATU EGIN ZUEN FEIJOOK DEBATERA EZ JOANDA"

IÑAKI GALDOS, ANALISTA POLITIKOA

arteko indar-korrelazioa zenbatetako den. Eskuinak irabazten badu, ez dago zereginik, baina, ezkerrekoen arteko Gobernuarekin jarraitzen badugu, ez daukat zalantzarik Gobernu hori babesten jarraitu beharko dutela EAJk eta EH Bilduk. Hala ere, birplanteatu egin beharko dute euren jarrera PSOerekiko, Euskal Herriarekiko promesa asko ez dituelako bete", azaldu du Galdosek.

Sozialisten nahiz popularren kanpainaz eta eguazteneko debateaz galdetuta, honako hau dio: "Uste dut Feijook bere boto-emalleekin asmatu egin zuela eguazteneko debatera ez joanda. Uste dut agerian jarri nahi izan zuela hori ez zela haren debatea. Ez du esan nahi ados nagoenik, baina, puntu horretatik, haren jendearekin asmatu egin duela esango nuke".

Hauteskundeak Goian

Espainiako hauteskunderen jarraipen berezia egingo die Goienak domekan, bozketa egunean. Goizean goizetik, hauteslekuak irekitzen direnetik, gauera arte, emaitzak jakin ostera arte. www.goiena.eus-en hauteskunderen emaitza guztiak izango dira egunean bertan: herrikoak, eskualdekoak, lurraldeetakoak eta Espainiakoak. Biharamunean, bestalde, Goiena telebistan eta webgunean, emaitzen berri emateaz gain, alderdien eta herritarren balorazioak ere jasoko dira.

Kooperatibak oinarri ekitaldi politikoan

Martitzenean Arrasaten izan ziren Kongresurako EAJko Bizkaiko eta Gipuzkoako zerrendaburu Aitor Esteban eta Maribel Vaquero. Estebanek gaineratu zuen Madrilen kooperatiben eredu defendatzen duen "alderdi bakarra" dela euren eta PSOeren eta Podemosen arteko koalizio Gobernuak enpresa guztiendako plan berbera ezarri nahi duela: "Kooperatiben mailak Euskadin duen garrantziak ez dauka zerikusirik Estatuan duenarekin, eta berezitasunak baztertzen dira".

Etxebizitzak kuartelean Eguazten arratsaldean EAJko Gipuzkoako zerrendaburuak



EAJren kanpaina ekitaldia Arrasaten, martitzenean. GOIENA

Oñatin izan ziren Oñatiko alderdikideekin, eta Guardia Zibilaren kuartela etxebizitzak egiteko erabiltzea proposatu zuten: "Oñatik benetan behar duena etxebizitzak dira.

Horregatik, Oñatiko EAJren aldarrikapena babesten eta bultzatzen dugu: Guardia Zibila ateratzea eta erabiltzen ez den espazioa etxebizitzarako zuzentzea".



Sumarreko kideak astelehenean Arrasaten. GOIENA

Diazzen aldeko boto eskaera

Astelehenean Arrasaten izan ziren Kongresurako Gipuzkoako Sumarreko zerrendako hautagai Pilar Garrido, Joserra Bezerra eta Juan Luis Merino, besteak beste. Botoa nori eman zalantzak dituztenei dei egin zieten Sumarregan konfiantza izan dezaten.

Miren Arregi Amasorrain ARRASATE

Urkuluko urtegiak urte saso honetan inoiz izan duen betetze mailarik txikiena duela eta jo du GOIENAK Aitor Irizar Agirrebeñarengana, Gipuzkoako Ur Kontsorzioko Debagoieneko antolaketa-buruarengana. Izan ere, Aretxabaletako urtegia %61,29ko betetze mailan dago. Iaz, sasoi berean, %84,83an zegoen. Ur kota baxuaren zergatiaz eta etorkizuneko aurreikuspenez jardun du Irizarrek.

Urkuluren betetze maila %61,29an dago. Iazko datuarekin alderatuta, nabarmen txikiagoa da maila hori. Gauden sasoiaren egonda, zein balorazio egiten duzu?

Uztailea izateko oso maila baxua da, bai. Inoiz ez dugu ezagutu uztailean horrelako maila baxurik. Minimoetan gaude.

Urtetik urtera ikusten ari garen joera da? Betetze maila jaisten ari dela sasoi bereko aurreko urtearekin alderatuta? Edo aurtengoa berezia da?

Ez dugu inoiz ikusi, aurtengoa berezia da. Aurreko urteetan, ia beti, gainezka egin arte, alegia, %100era arte bete izan da urtegia. Aurten ez da hori gertatu une baten ere; gehienez, %70 betetzera bakarrik heldu gara, eta hori da orain gauden egoeran egotearen arrazoia. Bildutako ur horrek datorren negura arte eman beharko du.

Arrazoiak zeintzuk diren aztertu duzue?

Arrazoia argi dago: 2022ko urtarrilaz geroztik oso euri gutxi egin du gure inguruan. 2022ko negu hartan urtegia goiz bete zen, baina, gero, ez zuen euri nabarmenik egin, eta, harrezkero, urtegi oso ur gutxi sartu da.

Zaparrada mardulak bota ditu aurten, halere.

Ez du ezertarako balio izan. Eurate haieran ez zen batere igo Urkuluko maila. Egun baten euri zaparrada horiek egin eta hurrengo egunean are baxuago aurkitu dugu urtegi oso ur maila. Oso zaparrada puntualak izan dira, ordu gutxi iraun dute, eta Urkulu handia da, ur asko behar du betetzen hasteko.

Alabaina, Gipuzkoako beste urtegiak bete egin dira, ezta?

Urkulu Gipuzkoako bigarren handiena da. Ez da hain erraz betetzen. Barrendiolan eta Aixelan, esaterako, horrelako zaparrada baten ondoren berehala igozten da uraren maila. Ur-



Aitor Irizar Agirrebeña, Epeleko araztegi bulegoan. MIREN ARREGI

"Urkuluk, duen geologiagatik, euri asko behar du betetzeko"

AITOR IRIZAR GIPUZKOAKO UR KONTSORZIOKO DEBAGOIENeko ANTOLAKETA-BURUA Hamahiru urte daramatza Gipuzkoako Ur Kontsorzioko lanean Aitor Irizar Agirrebeña bergararrak, eta, duela urtebetetik, Debagoieneko antolaketa-burua da

kulun, berriz, ez gara enteratu ere egiten.

Zergatik?

Geologiari lotutako arrazoiengatik. Ura jasotzen duen Urkuluko eremuak berak ur asko behar du eta euria jarraikortasun batekin egin behar du Urkuluko maila igozten has dadin. Bigarren edo hirugarren astean asko igozten da. Baina lehenengoan ez.

Arrazoi nagusia euri falta da, beraz? Arrazoi nagusia euri falta da, zalantza barik. Esan bezala, euria diharduenean ere oso zapa-

rrada puntualak eta bortitzak izaten dira, askotan, eta horrek ere ez du laguntzen.

Arrasaten 2022ko urrian matxuratu zen ur-hodia ere Urkuluko egoeraren erantzule bat izan daitekeela diote batzuek. Horrek izan du eraginik?

Arrasateko Udalaren sarean izan zuten ihesa, eta Udalak esan zuen 72.000 m³ ur galdu zela. Horrek soilik Debagoieneko bost eguneko kontsumoa kendu digu urtegiaren, eta orain bertan daukagun aurreikuspenekin –betie-

re, euririk egiten ez badu–, 291 eguneko autonomia du Urkuluk. Beraz, ez da eragile nagusietako bat.

Horrek esan gura du autonomia ez dela urtebetetera iristen.

Hori, euririk ez badu egiten, baina euria egin egingo du.

Iñigo Elosegiri, zuen zuzendari nagusiari, entzun diogu joan den astean gure urtegiak minimo historikoetan daudela. Joera orokorra da? Ala Urkuluren kasua berezia da?

Joan den astean, Gipuzkoako Ur Kontsorzioko zuzendari Iñigo

Elosegik antolatuta, EHUko Uda-ko Ikastaro bat egin zen, *Urtegiak eta klima aldaketa* izenburupean. Han azaldu ziren klima aldaketak eragindako aurrera begirako erronkak zeintzuk diren, eta Urkuluko kasua ez da berezia. Baina egia da gure eskualdean, aurten, beste bailaretan jasaten ari ez diren ur eskasia dugula.

Eta zertan ari da eragiten klima aldaketa? Zein eragin ari da izaten urtegiaren?

Momentuz, eragina euria egiteko moduan ikusten dugu, euriteak oso puntualak izaten ari direlako, eta, zehatz, Urkuluko kasuan hori ez da komenigarriena urtegia betetzeko, eurite jarraituak behar izaten baititu ur sarrera potentia nabaritzeko. Baina bestelako eraginak ere badaude; esaterako, tenperaturen igoerak uraren lurrunketa bizkortzen du eta hortik ere ura galtzen da. Orain arteko eragin negatiboak zati handi batean kontsumoaren beherakadarekin konpentsatu izan ditugu, eta ez da arazorik izan. Izan ere, ur-ihesak asko murriztu dira azken hiru hamarkadetan. Etxe eta lantokietan ere ur gutxiago erabiltzen da, ekipo eta etxetresna eraginkorrak daudelako. Esaterako, garbigailuek ur gutxiago kontsumitzen dute, eta, industriak ere inbertsioak egin dituzenez, askoz gutxiago kontsumitzen dute. Denera, 1990eko hamarkadan biztanleko 340 litroko kontsumoa izatetik soilik 180 litroko kontsumoa izatera pasatu gara. Alegia, ia erdia kontsumitza igaro gara.

Zeintzuk dira pronostikoak?

Klima aldaketa aztertzen duten zientzialariek pronostiko desberdinak dituzte, berotegi-efektuko gasak zenbat murriztea lortzen dugun arabera. Euskal Herriko kasuan, tenperatura igoera aurreikuspenak ez dira hain pesimistak. EHUko ikastaroan esan bezala, Gipuzkoako kasuan ez da aurreikusten klima aldaketak eraginda urtegi berririk eraiki beharra izatea.

Kezkatuta egoteko arrazoiak badiugu?

Kezkatuta egoteko baino gehiago, etor daitezkeen arazoak ekiditeko lanak aurrera eramateko arrazoiak ditugu, aurrerago berandu izan daiteke eta ezer konpontzeko. Baina, momentuz, 2024ko maiatzera arte hornitzen jarraitzeko ura badaukagu Urkulun –hori, kasu-

rik txarreanean, euri tanta bat ere egin gabe-. Orain bertan Urkulun 6.100 milioi litro dauz-kagu bilduta, eta momenturen baten euria ganoraz egiten hasi beharko du.

Zein dira aurrera begira dituzuen erronkak?

Helburua da bailara barruan azpiegiturak interkonektatuta egotea. Geroz eta konexio gehiago baditugu jokatzeko aukera gehiago izango dugulako, urtegi batean ura falta bada bestetik hornitu ahal izateko eta abar. Aixola eta Urkulu konektatuta daude dagoeneko eta badaude lotu gura ditugun beste sistema batzuk ere. Elgoibarren Kilimon, Brinkolako Barrendiola eta Azpeitiko Ibai Eder, esaterako. Azken horiek biak konektatuta daude dagoeneko eta Barrendiola Beasaingo Arriaran urtegiarekin ere bai.

"EZ DA AURREIKUSTEN URTEGI BERRIRIK EGITEA"

"DEBAGOIENDARRON UR KONTSUMOA IA ERDIRA JAITSI DA"

"SORTUKO DIREN ARAZOAK PUNTUALAK IZANGO DIRA"

Hori guztia, aurreikusten delako datozen urteetan arazoak egon daitezkeela?

Bai; ez dakigu arazo horiek zenbaterainokoak izango diren, baina uste dugu izatekotan puntualak izango direla. Joan den asteko ikastaroan esaten zen bezala, mundu mailako tenperatura igoko da, baina, aurreikuspenen arabera, hemen inguruan ez da askorik igoko, eta, beraz, ez gara hain pesimistak. Gertatzen dena da balitekeela hemendik aurrera zaparrada oso mardulak botatzea sarriago, eta hori horrela gertatzen bada zailagoa izango da ur horiek jasotzea. **Horixe erronka, beraz; izan ere, azken urteetan egindako lanari esker, araztegiak eraiki direnetik, uraren kalitatea asko hobetu da, ezta? Alde horretatik, ez dago asko egiteko?**

Edateko uraren kalitatea beti izan da ona Debagoianean, eta, araztegiak egin direnetik, erre-kako uraren kalitatea ere askoz hobe da, bai. Halere, beti dago zer egin.

Gure herrietako ur zikin guztiak garbitzen dira kolektoretan?

%95 inguru. Eta, poliki-poliki, kolektorera konektatuta ez daudenak konektatzen joatea da asmoa. Elgeta eta Antzuola falta dira konektatzeko. Ur agentzia dabil lan horiek egiten, eta ez da askorik falta konexio horiek bukatzeko. Behin lan horiek bukatuta, ia Debagoien osoko ur-zikinak garbi itzuliko dira erre-kara.

Mondragonek aurrera begira jarraitzen du

Eguazten arratsaldean Donostian izandako kongresuan, korporazioko lehendakari Iñigo Uzinek adierazi zuen "taldearen bilakaera positiboa" izan dela

Julen Murua Mesonero ARRASATE
Mondragon korporazioak 2022ko emaitzen "balantze positiboa" egin zuen eguaztenean izandako kongresuan. Korporazioa osatzen duten kooperatibek guztira 10.607 milioi euroko irabaziak lortu dituzte salmenten bitartez; hain zuzen, %10,7ko hazkundera da hori aurreko urteko datuekin alderatuta.

Korporazioko lantaldean ere igoera txiki bat izan dela adierazi zuten kongresuan; batez beste, 68.879 pertsonako lantaldea izan dute urte osoan.

Datu horiei garrantzia eman gura izan zien Uzinek, urteko "testuingurua zaila" izan dela iritzita: "Errusiak Ukrainan egindako inbasioak eta horrek



Bixente Atxa, kongresuan. 'TULANKIDE'

merkatuetan eragin dituen ondorioek baldintzatuta".

Ezagutza Dibisioa

Aurtengo edizioan Mondragonek proposatu duen puntu esanguratsuenetako bat da "Ezagutza

Dibisioaren sorrera". Erakunde guztiak dibisio berean integratzea eta haien arteko lankidetzaz bultzatzea da helburua. Hamai-ka erakunde eta 2.000 pertsona inguru bilduko ditu Ezagutza Dibisioak.



Urkuluko urtegia, aste honetan. ROBERTO MADINABEITIA

DEBAGOIENEN
PROFESIONAL LIBERALAK

| | |
|--|---|
| <p>ABOKATUAK</p> <p>BERNARDINO MAIZTEGI BERGARA / Irizar 5 Tel.: 943 76 10 81</p> <p>BEGOÑA LASAGABASTER ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A Tel.: 943 79 98 86 blasaga@icagi.net</p> <p>RAFAEL ARANBURU BERGARA / Irizar 5 Tel.: 943 76 10 81</p> <p>ARKITEKTOAK</p> <p>BIARK ARKITEKTOAK ARRASATE Usaetxe plaza 1, behea Tel.: 943 79 80 33 www.biark.net</p> | <p>AHOLKULARITZAK</p> <p>ANDRA MARI AHOLKULARITZA ARETXABALETA Araba ibilbidea 20, behea Tel./Faxa: 943 79 29 26 andrama@arrakis.es</p> <p>ALBERDI ASESOREAK BERGARA / Matxiategi 36 Tel.: 943 76 90 83</p> <p>ETXE ADMINISTRATIOAK</p> <p>URIBESALGO ADMINISTRATIOAK ARRASATE Pablo Uranga 3, behea Tel.: 943 79 51 25 uribesalgo@uribesalgo.es</p> |
|--|---|

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.



ZABALIK

AGURNE JULDAIN

Eskerrik asko!

Eskerrik asko, Maria, Marisa, Ander, Anuska, Sara, Kepa, Ibon... Ezin zaituztet guztiok izendatu. Eskerrik asko Arrasateko EAJ-PNVko taldekide guztioi.

Eskerrik asko egun batean gure Euskadi maitatu honetan bizi garen Arrasaten herriarengatik zuen denbora emateko aurrerapausoa eman zenutelako.

Ez da plaza erraza Arrasate. Zorionekoa sentitzen naiz Arrasaten bizitzeagatik. Maite dudana herria delako; nire denbora librea herriari eta arrasatear guztiei ahal dudana neurrian eman nahi izan diet beti; orain ere bai.

Ez da erraza Arrasaten, beste herri askotan bezala, EAJ-PNVkoa izatea. Askok barre egingo duzue lerro hauek irakurtzerakoan eta askok, zuen barruan bakarrik bada ere, onartuko duzue ez nagoela gezurrik esaten. Zergatik?

2022ko otsailean eman nuen aurrerapausoa eta agerraldia egin genuen Arrasateko EAJkook nire lehendakaritza aurkezteko. Urteetan lanean ibili eta gero, alderdikideek aukeratu ninduten

Arrasateko EAJko lehendakari izateko. Ohorea niretzat! Baina orduan hasi ziren, zoritxarrez, errespetu faltak.

ZUREKIN NIRE KEZKAK ETA SENTIPENAK KONPARTITU ETA AURRERA JARRAITU!

Azken egunotan azkena: lagun batekin kafea hartzen nengoela, mugikorrean mezua jaso nuen: "Zelatan jarri duzu iruzkina?". Ez nuen ezer

ulertzen. Mugikorrean jaso nuen esandako iruzkina, eta ez, ez nintzen ni. Baina bazirudien ni nintzela, Agurne eta EAJren aldeko iruzkina. Zenbat Agurne arrasatear ezagutzen dituzu EAJren aldeko iruzkina idatzi dezaketetik? Baina tira, nola frogatu nire irudia erabili duela beste norbaitek? Zer egin dezaket?

Zurekin nire kezka eta sentipenak konpartitu eta aurrera jarraitu!

Baina adorea soberan daukat eta animatzen zaitut bai, zu, aurrerapausoa eman dezazun maite dugun Arrasateren eta arrasatearren alde. Erronka ederra eta EAJko talde izugarria!

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



GUTUNAK

Gora San Fermin!

YOLANDA JIMENEZ SUDUPE

ARRASATE

Sanferminetan, komunikabideen eta sare sozialen bidez jende artean izan zen borroka bortitz baten bideo eta irudiak iritsi zitzaizkigun hasierako egunetan. Nahiz eta horrelako indarkeria-kasu gehiago izan diren hurrengo egunetan, herritarrek bat egin zuten gertakizun hura berehala salatzeke; esan zuten halako indarkeria-kasuak ez dituztela onartzen eta puntualak direla.

Sare sozialetan beste irudi batzuk ikusi dira, baina horiek komunikabideetan ikustea ez da erraza: *Oloroso* zekorrek zezen-plazan bizi izan zituen

azken uneak. Esperientzia gutxi duen nobillero batek toreatu zuen, eta birrikak odolez betetzen zaizkion bitartean sufrimenduz betetako heriotza krudela izan zuen: <https://labur.eus/XPGvy>.

Egunero 08:00etan Iruñeko kaleetan korrika ikusten ditugun zezenak arratsaldeetan zezen-plazan hiltzera kondenatuak daude. Sufrimenduz betetako tortura. Eta ez da puntuala: jaiek dirauten bitartean egunero gertatzen da, urtero.

Beste titular batek ere arreta eman dit: bosgarren entzierroa, azkarra, garbia eta "aspergarria" izan omen zen; zauriturik egon ezean, ez zaigu hain interesgarria iruditzen; besteen bitzita zezenen adarren artean

arriskuan ikusteak ikusgarritasuna ematen dio, emozioa eta *morboa*.

Sanferminak jaia eta algara dira, ondo pasatzera goaz. Baina ezin dugu ukatu munduan ezagunak diren jaion ardatz nagusia zezenak eta entzierroa direla; entzierroen atzean animalien sufrimendua dago, eta bizitza arriskuan jarri duten eta zaurituak izan direnena.

Gure gaztetxoaren artean mezu hau zabaltzen dugu: animalien sufrimenduari gozatu egiten dugu. Korrikalariek bitzita arriskuan jartzen dutenean ere gozatu egiten dugu.

Nahiz eta entzierroekin jarraitu, zezenketarik gabeko sanferminak aurrera goazen eredu polita izango lirateke.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Gaiatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa

arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura),
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.

Publizitatea

Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.500 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldiakari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

GUTUNAK

Iritzi monolitikoak

KEPA SEBAL LAZPIUR
BERGARA

Egungo Hispanoamerikako herritarrek, duela bost mendeko konkistatzaileenak ez bezala, historiaren kontaketa presentismo politizatuaren biktima izaten ari dira.

Gaztelako koroaren domeinupeko biztanleek amerikar lurraldea dominatu zutela esatea sinplifikazio hutsa da. Jauntxoaren eta morroiaren dinamika ez zen azalaren kolorean edota ondasun ekonomikoetan oinarritzen, baizik eta estamentu, oinordekotza eta foru-oinarria zuten sistema legal eta feudal askoz ere konplexuagoan. Arrazaren eta botere ekonomikoaren ideia XIX. mendean sorturiko arrazonamendua da, Afrikako kolonizaziorako eta nazio-estatuaren sorrerarako propio garatuko zen fantasia identitarioa.

Bizkaiko jauntxo eta morroiarenak kazike eta manupekoen roler betetzen zuten ozeanoaren bestaldean; apaizarena, xamanak, eta, noski, gizarte-ordena

bermatzen zuten gerlariak ikusi zitezkeen bi alderdietan. Honela bukatu zuten koroa hispanikoko konkistatzaileek Ipar eta Hego Amerikako kazikeen alabak emazte eta ohaidetzan hartzen, eta haiek, euren senitartekoak, bertako erregeekin itun-truk ezkonarazten.

Jakina da Martinez de Iralak ondorengo oparoa izan zuela hainbat emakumerekin; haietako bat, Maria de Mendoza, buruzagi guaraniar baten alaba zenarekin. Narciso Binayan Carmona genealogistaren arabera, seme-alaba haietako gehienak beste konkistatzaile eta lekuko buruzagi batzuekin ezkondu zituen, eta leinua denboran gertukoagoak ditugun Manuel Belgrano, Victoria Ocampo, Bernardo Irigoiien eta Ernesto Guevara bezalako pertsonaiengana iristen da.

Izarrei begira hausnartu dut ospe eta aberastasun bila abiatu zen kaparetxo baten omenez eraikitako monumentua baino ez genukeela galduko bergararrek. Paraguaitarrek eta argentinarrek berriz dute euren identitatearen zati bat galtzeko arriskua arbasoen eginga eta izana arnagutzen hasten badira.

Hustu ditzagun Kongresua eta Senatua!

LUIS MARIA ORMAETXEA SANTSIÑENA

'AULKI ZURIAK – ESCAÑOS EN BLANCO PARA DEJAR ESCAÑOS VACIOS' ALDERDIKO GIPUZKOA BARRUTIKO KONGRESURAKO HAUTAGAIA DEBAGOIENA

Aulkiak hutsik uzteko Aulki Zuriak - Escaños En Blanco alderdia ordezkatuak sentitzen ez direnentzako aukera da.

Aukera politikoko egokirik aurkitzen ez duten herritarren ordezkari izan nahi dugu; boto zuria ematen dutenen botoa eraginkor egiten duen aukera bat gara; protesta egiten dutenen aukera bat gara, protesta jarleku huts batean islatuko baita; abstentzioan geratzen direnen aukeretakoa bat gara, gurekin botoa beti baita baliagarria, aulki edo eserleku hustu moduan islatzen baita beti.

Aulki Zuriak - Escaños En Blancok hiritarrentzat proposatzen duena berezia da. Beste alderdi batzuek egiten dituzten promesetatik erabat desberdina da.

Gure hauteskunde-programa esaldi batean laburtzen da: "Lortuko diren aulkiak askatzea, edozein soldada edo

diru-sarrerari uko eginez". Herritarrek Kongresuan eta Senatuan eserleku huts bat uzteko eskubidea dutela eta aulki horrek ez diela herritarrei euro bat ere ordaindu behar defendatzen dugu. Legegintzaldi osoan liberatutako aulki horiek ez dira okupatuko, eta, beraz, uko egiten diogu lege eta erregelamenduz dagozkigun ordainsari guztiak jasotzeari.

Aulki Zuriak - Escaños En Blancoko hautagaiek behar adina boto lortzen badituzte, aulkiak libre, hutsik, okupatu gabe, utziko dituzte. Horrela, askatzen den aulki politikarekin baztertuta, ahaztuta eta frustratuta sentitzen direnen sinboloa izango da.

Pertsona guztiek dute botoa emateko eskubidea, baina boto guztiek ez dute balio bera. Kongresuan eta Senatuan eserleku hutsak uzteko Aulki Zuriak - Escaños En Blancok sistema politikokoaren kalitate demokratikoa neurtuko du. Ohiko alderdi nagusiek ordezkatzeko ez dituzten herritarrenak direlako jarleku libreak, hutsak.

Hustu ditzagun Kongresua eta Senatua!

Eskerrik asko!

SAIOA OJANGUREN OJANGUREN
ARRASATE

Badira egun batzuk Arrasateko ospitaleko hirugarren solairuko 315. gelan egon nintzela sei egun luzez. Ama, ahizpa, senarra eta laurok, zaintzaile. Gaixoa, nire aita. Oso une gogorrek bizi izan genituen han. Gure aitaren bizitza nola itzaltzen zen ikusi behar izan genuen. Ez zuen sufritu; azken lau egunak lasai egon zen, arnasketa gero eta mantsoago, gero eta lo sakonagoan murgiltzen. Bizitzaren legea izango da, baina gogorra da bertatik bertara bizi izatea egoera hori.

Hala, Arrasateko ospitaleko hirugarren solairuko langileen profesionaltasuna, babesa, maitasuna, enpatia eta goxotasuna eskertu gura dut. Eskerrik asko nire aita, familia eta ni neu ezin baino hobeto zaintzeagatik. Hain ondo egindako lanak eramangarriago egiten ditu une txarrak.

Kalitatezko osasun publiko duin eta unibertsalaren alde lan egitea beharrezkoa da, eta hori are eta sutsuago defendatzeko arrazoiak ditut.

Izarretan elkartuko gara, aitta.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Oñalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus



Reala-Girona eta Real Celta partidetarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Girona eta Real Celta norgehiagokak beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuk eta zuk aukeratutako beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko *premium* gunetik.

Reala-Girona: abuztuaren 12an, zapatua, 17:00etan.

Real Celta: abuztuaren 19an, zapatua, 17:00etan.

Parte hartzeko azken eguna: uztailaren 25a

Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!



1. Aplikazioa deskargatu.

2. Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

Gertu. Zorte on!



Egin Goienakide eta Real ikusteko aukera izango duzu!

goiena[™]
kide

Okm: batzen gaituen distantzia



Joan den egubakoitzean ospatu zituzten Zerrajerako jaiak. Argazkian, afaria. ZERRAJERAKO JAI BATZORDEA

Auzo eta kaleetako jaiak, asteburuak alaitzeko gako

Joan den asteburuan ospatu zituzten Zerrajerako eta Santa Marinako jaiak, eta, horien ostean, Maalako errebalekoak eta Ferrerriakoak datoz, bihar eta hilaren 26an, hurrenez hurren; irailean Zarugaldekoen, Elmakoen eta Erguingoen txanda izango da

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE San Andresko eta Musakolako jaiak izaten dira, sanjuanen aurretik, asteburuko egitarau zabalak izaten dituztenak. Dena den, herriko festa nagusien ondoren ere ez dute etenik izaten auzo eta kaleetako jaiak. Joan den asteburuan, esaterako, Zerrajerakoak eta Santa Marinakoak egin zituzten. Zerrajerakoei dagokienez, hiru urteko etenaren ostean berreskuratu dituzte, eta, bero handia egin bazuen ere, erantzun ona izan zuten antolatutako ekintzek, "giro ezin hobean", Jai Batzordeko Iratxe Maskarianoren esanetan. "Aurreko urteetan baino jende gutxiago izan ginen, baina ederto pasatu genuen. Uste dugu geldialdiaren ondorioa izan daitekeela; beraz, hurrengo urtera begira, jende gehiago animatzea gurako genuke", gaineratu du.

Santa Marinako jaiak ere "primerako erantzuna" izan dute, Matilde Martin auzo-alkatearen esanetan. "Oro har, giro ona eta

gizalegezkoa nagusitu da, bereziki kontzertuetan. Halaber, erretiratuak bazkaria eta omenaldia nabarmenduko nituzke. Auzoko lau nagusienak omendu genituen, elizako aurrekuaz gain, hainbat oparixorekin, eta oso eskertuta azaldu ziren. Edozelan ere, badira gustatu ez zaizkidan bi kontu. Batetik, barrakak baimen barik etorri ziren eta joan behar ziren. Bestetik, Udalak berandu egin zigun zegokion ordainketa eta nire bankutik atera behar izan nuen dirua eragileei ordaintzeko".

Bihar, Maalako errebalekoak Maalako errebaleko jaiak bihar ospatuko dituzte. 12:30ean, gaiteroak eta erraldoiak aterako

MAALAKO ERREBALEKO JAIK ETA FERRERIASKOAK EGINGO DITUZTE UZTAIL AMAIERAN

dira kalera eta 14:30ean auzo bazkaria egingo dute estratetan. Bazkalostean umeendako jolasak izango dituzte, eta, DJ Goikoren ilunkerako musika emanaldiaren ostean, suzko erruberekin borobilduko dute eguna.

Uztailaren 26an, Ferrerriakoak Ferrerriako jaiak dagokienez, eguaztenean izango dira. Goiza txistulariek alaituko dute eta arratsaldean haur jolasak eta txokolate-jana izango dituzte, 17:00etan. 19:00etan, mezaz gain, erraldoi txikien konpartsa eta txistularien kalejira egongo dira eta 21:00etan, afaria -txartelak salgai daude Kilikolon-.

Irailean, beste hiru Irailean, Zarugaldeko, Elmako eta Erguingo jaien txanda izango da. Zarugaldekoak hamaikagarrenez egingo dituzte, irailearen 2an, eta afarirako txartelak salgai daude Brankan, Muxibarran eta Miren Garai estetika zentroan, abuztuaren 27ra arte.



E.A.B.

Errugbiko zelaia aldatzeko lanak

Zelaia aldatzeaz gain, datu-neurketarako beharrezkoa den kanalizazioa egiten ere ari dira, aurrerago egingo dituzten atletismo pistako hobekuntza lanak aurreratzeko. "Gero ez da lurra altza beharko", dio Gobernuak. OPSA Obras Y Pavimentos enpresa ari da lanak egiten, 410.647,12 euroko aurrekontuarekin -BEZa barne-, eta irail erdialderako bukatzea aurreikusten dute.

GORA ETA BEHERA



Txartel barik aparkatuta, luzaroan

Herritar batek honako kexa hau helarazi du: "Mugikortasun urrikoendako aparkalekuan dago aparkatuta auto bat. Hainbat egun daramatza eta ez du horretarako txartelik".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Mendi ibilaldiak eta bisita gidatuak asteburuero

Udako denboraldia aprobetxatuz, Arrasateren historia eta ondarea ezagutarazteko bisitak egiten ari da Udala. **Arrasate hiribildu bisita** bisita uztailaren 29an, abuztuaren 5ean eta 12an eta irailaren 2an egingo dute, 11:00etan Biteri plazatik abiatuta. **Arrasateko industria ondarea** bisita, berriz, bihar eta irailaren 9an, 11:00etan Biteri plazatik

abiatuta. Mendi ibilaldiei dagokienez, etzi, PR GI-206 Murugain ibilbidea egingo dute, 09:00etan Herriko Plazatik irtenda; abuztuaren 6an, Udala-Gongetako meatzea-Besaide ibilbidea egingo dute, 09:00etan Udalatik irtenda; eta abuztuaren 27an, Udala-Txukurillo bidea, 09:00etan plazatik irtenda. Parte hartzeko, aurrez izena eman beharko da, izenemateak.arrasate.eus-en edo telefonoz. Uztailaren eta abuztuaren, 644 37 47 46 zenbakira deitu beharko da.

Sara baserria, kiskalita; jatetxea, berriro zabalik

Egubakoitz gauean, Ertzaintzak abisu bat jaso zuen, Sara baserria sutan zegoela ohartaraziz; iristean, 29 urteko gizona bat atxilotu zuten, lapurreta egitea eta sua piztea leporatuta; baserria kiskalita geratu zen arren, jatetxeak ez zuen kalterik izan

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Ertzaintza, Udaltzaingoa eta suhiltzaileak joan zirenerako, sugarrek baserri osoa hartuta zuten. Modu horretan, suteak erabat kiskalita utzi zuen Kanpanzarko Sara baserria eta kalte materialak handiak izan ziren, nahiz eta ez zen inor zauritu. Jatetxeak ez zuen kalte handirik izan, eta, astelehenaz geroztik, zerbitzua ematen ari da berriro. Hori bai, suhiltzaileen ura barrura sartu zen eta garbiketa lanak egin behar izan zituzten. Horrez gain, sutearen ondorioz, gas barik geratu ziren; izan ere, jatetxeak bere gas propano depositua duen arren, jatetxeko sukaldera doan hodia baserriko fatxadatik pasatzen zen; hortaz, momentuz, gasa etenda dute.

Lapurreta saiakera

Ertzaintzak adierazi duenez, abisua jaso eta lekura iritsi zirenean, ikusi zuten baserriko atzeko atea irekita zegoela eta sarrailek bortxatu izanaren zantzuak zituela. "Etxebizitza inguruan gerriko poltsa bat eta giltzen diru-zorro bat zeuden, baserriko jabearenak, hark hala baieztatuta. Horrez gain, agenteek bizikleta bat ere aurkitu dute eta jabeak ez du ezagutu", azal-



Sara baserria, guztiz kiskalita, joan den zapatu goizean. LARRAITZ ZEBERIO LEKUONA

du zuen orduan Ertzaintzak. Suhiltzaileak lanean ari ziren bitartean, ingurua aztertzen hasi ziren ertzainak, eta gizona bat aurkitu zuten, lahardi artean gordeta. "Susmagarria ihes egingen saiatu da, eta lapurtutako hainbat gauza erori zaizkio bide horretan, jabeak gerora ezagutu dituenak", nabarmendu zuten agenteek. Edurne Iturbe jate txeko arduradunak gaineratu zuen hara ailegatu eta ganbarara joan zirenean gauza guztiak hankaz gora zeudela. "Nabaria zen guztia arakatuz aritu zela,

armairu guztiak hustuta zeuden", azpimarratu zuen.

Ospitale psikiatrikora

Ihes egiten saiatu arren, azkenean, atzeman egin zuten ustezko egilea. 29 urteko gizona bat zen, eta, identifikazio lanak egin ostean, atxilotu egin zuten, etxebizitzari su ematea eta lapurreta egitea leporatuta. Ertzaintzak baieztatu zuenez, ospitale psikiatriko bateko paziente zen atxilotua, eta, epaileak hala aginduta, berriro ere ospitalera itzularazi zuten, domekan bertan.



NIRE USTEZ

RAMON UGALDE

Ondarea

Aurki beteko da urtea Uribeko zubia bota zutenetik. Zubi horren eraistek sekulako sumindura eragin zuen Mondragoen. Etxezarretako zubia –nire iritzian, interesgarriagoa– ere bota zuten, baina horrekin inor ez zen haserretu. Uribekoarena salatzeke Arrasateko elite kultural eta politikoak esandakoaz akordatu naiz: XVII. mendeko zubia zela, eraisketa modu maltzurrian egin zutela oporren hasiera aprobetxatuz, izan ziren deitoratu zutenak erabakia Udal Gobernutik kanpo hartu izana... Baina zubiaren berezko balioaz edo edertasunaz, ordea, inork ez zuen ezer esan. Asuntua izan zen LKSkoko arkitektoen txostenean Uribeko zubia zela babestu beharrekoa eta Uribe baserrikoa, aldiz, erabilera bakoa zela, balio eskasekoa. Eta hala, zinziazko zubi zaharra babesik gabe geratu zen eta hormigoizko berria babestuta. Konfusioa edo maltzurkeria? Nik neuk ez daukat erantzunik, ez baitut ulertzen Arrasaten dagoen irizpidea zaindu beharreko ondareaz. Elmako Dorrea zergatik dago egoera penagarri horretan? Eta zergatik egin da halako ahalegin ekonomikoa Zerrajerak utzitako ale itsusienak berriztatzen?

Gaur bertan amaituko dituzte Txatxilipurdiren udalekuak

Parte-hartzeak gora egin du aurtengo Txatxilipurdiren udaleku irekietan eta hiru astez aritu dira aurten ere

Miren Arana Pagaldai

ARRASATE Gaur amaituko dira Txatxilipurdiren udaleku irekiak, eta, nahiz eta oraindik barne mailako baloraziorik egin ez, orokorrean zenbait gauza nabarmendu dituzte begiraleek. Amaia Arregi udaleku irekien ardura-dunak aurreratu duenez, parte-hartzeak gora egin du aurten; txikienen artean, batik bat: "Sekula baino ume gehiagok eman dute izena, eta talde oso plurala edukitzea lortu dugu: ikastetxe, auzo eta kultura askotariko haurrak izan ditugu".

Bestetik, gurasoekin izandako harreman ona ere eskertu du koordinatzaileak: "Gurasoekin eguneroko harremana kudeatzeak badu bere lana, eta aurten oso ondo aritu gara, eguneroko hartu-emanean gurasoek sekulako jarrera ona izan baitute. Eskuko telefonoaren erabilera murriztea eskatu genuen hasieratik, eta hala izatea lortu dugu: behar izan den momentuan behar zenerako eta behar bezala erabili da telefonoa, eta une oro behar zen tonua erabili dute gugana jotzeko".



Gualbi
aholkularitza
Eraña aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOLOKULARITZA

ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK



Jokin Zaitegi plaza 6 (Arrasate) • 943 79 83 95 • erana@aserana.com • www.gualbiasesores.com

"Bidea egiteko dago; hasteko gertu gaude"

ESTI LOITI 'TITU' MONDRAKO EMAKUMEZKOEN SAILEKO KOORDINATZAILEA Iraitetik aurrera Mondrak infantil eta erregional mailen artean lau talde izango ditu berdegunean. Jokalariak izena emateko garaiz daude oraindik

I. Barrena / X. Urzelai ARRASATE

2017a ezker Leintz Arizmendi egitasmoko parte izan eta gero, Mondrako zuzendaritzak bide propioari ekiteko erabakia hartu du, eta emakumezkoen taldeak sortzeko apustuak erantzun ona izan du, 80 jokalarik eman dute eta izena. Bada, sail hori koordinatzeko ardura izango du hainbat etapatan klub zuri-morean bai jokalaria eta baita entrenatzaile moduan ekarpen galanta egin duen Esti Loiti Titu-k (Arrasate, 1969). Ilusioz gainezka eta urduritasun puntuarekin dagoela aitortu dio GOIENARI. Eta berba bat behin eta berriro errepikatu du: *konpromisoa*.

Mondrak Arrasateko jokalariei egindako deialdiak erantzun ona izan du: lau talde izango dituzue.

Bai; oso pozik gaude, hasiera batean ez genekielako zein izango zen erantzuna. Egia da behin pausoa emanda berdin-berdin aurrera egingo genuela hogeit hamar jokalaria izan edo 40 jokalaria izan. Baina, zorionez, 80 jokalarik eman dute izena, eta oso pozik gaude, eta baita urduritasun edo bertigo apur batekin ere. Baina hemen gaude, hasteko gertu.

Proiektu berriak hasteak zailtasunak izaten ditu; zer moduz hasiera honetan?

Bai, ez da batere erraza sasoi hauetan emakumezkoak batzea; lau taldeen benetako argazkia irailan ikusiko dugu. Baina Mondrak emakumezkoen taldeak sortzeko erabakia hartzeaz batera hasi nintzen klubarekin berbetan, eta izen-emate epeak dezente baldintzatu gaitu, bai. Jokalariak oporretan daude, baina, hala ere, geure burua aurkeztu nahi genuen eta hilabete honetan hasi gara lanean. **Lau talde aterako dituzue; ez dira gutxi...**

Lau talde aterako ditugu, izen-emateek horretarako aukera eman digutelako, garbi geneukalako ez genuela inor kanpoan



Esti Loiti, aste barruan, Mojategin. GOIENA

"PROIEKTU HONETAKO ERAGILEEI GAUZA BAKARRA ESKATZEN DIET: KONPROMISOA, HAIN ZUZEN ERE"

utzi behar. Azken baten, helburu nagusia da jokalariei futboleko egiteko aukera ematea, eta, 80 jokalaria izanda, aukera izan dugu horretarako. Baina kategoria guztietan maila baxuenean hasiko gara, eta bidea egiteko dugu. Erregional mailako taldea, esaterako, oso gaztea da. Bizpahiru urte beharko ditugu talde guztiek beste sendotasun bat erakutsi dezaten. Baina orain helburua da talde horiek klub barruan integratzea eta lanean hastea. Joango gara epe ertainera begirako helburuak finkatzen; oraingoz, kirol emaitzek ez dute lehen-tasunik izango.

Erregionaleko taldea aipatu duzu, baina zein garrantzi izango du harrobiak?

Garrantzi osoa; izan ere, harrobi barik ez duzu ezer.

Uztaila ez da izaten hilabete errazena lanerako...

Kaotiko samarra izaten dabil, bai; kar-kar. Egia da uztaila ez dela hilabete ona halako proiektu batekin hasteko, lehen esan dudan moduan jokalaria oporretan daudelako. Baina entrenamendu-saio batzuk egin ditugu eta jokalaria ilusio galantarekin ikusten ditut.

Ilusioa ezinbestekoa da, baina hori baino gehiago behar da halako proiektu batean.

Argi eta garbi, ilusioarekin batera konpromisoa behar da. Eta hori da proiektu honen bueltan dauden eragile guztiei eskatzen diegan gauza barra. Konpromisoa izan dezatela jokalariek, entrenatzaileek, zuzendaritzak eta baita gurasoek ere, euren beharra ere izango dugulako. Azken batean, gure atzean lagun askoren lana dago, musu-truk egiten duten lana, eta hori ere kontuan izan behar da.

Konpromiso horiek hartzeko inor prest badago, oraindik garaiz dago?

Bai, ateak zabal-zabalik daude. Bai jokalaria, bai laguntzaile... Izan ere, halako lekuetan, lanerako gertu dagoena ongietorria izaten da. Eta bai, izenik eman ez duten neskek irailan ere izango dute lekua.

Urte emankorra izan da Arrasate Rugby Taldearendako

Martitzenean egin zuten batzar orokorrean nabarmendu zuten klubaren ekimen berriek indarra hartu dutela

X.U. ARRASATE

Arrasate Rugby Taldeak urteko batzar orokorra egin zuen martitzenean, eta zuzendaritzak nabarmendu zuen urte emankorra izan dela. Batzarrean azaldu zuten, inklusibo eta amen taldeak nabarmen indartu dira. "Eta gainontzekoek aurrera egin dute", adierazi zuen Ramon Barrutia presidentek. Testuinguru horretan, agintari zuri-moreek gurasoek egindako ekarpena nabarmendu zuten. Eta Huhezirekin sinatutako hitzarmena ere nabarmendu zuten: "Taldea inklusiboko jokalaria, dinamizatzaile, entrenatzaile eta gurasoek lagundu eta orientatzeko metodo eta tresnak eskuragai jarri ditu".

Aurtengo beste protagonista amen taldea izan da, "nabarmen hazi dena". Alde horretatik, etorkizunari begira duten erronketako bat jokalarientzat istripu-asegurua kudeatzea dela onartu zuten. Senior mailako nesken taldeak emandako aurrerapausoa ere nabarmendu zuten batzarrean, eta jokalariek erakutsitako konpromisoa ekarri zuten gogora. Eta senior mailako taldeari dagokionez,

kirol mailatik harago, jokalariek erakutsitako konpromisoa nabarmendu zuten, partidu guztietan entrenatzaileak 23 jokalaria izan ditu-eta eskura. Hori horrela, klubeko taldeetan 200 jokalaria inguru ditu ARTk.

Babesleen babes handiagoa

Arlo ekonomikoan balantze orekatua aurkeztu zuen zuzendaritzak, eta "parra" geratu direla nabarmendu. Hala, klub zuri-morearen diru-sarrerak, orotara, 167.244 eurokoak izan dira, hasiera batean aurreikusitakoak baino ia 29.000 euro handiagoak, eta horrek zenbait inbertsio eta gastu egiteko aukera eman die babesleen partetik etorri dira diru sarrera berriak. "Uste genuena baino babes ekonomiko handiagoa lortu dugu, eta oso pozik gaude arlo horretan egindako lanagatik", azaldu zuen zuzendaritzak. Horri esker, Arrasate Rugby Taldeak atal batzuetan gastu handiagoak egiteko aukera izan du aurtengoa; ekipamendua hobetzeko, esaterako. Hain zuzen ere, hurrengo ekitaldirako 153.835 euroko aurrekontua izango du ARTk.



ZEZY ARMY

Zezi Army, onenak Zaldibarren

2023ko Zaldibarko 24 orduko txapelketak badu irabazlea: Arrasateko Zezi Army taldea. Finala domeka goizaldean jokatu zuten; 03:00etan hasi zen Zezi Armyren eta Sukusukuren arteko partidua, eta 1-0 nagusitu ziren lehenengoak. Eros Txinarro izendatu zuten txapelketako jokalaria onena eta Jonatan *Jimmy*, berriz, atezain onena.



Peru Aitube arrasatearrak The Soul For Real Band taldearekin jo zuten, taldeko bateria-jolea gaixo zegoelako. PLETINA FILMS

"Iribarrearen" edizioa izan da, "mundiala"

Aho-zapore gozoa utzi du aurtengo Arrasate Blues jaialdiak eta guztiz ase ditu antolatzaileak, musikariak zein musika-zaleak; plater nagusiaren ostean, dena dela, postrea ere prestatu dute datorren asterako, bi emanaldi gehiago egongo baitira

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Arrasate Blues jaialdiaren bosgarren edizioa "irribarrearena" izan da, Ibai-arte kideen esanetan. "Orain, eskerrak emateko unea da, bai Arrasateko Udalar, baita jaialdian parte hartu duten tabernei, kontzertuz kontzertu Arrasaten egon zaretenei, gure dendetara etorri zaretenei eta asteburu honetan

gozatu duzuen guztioi", adierazi dute jaialdiaren antolatzaileek.

Halaber, lau egunetan nagusi izan den giro ona nabarmendu dute. "Plazak beteta izan ditugu, jende guztia irribarretsu ikusi dugu eta zorion-mezu ugari jaso ditugu arrasatear zein kanpoko jendearen eskutik, asteburuko giroa eta Arrasateko jendeak emandako tratua eskertuz". Era

berean, nola ez, eskerrak eman dizkiete jaialdian parte hartu duten 66 musikariei.

Udal Gobernuak ere pozik

Azken bi asteburuetan Arrasaten izan diren bi jaialdi handi nabarmendu ditu Udal Gobernuak. "Mondra&Roll zein Arrasate Blues jaialdiek herria bizirik mantentzen dute, herria

egiten dute, eta hori da Udal Gobernu honen filosofia. Gainera, nazioarteko musikariek gain, musikari euskaldunak eta arrasatearrak ere presente izan dira, eta horri balioa eman gura diogu", azaldu dute. "Beraz, eskerrik beroenak parte-hartzaile, antolatzaile zein herritar guztiei, izandako erantzunagatik. Halaber, horren jendetsuak izanagatik ere, ez da erasorik gertatu eta umorea izan da nagusi".

Datorren astean, bi kontzertu

Jaialdia bukatu bada ere, datorren asterako beste bi kontzertu iragarri ditu Ibai-arte, baina "xumeagoak" izango dira, "intimoagoak". Batetik, uztailaren 26an, Paul San Martin eta Fran Serrano ariko dira Herriko Plazan, 19:30ean. "Proiektu berezi bat abiatu dute eta estreinaldia Arrasaten egingo dute",

dio Jon Apraizek, Ibai-arte kideak. Bestalde, uztailaren 27an, Swing Marta musikaria bere semearekin ariko da, Mondragon hotolean, 19:30ean.

Ikastaroa sortzeko lanean

Horrez gain, zapatuko blues dance saioak izandako arrakasta eta herritarren eskaria kontuan izanda, irailetik aurrera dantza ikastaro bat eskaintzeko lanean ari direla aurreratu du Apraizek, talde bat osatu guran. "Hainbat irakaslerekin harremanetan ari gara, eta ea lortzerik daukagun", gaineratu du.

JAIALDIK IZAN DUEN "ERANTZUN BIKAINA" NABARMENDU DUTE IBAI-ARTE ELKARTEKO KIDEEK

'Los Perros' dantza emanaldiak itxiko du aurtengo Udazabal

Led Silhouette konpainiaren ikuskizuna izango da egitarauko azkena gaur, Zaldibar frontoian, 20:00etan

E.A.B. ARRASATE

Dantza ikuskizun batek itxiko du aurtengo Udazabal programa: Led Silhouette konpainiaren *Los Perros* emanaldiak, hain zuzen. Jon Lopez eta Martxel Rodriguez dantzariak "garai gatazkatsu eta

aldakor honetan" bizirik irauteko dantza egiten duten bi izaki dira. Modu horretan, erresistentzia ariketa bat proposatzen dute, "noraezean dabilzan txakurren gisara, zaurgarri diren txakurren gisara, poztasuna zein



Los perros emanaldia. LED SILHOUETTE

mina partekatzen duten txakurren gisara, bidean topo egiten duten txakurren gisara, norbere bizitzari zentzua aurkitzen dioten txakurren gisara". Hala, bi dantzariak bat egiten dute, elkarren baitan, eta ezohikoak diren mugimendu eta formak erakusten dizkiete ikus-entzuleei. "Bi gizon, besarkatuta; bi gizon, dantzan, guztia bukatu eta berriz hasi arte".

Gaur, egubakoitza, 20:00etan hasiko da, Zaldibarko frontoian, eta doakoa izango da.



Portaloian egin zuten blues dance saioa, zapatu eguerdian. E.A.B.

'Blues dance' saioak, erantzun ona

Zapatu eguerdian, blues dance saioa egin zuten Portaloian, Lazy Blues taldeko Rosa Salgadok eta Txusek gidatuta. Arrakastatsua izan zen, "uste baino jende gehiago" animatu baitzen, gidarien esanetan. "Jendetza batu da eta pozik geratu gara", zioten.

PATXI CASTRO

Era guztietako aukien konponketa

• Tapizatu lanak

• Zumezko eta kanaberazko artikuluen salmenta

• Besuulki, mahai, saskiak e.a

943 78 71 65
639 01 69 69



Aramaixo Bizirik taldeko kideak, Gobernuaren Arabako ordezkariordetzan. ARAMAIXO BIZIRIK

Herritarren alegazioak Itsaraz parkearen aurka

Aramaixo Bizirik herri plataformak 400 bat alegazio aurkeztu zituen atzo Gobernuaren Arabako Ordezkariordeztan; besteak beste, proiektuaren informazio azterketa ez onartzea eskatu diote Trantsizio Ekologikorako Ministerioari

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO
Aramaixo Bizirik herri plataformak herritarren 400 bat alegazio aurkeztu zituen atzo Gobernuaren Arabako Ordezkariordeztan, Norvegiako Statkraft multinazionalak Aramaioko eta Eskoriatzako mendietan egin nahi duen zentral eolikoaren aurka.

Trantsizio Ekologikorako Ministerioari zuzendutako alegazioak izan dira Aramaioko herritarren artean jaso dituztenak. Herritar partikularrek uztaillaren 24ra arte dute proiektuari alegazioak jartzeko.

Eskatzen dutena

"Proiektuaren informazio azterketa ez onartzea, interes orokorreko azterketa ez deklaratu eta ingurumen-inpaktuaren adierazpen negatiboa egitea", eskatu dute Aramaixo Bizirik herri plataformako kideek alegaziotan. "Durakogain, Ganborralde eta Asentsiomendi batzen dituen mendilerroan kokatutako ma-

kro-proiektu horrek Aramaioko eta Debagoieneko biztanleengan eta biodibertsitatean izango dituen kalteen eraginak zenbateraino dira", adierazi dute herri plataformako kideek.

Itsaraz proiektua

200 metroko zortzi aerosorgailu dira proiektuak jasotzen dituenak. Diote "biodibertsitatearen galera atzerazina eta eremu naturalaren suntsiketa" ekarriko duela eta Aramaio eta inguruetako paisaia guztiz itxuraldatuko duela. 782 hektarea baso eta mendi hartuko du parke eolikoak, eta sortuko den elektrizitatea Abadiñon sareratuko da, Besaidetik barrena joango den 15 kilometroko goi-tentsio-

200 METROKO ZORTZI AEROSORGAILU DIRA PROIEKTUAK JASOTZEN DITUENAK, 782 HEKTAREATAN

ko ebakuazio linearen bitartez. Orain arte EAEn proiektatu den zentral eoliko handiena izango litzateke Itsaraz.

Klima larrialdiaren testuinguruan, "beste eredu baten" aldeko apustua egiten du plataformak. "Tamaina txiki eta ertaineko berriztagarrien instalazioetan oinarrituta, tokian tokiko elektrizitate beharrak asetzeko, jadanik degradatuta edo antropizatuta dauden eremuak lehenetsiz", diote.

Udalaren alegazioa

Aramaioko Udalak ere uztaillaren 24ra arte du Itsaraz proiektuari alegazioak jartzeko. "Azitikerrekin egindako deliberazio jardunaldian herritarrek eskatu zituzten proiektuaren aurreko jarrera lideratzeko", dio alkateak; bada, Udalak gaur aurkeztutako ditu alegazioak Gasteizen, Gobernuaren Arabako Ordezkariordeztan. Laguntza tekniko eta juridikoa izan du Udalak alegazioak prestatzeko.

Iraultza Txikien Kanpaldia egiten dabilta Izarran

'Feministok lurraren defentsan' solasaldia izango dute bihar, Aramaion adostutako aldarrikapen testuarekin

A.E.G. ARAMAIO

Iraultza Txikien Kanpaldia egiten dabilta Izarran, uztaillaren 23ra arte. Euskal Herrietako borrokan isla izan nahi du kanpaldia; hori horrela, hainbat gai jorratuko dituzte, hainbat elkarte eta eragilerekin. Gaur, barikua, trantsizio ekosozialaren erronkak, heriotza eta dolua eta gizentasuna militantzian izango dituzte berbagai, besteak beste. Bihar, zapatua, 16:00etatik 18:00etara, *Feministok Lurraren defentsan* solasaldia izango dute. Euskal Herriko mugimendu fe-

minista eta ekologistako kideak izango dira solasaldian. "Ekofeministok proiektu txikitzaileen aurrean indarrak batu eta mugimendu feminista, ekologista eta politikoetan eragiteko estrategiak elkarrekin definitzea" izango da helburua. Solasaldia oinarrituko dute udaberrian Aramaion adostutako *Lurraren eta bizitzaren defentsan desazkunde ekofeminista eta dekoloniala* aldarrikapen testuan.

Etzi, mural margotzea, bazkaria, kontzertua, dantza plaza eta desmuntatzea izango dituzte.



NIRE USTEZ

BEÑAT ARREGI

Hasi da partidua; egin apustu!

Hasi zen Estatuko hauteskunde orokorren txapelketa eta finala U23 delakoan dugu.

Badabilta bien bitarteko norgehiagokak jolasten, eta zirku ederra antolatu digute!

Lau urtean behin egiten diren ikuskizun hauek horixe besterik ez da, ikuskizuna. Boto ziztrin batekin demokrazia egiten dela sinesten duena inuzente galanta dela uste dut. Herriak ez du subiranotasunik klase politikoaren gaineratik, beraien txotxongiloak baikara. Eta, halaber, hauek beste indar handiago batzuen txotxongilo.

Bi pastel bereizten ditut nik, soziala eta ekonomikoa, eta hauteskundeek pastel hori mahaikideon artean nola banatuko den besterik ez dute erabakitzen, eta hori ere justu-justuan. Baina nik ez dut pastelik jan nahi, elikadura sanoago baten aldekoa naiz.

Apustu-etxeak ez ditut gustuko, langile klasea pobretu besterik ez dute egiten; beraz, finaleko zirkuari hor konpon!

Aldundiak A-2620 errepidea konponduko du

Arabako Foru Aldundiko Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Sailak 4,8 milioi euro inbertituko ditu datozen hilabeteetan, Arabako 82 errepideren bide tarreetako zoru hobetzeko. Inbertsio programa horretako esku hartze gehienak Arabako bigarren mailako errepideetan egingo dira. Eskualde sarean zazpi errepidetan

esku hartuko da, bide zorua konpontzeko edo berritzeko bide tarte jakin batzuetan eta mendateetako bidegune batzuetan, asko hondatu baitziren joan den neguan, hotzagatik, elurragatik eta izotzagatik. Aramaioko kasuan, A-2620 errepidea konponduko dute: Kruzetako mendatean hondatutako guneetan konponketa batzuk egingo dituzte, eta errodadura geruza berria jarriko dute Ibarrako sailhesbidean.

Errepideen kontserbazioa eta mantentzea bermatu nahi dute.

Satelite bidez jaso ahal izango dute Internet

Udalak lanean jarraituko du zuntz optikoa herriko etxe guztietara hel dadin. Gaur egungo egoeraren aurrean, baina, satellite bidezko Internet izatea izango da zuntz optikoaren behin-behineko alternatiba. Zerbitzuaren prezioa 35 euro hileko izango da

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO Internet etxe guztietara iristeko ahaleginean jarraitzen dute; azken berria da satellite bidez jaso ahal izango dela Internet, behin-behinean. "Udala lanean dabil Diputazioak esandakoa bete dezan; esan izan dute etxe guztietara iritsiko dela zuntz optikoa, eta hori lortzeko gestioak egiten gabiltza", azaldu du Iban Herrarte alkateak. Hori lortu bitartean, satellite bidezko konexioa lortzeko aukera dago.

Orain arteko ibilbidea

2018an hasi ziren zuntz optikoaren instalazio lanak egiten Aramaion. Zuntza etxe guztietara helduko zela esan zuten, hasiera batean, baina ez da horrela izan. Arazoak izan dituzte, batik bat, auzune bat baino gehiago duten elizateetan eta auzuneetatik urrunen dauden etxeetan. Bada, oraindik ere zuntz barik jarraitzen dute Zabola eta Alzaga auzuneetako hainbat etxek. Hala, haiendako alternatiba izango da satellite bidezko Internet.

Herrartek hau gaineratu du: "Arazoa ez da bakarrik Internetik ez izatea. Izan dugun beste arazo bat da pertsona nagusiek medaila bidez izaten duten telelaguntza bidezko zerbitzua ezin jaso ahal izatea. Hala ere, arazo hori konponduta dago egun".

35 euroko prezioa

Arabako Garapen-agentziak dihardu Udalarekin elkarlanean zerbitzu ahalik eta onena eskaintzeko. Egun aurkeztu duten alternatiba Espainiako Gobernuak diruz lagundutakoa da. *Unico demanda rural* da zerbitzua eta Hispasat-ek eskaintzen du: abiada minimoa 100 megakoa izango da deskar-

"ZUNTZ OPTIKOA ETXE GUZTIETARA HELDUKO ZELA ESAN ZUTEN, BAINA EZ DA HORRELA IZAN"

gako; eta 2024ko urtarriletik aurrera 200 Mbps-ra handitze-ko aukera aurreikusten dute. Zerbitzuaren prezioa 35 eurokoa da.

Garapen agentziatik azaldu dute hainbat dirulaguntza mota izan dituztela; batzuetan Espainiako Gobernuarenak, beste batzuetan Eusko Jaurlaritzarenak, eta baita Diputazioarenak ere. Dirulaguntzen onuradunak ere ezberdinak izan dira: gune industrialetara zuntz optikoa iristeko ahalegina egin zuten lehenengo, eta ondoren hasi ziren landagunearekin. Bada, 2021ean martxan jarritako laguntzak dira orain kudeatzen dabilzanak. Laguntzak eskatzeko deialdia 2023ko abenduan bukatuko da.

Urrun dauden baserrietara zuntz optikoa eramatea oso zaila izango dela nabarmendu dute, baina telefono finkoa izan duten baserrietara eraman ahal izango dela gehitu dute garapen agentziakoek.



A.E.G.

Pilotalekuko lanak, bukatuta

Erabilgarri dago kanpoko pilotaleku berritua. Azken hilabeteetan lanean aritu dira, kiroldegiko teilatua zaharberritzen eta baita kanpoko frontoiari estalkia jartzen ere. Bada, dagoeneko bukatuta daude lanak. Estalkia jarri diote frontoiari: alboetatik zabalik dago, baina teilatua du. Egurrezko egitura du estalkiak, eta txapazko teilatua.

Abuztuaren 25ean musika klasikoko kontzertua izango da

Arabako Musika Klasikoaren zikloaren barruan, sei kontzertu egingo dituzte abuztuaren zehar Araban. Horieta bat Aramaion egingo dute, abuztuaren 25ean. Maite Arruabarrena –ahotsa–, Miren Zeberio –biolina– eta Susana Garcia de Salazar –pianoa– izango dira Aramaioko kultura etxean, 19:00etan. Julie Adrienne Carricaburu, Aita Donostia, Jesus Guridi, Anita Idiarbordere eta Emma Cachon sortzaileen lanak interpretatuko dituzte.

Zikloaren helburua da urtez urte musika klasikoa Arabako herrietara hurbiltzea; 2011 ezkerre egiten da, eta Donostiako Musika Hamabostaldiarekin elkarlanean egiten dute.

Liburutegia uztailean goizez dago zabalik; abuztuaren, itxita

Udako ordutegia dauka udal liburutegiak; arratsalde zabalik egon da uztail hasieran; baina, orain, hil amaierara arte goizez egongo da zabalik, 10:30etik 13:00etara. Abuztuaren, aldiz, liburutegia itxita egongo da. Gainera, urtero moduan, Aramaio-ko liburutegiak *Biblioporrak 2023* gida argitaratu du, liburu, musika eta film eskaintzarekin.

Uribarri auzoko jaiak ospatuko dituzte hilaren 28tik 30era

San Esteban jaiak ospatuko dituzte Uribarrin datorren aste bukaeran. Barikuan, uztailaren 29an, auzolana egingo dute, 16:00etan hasira, eta txupinazoarekin hasiko dituzte jaiak, 19:00etan. 21:30ean, kantu eta bertso afaria izango dute.

Zapatuan, 12:00etan meza izango dute; 13:00etan, bolo txapelketa; 17:30ean, briska eta mus txapelketa; 18:00etan, umeendako jolasak; 21:00etan, *Zuk ein zuk jan afaria*; eta, ondoren, Joseba B. Lenoirren eta Postigo maisuaren kontzertua. Domekan, auzoko hildakoen aldeko meza, 12:00etan; 12:30ean, mus eta briska finalak eta sari banaketa; eta 14:30ean, *Agur, San Esteban*.

Anboto tabernan punk musikaz gozatuko dute bihar

Anboto tabernan musika-kontzertuak egingo dituzte bihar, zapatua. 18:00etan hasiko dira musika kontzertuak, eta doan izango dira. Tenso, Sin Emu, Akelarre, 3 Kuervos eta EL Exterminio De La Raza Del mono aramaioarrak igoko dira agertokira. Punk musikaz gozatzeko aukera aparta egongo da bihar herriko plazan.



Alzagarako bidegurutzea. A.E.G.



Udaleko ordezkariak eta herriko hainbat eragile jaietako kartela eskuartean dutela. MIRARI ALTUBE

Egitarau bete-betea prest andramaixetan herrian geratzeko

Badaude berritasun batzuk aurten: paella-janerako izena aldeztu aurretik eman behar da Arkupen; eta barraketan behar berezia duten umeak kontuan hartuko dituzte. Kontzertu izarrak izango dira: Liher, JMartina eta Los Zopilotes Txirriaos

Mirari Altube ARETXABAETA

Uztailaren 26an hasita etxerik etxe banatuko duten jai-egitarauaren berri eman zuten udal ordezkariak, hainbat eragilerekin batera, martitzenean; besteak beste, elkartu ziren txistularien, Aretxabaleta Abesbatzaren eta UDAREN ordezkariak, baita aurtengo jaietan protagonista izango diren herritar batzuk ere. "Denbora gutxi daramagu lanean Udalean, baina egitarauari gure ukitutxo ematen saiatu gara",

adierazi zuen Kultura zinegotzi Ibai Zangituk. Hala, berritasun batzuk ere sartu dituzte; horien artean dago paella-bazkarirako izena aldeztu aurretik eman beharra. Eguazten arratsaldean ireki zuten epea horretarako Arkupen, eta eguen eguerdirako 100 bat leku bakarrik geratzen ziren 680tik.

Pregoia, Aretxarteren eskutik

Izaro Sanchez marrazkilari aretxabaletarraren irudi koloretsuak

emango du aurten andramaixen berri, hark irabazi duelako kartel lehiaketa.

Egitarauan jaso duten agurra, ostera, alkatearena beharrean, Aretxarte merkatarien elkarteak idatzitakoa da; pregoia botako duenak, hain zuzen ere. Eta herritarrei dantzarako dei egin diete: "Herria dantzan ikusi gura dugu; zuek, herritarrok, zaretelako gure musika eta gure dantza, eta, orain arte moduan, zuek zaretelako herriko komertzioak

bizirik eta dantzan mantentzen dituzuenak". Eskerrak emateko ere aprobetxatuko dute, eta komertzio txikien aldeko aldarria egin. "Merkataritarik gabe herria hil egingo litzateke, eta, gainera, oso elkarte aktiboa da Aretxarte", azaldu zuen Zangituk.

Behar berezia duten umeak

Urteroko ekitaldiak izango dira nagusi: ikurrinari agurra, elizbira, Milagroko bandaren emanaldia eta kaleko ikuskizunak, besteak beste. *Escape room* karabana ere etorriko da, eta hilaren 14tik 17ra bitartean egongo da Kurtzebarri eskolako kantxan; erreserbak aurretik egin behar dira, honako webgune honetan: www.lacaravanaescaperoom.com.

Abuztuaren 16an, azken urteetan legez, umeak izango dira protagonista, eta egunari hasiera emango dio Garazi Igartua alkate txikiaren pregoiak, Anje Errasti alkateorde txikia lagun duela. Behar bereziak dituzten umeak ere gogoan hartu dituzte aurten, Aretxabaleta "herri gero eta inklusiboagoa" izan dadin Udala egiten dabilen lanketaren harira. Hala, egun horretan bi orduz ez da muskarik jarriko barraketan (17:00-19:00), eta premia berezia dutenei ilaretan lehentasuna ematea eskatu dute udal ordezkariak.

Txirriindularitza eta pilota

Abuztuaren 16an kirolak ere zeresana izaten du. Egunari hasiera emango dio 83.ez egingo den txirriindulari lasterketak: "Estatuko zaharrenetakoa da, eta handia da gero horri eusten jarraitzea", zioen Agurtzane Elkorok, lasterketa antolatzen duen UDako presidentea. Profesionalekin pilota partiduak ere izan-

go dira egun horretan: Jaka eta Imaz Larrazabalen eta Mariezkurrena II.aren aurka lehiatuko dira. Aurretik, afizionatuen partida ere egongo da, eta UDako Aritz Zugastik Markel Gartziaekin bikote eginda Ander Etxanizen eta Felix Conderen aurka jokatuko du. Horrez gain, abuztuaren 15ean, herriko pilotari gazteen arteko partidak izango dira.

Bola-txapelketak ere ez du hutsik egingo; arratsaldean, hurrek jardungo dute nor baino nor gehiago, eta gauean, helduek. Bolatokia, gainera, egunero egongo da zabalik jaiek iraun bitartean, 17:00etatik 20:00etara.

Askotariko musika emanaldiak


Aurtengo kontzertu izarrak nabarmendu zituen Zangituk: Liher eta JMartina Herriko Plazan eta

Gune Morea bi egunetan

Indarkeria matxistatik gabeko jaiak aldarrikatu ditu Udalak, eta iragarri du Gune Morea bi egunetan jarriko dutela: abuztuaren 14an eta 17an. Herriko Plazan egongo da (19:00-22:00).

Gainera, halako kasuak salatzen telefono-zenbakiak jaietako egitarauan bertan egongo dira: Satevi, 900-84 01 11; eta txosnaguneko arreta-telefonoa; 631 20 88 99 – biak 24 orduz–.

Jaietarako protokolo bat izateko lanketa abiatu du Udalak, datorren urtekoei begira.



IGOR ESKIBEL ARETXARTE MERKATARIEN ELKARTEKO KIDEA

"Pregoia botatzeko gertu gu! Ekintza askotan hartzen dugu parte urte osoan, herria bizirik mantentzeko jendeak kalean egon beharra duelako".



GARAZI IGARTUA ETA ANJE ERRASTI ALKATE TXIKIAK

"Pozik gaude, baina urduri ere bai. Ondo pasatu gura dugu, eta horretara animatuko ditugu besteak ere, pregoia oraindik pentsatu gabe izan arren".



IZARO SANCHEZ JAIETAKO KARTELAREN EGILEA

"Jaietako hainbat egoera irudikatu gura izan ditut, baita gure bazterrak jaso ere. Eta hori guztia batu dut LGTBI kolektiboaren koloreekin".

Berritasunak

- **Inklusioa** Abuztuaren 16an, 17:00etatik 19:00etara ez da muskarik jarriko barraketan, behar bereziak dituzten haurrek kontuan hartuta. Ume haiei ilaretan lehentasuna emateko eskatuko die Udalak gunearen kudeatzaileei eta herritarrei.
- **Paella-bazkaria** Aurrez eman behar da izena, kuadrillaka, Arkupen (debalde). Abuztuaren 7a arte egongo da epea, baina plazak mugatuak dira (680).
- **Sokamuturra** Abuztuaren 17 eguerdian bigantxak dabilen bitartean, dantzaldia izango da Mitarte kalean, "alternatiba" moduan.
- **Kamisetak** Arkupen daude salgai, 5 euroren truke.

Los Zopilotes Txirriaos txosnagunean. Zortzi urteko ibilbidea du Lide Hernando buru duen Donostiako Liher taldeak, eta rock doinuekin beteko ditu bazterrak hilaren 16an. JMartina, ostera, elektronikara eta pop doinuekin etorriko da, Andra Mari egunean. Larrabetzuko (Bizkaia) eta Barañaino (Nafarroa) hiru taldekidek osatzen dute eta jaiarik jai dabilta azken urtean. Los Zopilotes Txirriaos nafarreke ez dute aurkezpenik behar Aretxabaletan, hainbat andramai-

xatan girotu dute-eta txosnagunean; azken urteotako hutsunea betetzera datoz bueltan.

Horiez gain, Broken Brothers Brass Band, Txita Sound System eta Rockalean taldeak ere izango dira kaleak girotzen, eta azken egunean mariatxi doinuak izango dira plazan.

Txosnagunean kontzertu asko

Atxabaltako Gazte Mugimenduak antolatu du txosnagunea, beste behin. *Aldarrika oldarka!* leloarekin dator aurtengoa, eta, egi-

taraua erabat itxita ez badute ere, ekitaldi askoren berri jaso dute Udalak banatuko duen egitarauan. Hilaren 13an ekingo diete jaiak eta bost egunetan ez da atsedean hartzeko unerik egongo. Ohiko ekitaldiak errepikatuko dituzte eta horien artean daude gazte bazkaria, olinpiadak, elkartasun bazkaria eta kuadrillen arteko jolasak. Kontzertuei eta ikuskizunei dagokienez, herriko sortzaileek –Orei, Youth United, Txerrikumeak, Jasan, Xander, Virgin Mari, Upeide...–

eta kanpotik etorritakoek –Los Zopilotes Txirriaos, Albina Stardust eta Divina Comedia, Muxutruk...– egingo dute bat oholztan. Hilaren 17an, gainera, herriko hainbat musikari elkartuko dira Bizkardunak izenaren bueltan, Bizkardunak taldearen kantuekin jai giroa sortzeko.

Abuztuaren 13tik 17ra bitartean antolatutako jaien aurrekontua 107.184 eurokoa da. Udal ordezkariak zein eragileek aretxabaletarrak gonbidatu dituzte andramaixetara.

Diru-bilketa abian Portasolgo lapurretari aurre egiteko

Crowdfunding kampana bat jarri du abian Portasolgo Jai Batzordeak, astelehen goizean izandako lapurretari aurre egiteko. Txosnagunean bildutako diruaren zati handi bat eraman zuten, 15.000 euro inguru, eta kantitate hori ordezkatzeko dirulaguntza-proiektu komunitarioa jarri dute martxan, "berhala ordaindu behar dituzten fakturei aurre egiteko".

Datozen asteetan irekita egongo da ekarpena egiteko kontua, *Gofundme* plataformaren bidez; dagoeneko lapurtutako diruaren heren bat baino gehiago jaso dute herritarrei esker.

Ertzaintzak, bere aldetik, lapurreta ikertzen dihardu.

Udalak eta Gazte Mugimenduak antolatutako egitaraua

Abuztuaren 13a


- **11:00** Auzolana.
- **18:00** Protokolo aurkezpena eta txosnagunearen irekiera.
- **19:00** Batukada.
- **22:00** Kontzertuak: Orei, Youth United.
- **00:00** Karaokea. Ostein, Karapaixo DJa.

Abuztuaren 14a

- **12:30** Marianito eta JMartini.
- **14:30** Gazte bazkaria, txosnagunean, eta bingo musikatua.
- **16:00** Jai-kanpaiak.
- **16:00** Mus txapelketa.
- **16:00** Ur puzgarriak, Arlutzeko kantxan.
- **18:30** Poteo girotua eta olinpiadak.
- **19:00** Ikurrinari agurra, pregoia eta txupinazoa.
- **20:00** Salbea.
- **20:30** Dantzaldia Obaneuke taldearekin, plazan.
- **22:00** Ekitaldia txosnagunean eta kontzertuak: Virgin Mari, Txerrikumeak eta Jasan.
- **22:30** Dantzaldia Obaneuke taldearekin, plazan.


Abuztuaren 15a

- **10:00** Diana, txistulariekin.
- **11:00** Pilota partiduak herriko pilotarien eskutik.
- **11:00** Udalbatzako kideak eta Milagroko banda zaharren egoitzara bisita.
- **11:45** Elizbira.
- **12:00** Meza nagusia.
- **12:30** Haur-ikuskizuna Azkona Pailazoen eskutik.
- **13:30** Milagroko musika bandaren emanaldia.
- **18:00** *Oholtza mediokreen showa*, txosnagunean.
- **19:00** Broken Brothers Brass Band.
- **22:00** Drag showa: Albina Stardust eta Divina Comedia.
- Kontzertuak: Zetkin eta Malko.
- **22:30** Kontzertua, plazan: JMartina.
- Bukatzeko, Galtzontzillo, kulero eta tanga lasterketa. Jarraian, pintxada kolektiboa eta zumba.



Abuztuaren 16a

- **10:00** Leintz bailarako 83. txirindulari lasterketa.
- **11:00** Herri kirolak umeentzat, plazan.
- **11:30** Alkate txikien pregoia eta bonba japoniarren jaurtiketa. Ondoren, buruhandiak.
- **13:00** Potxin eta Patxin pailazoak, plazan.
- **13:30** Triki-poteoa.
- **14:30** Elkartasun bazkaria; ostein, Upeide taldea.
- **16:30** Jolas parkea, plazan.
- **17:00** Haurrentzat bola-txapelketa.
- **17:30** Pilota partiduak.
- **18:00** Txorotxaranga, haurrentzat.
- **18:30** Bertso trama, Mitarteko plazan.
- **19:30** Alkate txikien agurra eta oparienez zozketa.
- **20:00** Txita Sound System (TSS), Fresa Morango DJarekin kaleetan.
- **21:30** Kontzertua txosnagunean: Xander.
- **22:00** Kontzertua plazan: Liher.



- **22:30** Bola-txapelketa, helduentzat.

- **23:00** Kontzertuak, txosnagunean: Los Zopilotes Txirriaos eta Amooma.

Abuztuaren 17a

- **11:00** Diana, txistulariekin.
- Ondoren, sokamuturra.
- **12:30** Alarma Morea taldearekin dantzaldia, Mitarte kalean.
- **14:30** Herri bazkaria, plazan. Bazkalostean, kuadrillen arteko jolasak.
- **15:30** Egur jolasak, plazan.
- **18:00** Sokamuturra.
- **18:00** Munduko dantzak eta janariak.
- **19:30** Kuadrillei sariak.
- **19:45** Rockalean.
- **22:30** Kontzertuak, txosnagunean: Bizkardunak, Muxutruk erromeria eta Kalimonstruo DJa.
- **23:00** Tierra De Mis Amores mariatxi taldea, plazan.

Muru-Alde elkarteak San Inazio jaiak ospatuko ditu

Zaindari duen San Inazioaren omenezko jaiak antolatu du Muru-Alde elkarteak, eta bi eguneko egitaraua prestatu. Uztailearen 30ean, domeka, ekingo diote ospakizunari. Bola-txapelketa jokatu dute 19:00etan, bolatokian, eta sariak egongo dira onenentzat. Ondoren, tripa betetzeko, bertso-afaria izango da; punta-puntako bertsolariak izango dituzte lagun: Onintza Enbeita eta Andoni Egaña.

Uztailearen 31n txorizoa eskainiko dute elkartearen bertan, 12:00etan. Ekintzetan parte hartzeko, izena aurretik eman behar da, helbide honetara idatzita: murualdelkarte@gmail.com – hilaren 23a da azken eguna.

INPLANTOLOGIAKO ESPEZIALISTAK 3D TEKNOLOGIA BERRIENAREKIN

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55

Aisialdi oparoa izan dute gazteek eta nerabeek

Herriko udalekuek adin eta gustu guztietarako aisialdia eskaini dute, beste behin. Atxagazteren, Aretxabaleta KEn eta Loraturen eskutik, gazteek ez dute aspertzeko astirik izan; ekintzez, jolasez, kirolez eta ikastaroez gozatzeko aukera izan dute

Oier Zumarraga ARETXABALETA

Udalekuak amaierara iritsi dira. Beste urte batez, herriko kaleak eta plazak umez eta nerabez josi dira uztaile osoan, askotariko aisialdi eta ekintzen bueltan.

Loratuk antolatutako udaleku irekien harira, 3 eta 12 urte arteko 321 ume eta nerabe bildu dira. Hiru asteko egitarauaren barruan, hiru ekitaldi nabarmendu dira: sanferminak, Portasolgo jaiak eta Azken Jaia. Inguruko tokiak ezagutzeari lehentasuna eman diote eta txangoak horren arabera diseinatu dituzte. Ainhoa Sanchez koordinatzaileak nabarmendu du monitoreen, gurasoen, umeen eta arduradunen artean erlazio "bikaina" izan dela.

Futbola eta balioak uztartuz

UDAK enegarren aldiz antolatutako Geroa Sortuz campusean, futbola izan dute ardatz, eta kirolera bideratutako entrenamendu bereziak egin dituzte: arlo teknikoa, taktikoa eta fisikoa, esaterako. Dena dela, klubaren filosofiari jarraiki, balioetan eta adimen emozionalean sakondu dute. Kings League txapelketa, futbol ikuskizuna eta Champions League tornea izan dituzte.

Udaero egitaraua nerabeentzat

Atxagazte gaztelekuak, Udaero programaren baitan, irteera eta ekintza mordoxka bat egin ditu. Uztailearen "eromenari" amaiera biribila emateko, Gazte Konkis egitasmoa egin zuten Eskoriatzako eta Arrasateko gazteekin batera. Antolatzaileek feedback positiboa jaso dute.

**AISIALDIAZ GAIN,
BALIOEN LANKETAN
ARRETA JARRI NAHI
IZAN DUTE
ANTOLATZAILEEK**



Aretxabaletako udaleku irekietan sanferminak ospatzen. LORATU



Geroa Sortuz campuseko gazteak eta hezitzaileak Reale Arenan. ARETXABALETA KE



Gazte Konkis lehiaketako parte hartzaileak. ATXAGAZTE



MIKEL ZUMALDE

Txarapeako jaiak irailaren 16an

Aurten lehenengoz ospatuko dituzte jaiak Txarapea auzoan. Hala, irailaren 16rako egitaraua prestatzen dihardute auzokideek.

Hala ere, han dagoen taberna falta ikusita, txosnagunea jarriko dute. Antolatzaileek adierazi dutenez, jaiak "arrakastatsuak" baldin badira, datozen urteetan proiektuari jarraipena emateko asmoa dute.

GORA ETA BEHERA



Pintaketak herriko hainbat lekutan

Herritar batek salatu du pintaketak egin dituztela herrian, "historia duen antzinako pertsiana baten", esaterako. Udalak jakinarazi du datozen asteetan hainbat fatxadaren garbiketari ekingo diotela; zera gaineratu du: "Herritar askok adierazi duten kezkaekin bat egiten dugu".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus
edo 688 69 00 07.



Jou Díaz
Karakina
Durana 15
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Mobiliario
ARENZA
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO ANDRAMAIXEN ALDE!



GUNE MOREA

Abuztuaren
14an eta 17an
Plazan
19:00 - 22:00


INDARKERIA MATXISTA KASUETARAKO ARRETA TELEFONOAK:

900 84 01 11 (24 ordu).

Etxeko indarkeriaren edo
sexu-erasoen biktima izan diren
emakumeentzako informazio
eta arreta-zerbitzua. SATEVI

631 20 88 99 (24 ordu).

**ARETXABALETAKO TXOSNETAKO
ARRETA TELEFONOA**



ARETXABALETAN EZ DA INOLAKO ERASORIK ONARTUKO!



Aretxabaletako
Udala

Udalak hamaika alegazio jarriko dizkio Itsarazi

Eskoriatza eta Aramaio artean Statkraft enpresak eraiki nahi duen parke eolikoaren administrazio-baimenaren eta ingurumen-inpaktuaren adierazpena aztertu ondoren, Udalak ez onartzeko eskaera egingo du Gobernuaren Arabako Ordezkariordeztan

Hasier Larrea ESKORIATZA

Joan den astelehenean, Lurralde eta Garapen ekonomiko jasagarriaren batzordean landu zituzten udalbatzako kideek Itsaraz proiektuari jartzeko alegazioak, eta atzo onartu zuten testua, ezohiko osoko bilkuran, EH Bilduko ordezkarien aldeko botoekin eta EAJkoen abstentzioarekin. Edorta Zubizarreta alkatearen izenpean, Gobernuaren Arabako Ordezkariordeztako Industria eta Energia Arlo Funtzionalari jakinaraziko diote Eskoriatzako Udalak proiektuarekiko duen jarrera: informazio-azterlana ez onartzea, interes orokorreko ez deklarazioa eta ingurumen-inpaktuaren adierazpen negatiboa egitea eskatuko dute.

"Ezer onik ez"

Maiatzaren 22an argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE) Itsaraz parke eolicoa eraikitzeke aurretiazko administrazio-baimenaren eta ingurumen-inpaktuaren adierazpena. Hura aztertuta, hamaika alegazio aurkeztuko ditu Udalak. Lehen puntuan, azpiegitura berriak eraiki nahi diren eremuetako biztanleengan jarri dute arreta: "Bereziki, kaltegarria izango litzateke Arriola, Arexola, Uribarri, Altzaga, Azkoaga, Zabola, Barajuen, Untzilla, Suña, Marin, Zarimutz, Mazmela eta Apotzagako bizi-lagunentzat, euren etxebizitzetatik gertu jarri nahi direlako 200 metroko garaiera duten zortzi errota, altzairuzko dorre erraldoietan esekitako eta 15,34 kilometroko luzerako goi-tentsioko aireko ebakuzko-linea eta San Adrian ermita inguruko Set Itsaraz azpiestazio elektrikoak. Ingurumen-txostenak ez ditu horien inpaktu akustikoa eta Flicker efektua kontuan hartzen -errotako besoek sortutako itzal mugikorrak-, he-



Statkraft enpresak eraikitako dorre eoliko bat. STATKRAFT

APOTZAGA ALBOAN JARRI NAHI DUTEN DORRERAKO ESKUHARTZEAK "LARRIAK" IRUDITU ZAIZKIE

rritarren osasunerako oso kaltegarriak". Zentral eolikoa "korridore ekologiko" batean instalatuko dela kontuan hartuta, habitata zatitu eta biodibertsitatea galduko litzatekeela gaineratu dute. Horrekin batera, salatu dute sustatzaileek "neurritzotzat" jotzen dutela zenbait hegazti hiltzea, tartean, miru errealak, sai zuriak, ugatzak, arrano arrantzaleak eta halako espezie babestuak, eroan-bide-kableekin eta aerosorgailuekin talka egitearen eta elektrokutatzearen ondorioz. Gauetan argi-kutsadura sortuko dela ere nabarmendu dute: "Haize-sorgailuen balizaje zuri eta aldizkakoek egunean zehar eragindakoa baino inpaktu bisual handiagoa sortuko lukete". Ingurumen-inpaktuaren azterketak Eskoriatzako udalerriko paisaian eragingo dituen ondo-

rio iraunkorrak jasotzen ez dituela ere aipatu dute, eta Apotzagan jarri dute arreta: "Eskoriatzagan jarriko duten aerosorgailua elizatetik kilometro batera egongo da, baina, izango duen tamaina itzelarekin, elizate gainean dagoela emango du". Lurra trinkotu eta higatu egingo dela ere aurreikusi dute, pista eta bideetako lur eta harri tonak mugitu beharko dituztelako, ibilgailu astunak pasa daitezela: "Gaur egungo bideak ez daude-eta teknikoki egokitu-ta ibilgailu astunak pasatzeko".

Horma, mendilerro gainean

Modu horretan egokitu nahi du Statkraft-ek Apotzaga alboko aerosorgailuaren kokapenera sartzeko 360 metroko bidea. Paraleloan dauden bi hormak eutsiko liokete; hormen artean 42 metroko lur tartea egongo da, eta horma bakoitzaren gainean 12 metroko garaierako lur-eponda bana. Jarduketa horretarako behar den lur-betelana 250.000 metro kubiko lur ingurukoa da: "Aurrez aipatu moduan, lurra trinkotzea eta higatzea eragingo du, eta bereziki larria iruditzen zaigu esku hartze hori".



IMANOL SORIANO

Abesti goxoen itzalpean

Bero-sapa handia egin zuen joan den ostiral arratsaldean, baina eskoriatzar musikazaleak ez ziren kikildu eta harrera ona egin zioten Santa Marina plazan ZeDemente topaketa artistikoari. Irudian azaltzen den Irati Etxebarrietak eroan zuen sari nagusia; haren kantu propioek epaimahaia konbentzitu zuten, eta publikoa ere bai.



NIRE USTEZ

ITSASO ERRARTE

Ilunetik

Boladak. Zoramena. Sorkuntza. Sotamanoa, tantoa eta bolea. Aurrera guztiok! Zorionak. Zoritzarrak. Eskerronak eta eskertxarrak.

Horrelaxe gure bizimodua. Hala mundu-mira eta munduaren birak. Birak eta birak. Topatu arte. Onddo, perretxikoa ala gibelurdina. Gorri-urdin, urdin-gorri. 1000 aldiz disfrutatutako kolorinetan: zabal, luze. Kantatu, egun ederrez gozatu, dantzatu.

Eguzki, euri, txingor, lanbro ala ateri. Irribarre eta ilusioz jokoak. Irabazi ala galdu, ondo jokatu. Jolasaz jolastu. "Show must go on" zioten. Horrela beharko.

Fruituak jasotzeko, erein eta landatu. Haizetu, harrotu, atsedenean utzi, ureztatu, ikertu, entzun eta, batez ere, loratu. Ta haziak... Ze inportanteak, ezta? Txokoratu ala ez, gantxoak izan eta bote-boolean segi.

Festa, lana, indarra, harrokeria ta ikusmina. Handi, txiki, urduri, lasai, ongi... Bidea ongarrirituz, polito, alai... Geroa norberarengan, elkar zainduz, badakigulako, Antonio demonio!





Luis Ezeizako areto futbol torneoko irudi bat, 2015ean. I. BELOKI

Munduko Kopa bezala, lau urtean behineko zita

Hirugarrenez antolatu dute Luis Ezeiza areto futbol txapelketa, 2015eko eta 2019ko aldien ostean. Zortzi talde arituko dira nor baino nor gehiago, bailarakoak gehienak, baina baita Arabakoak ere. Bihar, zapatua, 10:00etan hasiko da egun osoko torneoa

Hasier Larrea ESKORIATZA

Noizbehinka antolatzen diren hitzorduak mimatzea garrantzitsua izaten da, xarma eta erakargarritasuna mantentze aldera. @eskofutsaltxapelketa Instagram kontuan elite mailako kirolatan ohikoa den eszenaraztea imitatu zuten atzo, kanporaketa-ligaxkak finkatzeko taldeen zozketa zuzenean emitituz. Herri mailako ekitaldi xumea izan arren, merezi duelako jarraitzaileen interesa elikatzea.

Izan ere, zapatukoa egun ederra izateko aldeko haizea sumatzen dute Luis Ezeiza areto futbol txapelketako antolatzaileek. "Jende askok jada oporrak hartu, eta, martitzenera arteko

zubia egon arren, partaideen aldetik erantzun ona jaso dugu, eta eskertuta gaude", adierazi du Jokin Salidok.

Kopuru onargarria lortu dutela gaineratu du: "Deialdia egin genuenean, duela pare bat hilabete, hamasei taldeko gehienezko kupoa jarri genuen; izan ere, hamabiko txapelketa egitea izango litzateke borobilena, eta, azkenean, zortzi animatu dira. Tira, 2019ko hitzordua zazpi talderekin eroan genuen aurrera eta ondo joan zen; beraz, aurtengoa ere ildo beretik joatea espero dugu".

Herri eskolako kantxan baloiari ostikoka ibiliko direnak ez dira Messi, Mbatpe, Modric

eta halako nazioarteko izarrak izango, baina, behintzat, hainbat herritako futbolariak bertaratuko dira: Leintz bailarakoak eta Gasteiz eta Aguraingoak. Honako talde hauek lehiatuko dira: Dinamo Lakuabizkarra, All Stars, Gary Cooper, Sanj, Eskorpions, Camavinga Futsal, Zarugaldeko Tximistak eta Almen, hain zuzen.

Giro ona, ziurtatuta

10:00etatik 23:00ak ingurura arte izango dira partidua. DJek musika jarriko dute tarteka, txosna eta hainbat sorpresa egongo dira, eta sariak lehen hiru taldeentzat eta jokalariei eta atezain onenarentzat.

Punta-puntako sei musika talde arituko dira Errekan Goran

Atxorrotx Kultur Elkarteak aurreratu du aurtengo Errekan Gora jaialdi musikala irailaren 15etik 17rako asteburuan izango dela eta emanaldi guztiak Herriko Plazan egingo dituztela. Denera, kalitate handiko sei musika talde igoko dira eszenatokira, eta "azken uneko sorpresak" ere egongo direla adierazi dute antolatzaileek.

Protagonistak zeintzuk izango diren, ordea, oraindik ez dute esan; izan ere, irailko lehen asteburuan egingo duten aperitifan iragarriko dute kartel osoa. Hortaz, iazko formula errepikatzearen alde egin dute aurten ere, emozioa oporrak bukatu arte mantenduta.

Baina pista batzuk eman dituzte jaialdia promozionatzeko argitaratu duten bideoan. Goiena.eus-en dago ikusgai dagoeneko, Errekan Gora jaialdiari eskainitako artikuluan.

Astlehenean, hilak 24, udal bulegoak itxita egongo dira

Uztailaren 25a, martitzena, Santiago eguna denez, eta, hortaz, jaieguna, bezperan ere itxita egongo dira Udaleko bulegoak eta Erregistro Nagusia, domeka eta martitzen arteko zubi-eguna delako. "Beraz, Eskoriatzako Udalarekin lotutako edozein epe, betebeharrak edo eskubideren mugaguna hurrengo lanegunera luzatzen da", esan dute Udaletik.



Joan den urteko dantzaldietako batean, zirkuluan dantzan. GOIENA

Irailko bigarren asteburuan festa lehertuko da herrian

Gatzagako Udalak eta Gatza City Krew elkarteak prest dute irailaren 7tik 10era izango den egitarau mardula

H.L. LEINTZ GATZAGA

Hilabete baino gehiago falta da, baina, oporrak tarteko, agudo ibiltzen dira jaien antolatzaileak kontu guztiak ixteko. Hala ere, ezin da esan ekitaldi txukunak ekartzen ez dituztenik.

Ostegun arratsean motorrak berotzen hasiko dira nobenaren amaierarekin, eta ostiral eguerdian nagusiek salda eta pintxoekin beteko dute sabela, eta txikienek buruhandi, bomba japoniar eta jolas gehiagoz gozatu ahalko dute. Arratsaldean apar festa izango dute zain, gainera. Gaua bolatokiko txapelketaz eta punk-

oi kontzertuaz osatuko dute; Gatza City Krew taldeak Erne, Kaleko Urdangak, Azken Sustraiak eta Lehen Lerroa lotu ditu aurretan. Zapatua bezpera bukatu bezala hasiko dute, musikarekin; kasu horretan, txistularien kalejirarekin. Jarraian, Potx magoaren eta Los Tenampas mariatxien emanaldiak egongo dira, eta arratsaldean puzgarriak eta briska eta mus txapelketak, besteak beste. Ohiko herri afaria egin eta gero, Ken Bat taldearekin dantzatuko dute. Domekako plater nagusia herri kirolak izango dira.



IMANOL SORIANO

Lehen postu partekatua

Iker Trigo eta Iñaki Diaz gailendu ziren joan den domekan jokaturako Dorletako Ama sarian. Laboral Kutxako txirindulariak elkarrekin heldu ziren 125 kilometroko lasterketako helmugara. Podiuma Iñaki Muruak osatu zuen, eta lehen debagoiendarra, Aimar Madina oñatiarra, 2 minutu eta 18 segundo geroago helmugaratu zen.

"Sexu-abusuek markatutako kongregazioa da Goenkaleko mojena"

MIKAEL CORRE FRANTZIAKO 'LA CROIX' HEDABIDEKO KAZETARIA

Bergarako mojen Maria Stella Matutina kongregazioaz idatzi du eta dio, besteak beste, 2013an sexu-indarkeria kasuak eman zirela: "Ahizpek ez dute sekula halakorik berretsi"

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Frantziako *La Croix* hedabideko kazetaria da Mikael Corre (Brest, Frantzia, 1987). Erligioen Soziologia ikasi zuen Parisko Gizarte Zientzien Goi Eskolan, eta komunitate katoliko garaikideetan espezializatu zen. Gero, Parisen Kazetaritza ikasi ondoren, *Le Monde* hedabiderako erlijio gaiekin aritu zen lanean, eta gaur egun *La Croix*-en dihardu, 1880ean asuntzionisten kongregazio katolikoak sortu zuen egunkari orokorrean. Hain zuzen ere, *La Croix* egunkariarako erreportajeak argitaratu zituen Correk uztailaren 11n eta 12an, Maria Stella Matutina kongregazioaren sortzaile Marie-Dominique Philipperi eta beste elizgizon batzuei leporatutako sexu-abusuen eta beste delitu batzuen bueltan; kongregazio horretako mojak dira 2012 urtetik Goenkaleko komentuan bizi direnak. Ikerketa lan horretatik tiraka jarri da GOIENA kazetari frantziarrekin harremanetan.

Fededun katolikoa zara? Hala bada, zein da zure iritzi pertsonala Maria Stella Matutina kongregazioaz?

Katolikoa naiz, eta idazten dudana egunkaria ere bai, nahiz eta eguneroko albiste orokorrak ere lantzen ditugun. Pertsonalki, nire fedearen eta kazetaritza praktikaren arteko bereizketa zorrotza egiten dut. Nire lana gertakariak biltzea eta egiaztatzea da, ez nire iritzia ematea. Beraz, ez daukat Maria Stella Matutinaren ahizpei buruzko iritzirik, galdera bat baizik: nola aitortu dezake gaur egun

Vatikanoak sexu-abusatzaile bati benetako kultura eskaintzen dion halako komunitate bat, mundu osoko elizbarrutietan etxeak erosi dituen martxan jarraitzeko?

Sexu-abusatzaile hori Marie-Dominique Philippe da, 2009ra arte Maria Stella Matutinaren ahizpak izan ziren Saint-Jean komunitatearen sortzailea. 25 emakumek salatu zuten Philippe; biluzteko edota felazioak egiteko eskatzen zien "orientazio espiritualaren" parte gisa. Gainera, leporatzen diote haren odoleko anaia Thomas Philippekin batera –erasotzailea hura ere– beste hainbat komunitatetan sexu-indarkeriaren kultura sustatu izana. 2023ko ekainaren 26an argitaratutako 800 orrialdeko txosten baten arabera, komunitate horretako 72 apaizek sexu-erasoak egin zituzten 1975 eta 2022 urteen artean. 167 biktima identifikatu zituzten, baina Maria Stella Matutinaren ahizpa batek ere ez zuen frogarik eman. Lortu ahal izan ditudan testigantzen arabera, ahizpa horiek sexu-indarkeria horren errealitatea ukatzen jarraitzen dute edo gezurtzat jotzen dute.

Zein izan da ikerketaren helburua? Hasteko, istorio hau kontatu nahi nuen. Ez da inoiz egin. Maria Stella Matutinaren ahizpak ilunak dira euren jatorriaz, Vatikanoarekin duten harremanaz... berba egiteko. Gauzak argi azaldu nahi nituen, mojen familiek, moja izan nahi duten gazteek, komentuen ondoko bizilagunek –labur esanda, in-

teresa izan zezakeen edonor-informazio fidagarria izan zezaten.

Bergarako Maria Stella Matutina ahizpen arduradunei egin nien galdera nagusietako bat honako hau izan zen: "Nire lehen galdera zuen sortzaile Marie-Dominique Philippe edota haren beste anaia edo anaia ohiek Saint-Jean komunitateko mojen aurka egindako sexu-indarkeriari buruzkoa da. Nola ziurtatu dezakezu zuen komentuan biktimarik ez dagoela?". Hauxe izan zen jaso nuen erantzuna: "Ez dirudi argitalpen erlijioso baterako ikerketa bat denik... Bergarara etorri zinenen zuek erakutsi zenituen zalantza eta konfiantza faltarekin egingo du topo ikerketak. Hobe da isilik egotea; ez dugu erantzunik emango".

Baina zuk aurrera egin zenuen... Aita Marie-Dominique Philipperen aberrazioez hitz egiten denean, maiz hitz egiten da antzinako gertakariez. Istorio ho-

"KOMUNITATE ILUNA DA HAREN JATORRIA, VATIKANOAREKIN DUTEN LOTURA ETA ABAR ARGITZEKO"

"OZTOPO NAGUSIA? EZ ZIDATEN UTZI KOMENTUAN SARTZEN ETA EZ ZITUZTEN NIRE GALDERAK ERANTZUN"



La Croix hedabideko ikerketa kazetari Mikael Corre. BRUNO LEVY-LA CROIX

nekin kontatu nahi izan dut oraindik ere badagoela komunitate bat Bergaran, Euskal Herrian, non jendeak oraindik gurtu egiten duen, haren ideia desbideratuak zalantzan jarri gabe. Ulertu behar duguna da sexu-erasotzaile hori oso lider karismatikoa zela, Friburgoko [Suitza] filosofo aitortua. Sexu-erasoak ezin ditugu ulertu haien atzean dagoen ideologia osoa ulertzen ez badugu. Philippe "adiskidetasun maitasunaz" aritzen zen etengabe; Aristotelesen filosofiatik datorren kontzeptua da, mojekin harreman sexualak legitimatzeko aukera ematen ziona.

Bergaran, Italian, Ameriketako Estatu Batuetan, Mexikon, Filipinetan, Irlandan eta beste leku batzuetan dituzten beste komentuetan bezala, Maria Stella Matutinaren ahizpek "adiskidetasun maitasunaz" hitz egiten jarraitzen dute. Urtero, ahizpek Marie-Dominique Philipperen heriotzaren urteurrena ospatzen dute otoitz liburuan jasotako liturgia berezi batekin. Santua da haientzat! Gainera,

kasetetan grabatutako bere irakaspenak entzuten jarraitzen dute –orain, seguruenik, digitalizatuta izango dituzte grabazio horiek–. Haren erretratu handiak nonahi daude Bergarako hormetan eta beste komentuetan.

Zeintzuk izan dira zure ikerketan topatu dituzun oztopo nagusiak?

Oztopo nagusia izan zen mojek Bergarako komentuan sartzen ez uztea, eta nire galderarik ez zutela erantzun. Zorionez, beste iturri batzuk aurkitu nituen; adibidez, komentua utzitako hainbat ahizpa ohi. Lehenik Kordoban eta gero Bergaran finkatzen saiatu ziren, eta hori ulertzea asko kostatu zitzaidan. Zergatik egin zuten hori? Ez zekiten gaztelaniaz, eta, are gutxiago, euskaraz.

Ulertu nuena zera izan zen: haien etxe berri bat aurkitzeko nahiak bat egin zuela apezpiku espainiar kontserbadoreek katolizismoaren aurpegi berri bat aurkezteko nahiarekin. Hain zuzen ere, Euskal Herrian ahizpei harrera egin zien Jose Ignacio Munillak, euskal nazionalismoaren oso kontrakoa den

apezpikua, eta inguruko elizgizon aurrerakoiagoak urrundu dituenak. Munillaren aginduetara dauden apaizen %77k izendapenaren aurkako eskaera sinatu berri dute. Joxe Arregi euskal teologoak esan zidan bisitan egon nintzen: "Munillak ahizpa hauengan ikusi zuen aukera elizbarrutia modu batera edo bestera zuzentzeko, eta gizartea berreskuratuko duen katolizismoa gorpuzteko".

Bergaran kokatutako kongregazioa sekta bat dela esango zenuke?

Zehatzago esango nuke Saint-Jeanen kontenplaziozko ahizpen komunitateari dagokion kongregazioa dela, eta duela hamar urte zentzugabekeria sektarioak identifikatu zirela bertan: sexu-indarkeria, familiei ezkutatutako suizidio saiakerak, laguntza psikologikorik eza, familia-loturak etetea... Komunitate horren zati batek erreformari uko egin zion eta alde egin zuen; horiek dira Bergaran amaitu eta Maria Stella Matutina direla diotenak.

Baina eroena da komunitate hori gaur egun Elizak aitortu egiten duela. Aurrekari batzuk emango dizkizut, azkar-azkar: gerora Maria Stella Matutina izango zen taldea 2009ko udan desagertu zen; haien arduradun zen Lyongo gotzainak desagerarazi zuen, komunitateko buruzagiak manipulatuak eta zenbait gehiegikeriaren erantzule zirela iritzita. Buruzagi hauek ezkutu egin ziren, eta ondoren ahizpa gehienak. 2009an Mexikon komunitate bat birsortzeko saiakera egin zuten lehen aldiz, baina Vatikanok debekatu egin zuen. 2012an lortu zuten Kordoban elkarte bat sortzea, Demetrio Fernandez gotzainak onetsia, baina Vatikanok 2013an atzera botatu eta

"BERGARAKO AHIZPEI KONTATU DIETE DEABRUA ERASO EGITEN ARI ZAIOLA KOMUNITATEARI"

"HALAKOAK KALERATU BEHARRAREKIN EZ GAUDE POZIK, BAINA, ZORIONEZ, EZ GAUDE BAKARRIK"

kongregazio honen eraketa berriak debekatu zituen. Hala ere, 2014an, aita santuak Bergarako Maria Stella Matutinaren estatutuak balioztatu egin zituen. Nola ulertu behar da hau? Aita santua aldatu egin zela; 2013ko erabakia Benedikto XVI.ak hartu zuen eta 2014ko erabakia, berriz, Frantzisko aita santuak.

Zure ikerketaren ostean, zer esango zenuke dagoela Maria Stella Matutina kongregazioaren atzean?

Ez dut uste ezkutututako azpikeria zehatzik dagoenik; hainbat faktoreren konbinazioa da. Lehenik eta behin, euskal gotzain kontserbadore batek, Munillak, gustuko zuen katolizismoaren aurpegi bat –gaztea, jai-zalea...– erakusteko nahia. Bigarrenik, Vatikanoko gobernantza arloko arazo handi baten ondorio ere bada. Eta, azkenik, moja batzuen aldetik boterean jarraitzeko nahia, komunitate jakin baten kontrola mantentzeko gogoia.

Zeintzuk izan dira hori guztia ahalbidetu duten arduradun nagusiak?

Arduradun mojak izan dira Alix Parmentier, Marthe Hubac, bikia den ahizpa Isabelle Hubac eta beste laugarren ahizpa bat. Bizitza erlijiosotik kanpo geratu ziren ofizialki, hori izan zen Frantzisko Aita Santuaren erabakia 2014an; Eta kongregazioa baztertze dekretoak 2014an bertan bidali zituzten, baina ez zieten kasurik egin. Vatikanok, baina, urrats eraginkorra egin zuen... 2021ean. Alegia, zazpi urte geroago. Eta ondo dakigu denok alferrikakoa izan dela! Izan ere, Vatikanok zigortuta egon arren, jarraitzaile asko dituzte oraindik Espainiako Elizan. Alix Parmentier 2016ko otsailean hil zen; haren omenezko hileta elizkizunak ohore handiz zuzendu zituen 2019ra arte Toledoko artzapezpikua izan zen Braulio Rodriguez Plazak. Parmentierren gorpua Toledoko Almonacid herrian dago; han lurperatu zuten, mojei egiten zaizkien ohore guztiekin, eta Vatikanok hori debekatu dauka.

Bestalde, gutxienez 2017ra arte, ahizpa Isabelle Hubac izan zen Italiako Fontanellatoko komentuko burua. Eta Marthe Hubac ahizpa, hainbat iturriren arabera, Bergaran egoten da aldizka; komunitateko buru ez-ofiziala da, baina ahizpa gehien ahalordeduna eta "zuzendari espiritual". Edozelan ere, isto-



Uztailaren 11ko eta 12ko erreportajeak.

rio honek agerian uzten du mundu mailako agintari katoliko gorenek sexu-indarkeriak markatutako komunitate disidente bat lehen leerroan jartzeko duten ezintasuna.

Zure ustez, Bergarako mojak engainatuta bizi dira komentuan?

Ez nuke esango engainatuta bizi direnik, baina bai esango nuke sorgindu egin dituztela. Bergarako ahizpek ezagutzen dute euren istorioa, baina 2009a ezkerro kontaktu diete deabrua komunitateari eraso egiten ari zaiola. Esaldi hori Marthe Hubacena da, zalantzak dituztenei edota zenbait gauza zalantzan jartzen dituztenei begira. Bergaratik igarotako ahizpa ohien lekukotasunek 2009an identifikatutako presio mental berberak azaleratzen dituzte, neke bera, depresio berberak...

2017an komunitatea utzi zuen Nadege Cambon ahizpak honako hau esan zidan, adibidez: "Benetan neure burua galtzen ikusi nuen, izugarri sufritu nuen". Beste moja ohi batek ere zera esan zidan: "Komentutik irten nintzenean, nire izaera

guztiz suntsituta zegoela konturatu nintzen". Azken ahizpa horren arabera, 2010eko hamarkadaren erdialdean gutxienez 50 moja larritasun psikologikoan zeuden Stella Matutinako hainbat komentutan. Haietatik zenbat dira Bergaran egoera horretan daudenak? Oraingoz, ezin jakin.

Zerk harritu zaitu gehien ikerketa lanaren bidean?

Gehien harritu nauena da emakume gazte asko komunitatean sartu izana. Badakit haietako batzuk krisiaren gorenean sartu zirela, 2009an eta 2013an. 2013an, ahizpak Espainian zeuden dagoeneko, eta ez zieten moja abiturik janzen utzi. Batzuek ilea ere moztu zuten.

Bitxia iruditzen zait, baina, egoera honek horrenbeste mojangai erakarri izana. Horren inguruan hitz egin nuen Bergarako kongregazioan sartzeko asmoa zuen emakume gazte batekin –aste batzuk bakarrik eman zituen han–. Esan zidan erakarri zuena erradikalitasun hori izan zela, "erresistentzian gaude" delakoaren alderdi hori. Eliza garbienera batzearen ideia, puruenekin egotearena. Dena den, uste dut krisi garaian komunitate osasuntsu batek errekutatzeari utzi egin behar diola. Baina hori ez da gertatzen Maria Stella Matutinarekin.

Bergarako mojak bereziki zaurgarriak direla esango zenuke?

Ez dut uste eragin sektarioen edo aberrazioen biktima izateko bereziki zaurgarria izan behar duzunik. Maria Stella Matutinako ahizpa askok goi mailako ikasketak dituzte: Zientzia Politikoak, Filosofia, Arkitektura... Hori izan da beti komunitate horren profilik gustukoena –ezin da ahaztu sortzailea filosofo bat

izan zela-. Askotan, bi uste oker ditugu kultu berezi horiei buruz: lehena da biktimak nahitaez sinpleak eta inozoak direla. Faltua izateaz gain, arriskutsua ere bada horrela pentsatzea. Besteei bakarrik gertatuko zaie la pentsa daiteke: "Ni, sorginkeria baten biktima? Inoiz ez". Baina errealitatea da denok ditugula mugak, ahultasun psikologikoak eta momentu zailak bizitzan zehar. Eta bigarren uste okerra da komunitate mota hori ezin dela desbideratu, ahizpak ederrak direlako, oso alaiak direlako... Aberrazio sektarioak dituen komunitatea ez da inoiz jendea kateatuta eta triste dagoen ziega ilun eta heze bat. Ez luke funtzionatuko! Jarraitzaileek alde egingo lukete! Talde beroa, hunkigarria eta inklusiboa dirudi beti! Laburbilduz, ezerk ez du sekta baten antza, sekta bat dela onartzen den arte.

Ohikoak al dira Elizaren bueltako ikerketa lanak La Croix egunkarian?

Zoritxarrez, bai. Elizak ondo egiten dituenak ere jorratzen ditugu, baina Eliza barruko sexu-indarkeria moduko hitz bat askatzeak eta hainbat komunitate sortzailearen inguruko errebelazioek, Marie-Dominique Philippenak kasu, mota horretako ikerketak argitaratzera behartzen gaituzte. Ez gaude pozik, baina, zorionez, ez gaude bakarrik. Horren adibide da 2021ean kaleratu zen txosten bat agindu zuela CIASEK, Frantziako Elizan sexu-abusuei buruzko adituen batzorde independenteak. Emaizta beldurgarriak eman zituen, baina planteamendua ausarta izan zen. Horrez gain, egia osoa esateko, aitortu beharra daukat ezin dudala itxaron beste gai batzuei buruz idazteko.

Proiektuak · Koltxoak
 Horma-armairuak
 Altzariak neurri
 Ateak · Eskailerak ·
 Leihoak · Tarimak ·
 Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROSZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

Enpresa Registrada Nº90/025

Irakurketa kontrajarriak liberazioei dagokienez

Astelehenean onartu zen Markel Azkargortaren jardun osoko liberazioak eztabaida eragin zuen udalbatzan. EH Bilduren ustez, "ezinbestekoa" da dedikazio bat gehiago izatea zerbitzua hobetzeko, eta EAJk uste du "gehiegizko gainkostua" dakarrela bergararentzat

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA
EH Bilduko zinegotzi Markel Azkargortaren jardun osoko liberazioa izan zen eztabaidagai nagusia asteleheneko osoko bilkuran. EH Bilduk dio 2020ko uztailan martxan jarritako hiru batzorde nagusiekin funtzionatzeko Udalaren antolaketa berriarekin jarraitzeko "urrats koherentea" dela, herriko eragileekin batera "egokiago" lan egiteko dedikazio gehigarri hori "ezinbestekoa" dela iritzita. "Antolaketa modu berriaren gaineko balorazio oso ona egin da maila teknikoan zein politikokoan, eta gure planteamendua da modu horrekin jarraitzea. Hobekuntza dator multzo bakoitzak bere koordinatzailea izendatzearekin; hiru multzo daudenez, hiru koordinatzaile. Aurreko bilkuran bi koordinatzaile izendatuta genituen eta gaur [astelehenean] hirugarrena izendatu dugu, Markel [Azkargorta]", dio EH Bilduko bozeramaile Maite Usabiagak.

"Zerbitzua hobetzea" helburu

Eta honako hau ere gaineratu du Usabiagak: "Barne lanera begirako inbertsio bat da, baina guretzat koherentea da eta zentzu osoa dauka planteamendua, benetan uste dugulako koordinatzaileekin multzo horiek era

ginkorrakoak izango direla eta zerbitzuak hobetuko ditugula".

Aurreko agintaldiko ondorioetako bat da EH Bildurentzat dedikazio gehigarri horien beharra. "Koordinatzaile horiek denbora behar dute, dedikazioa lan horietarako. Ohiko jardunaz harago gero ardua hori hartuta, ikusten genuen ezingo zitezaiola benetan erantzun lan horrek eskatzen duen dedikaziora", dio Usabiagak.

EAJk "gogor" salatu du erabakia

EAJk proposamenaren aurka bozkatu zuen, liberazio berriek Udalarari guztira 78.000 euro pasatxoko "gainkostua" ekarriko diotela adierazi eta "gehiegizkoa" dela iritzita. "Liberazio batek gehiagok Udalarari guztira 78.000 euro pasatxoko gainkostua ekarriko dio; Udal Gobernuak dio beharrezkoa dela euren funtzionamendurako, baina guk zalantzak ditugu. Diru asko da eta uste dugu diru hori ondo etorriko litzatekeela aurrekontutako

KONSTITUZIONALAREN AZKEN EPAIA AHO BATEZ SALATU ZUTEN; ALBERTO ALONSO (PSE-EE) EZ ZEN EGON

beste partida batzuetarako", uste du EAJko eledun Mikel Letek.

Bilkuraren ostean, ohar bidez, jeltzaleek "gogor" salatu zuten EH Bilduren erabakia: "Gogor salatzen dugu EH Bilduren jarrera legealdi hasieratik, Udalarari kostua asko handitzeaz gain, komunikabideekin izan duten jarrera ere iluna eta manipulatzaila izan baita; ekaineko osoko bilkuran liberazio guztiak onartu ziren, eta baita soldatak ere, eta informazio hau ez dute kaleratu. EH Bilduk sekulako zalaparta ateratzen du besteen soldatak onartzen direnean, baina euren gainkostuak justifikatzea zilegi da, nonbait [...] Gardentasuna bermatzea ezinbestekoa da edozein udaletan, baina argi dago EH Bilduren Gobernuak ez duela gardentasuna lehenesten; ez lehen, eta ezta orain ere".

Konstituzionalaren epaia

Bestalde, PSE-EEko Alberto Alonsoren presentziarik gabe, aho batez onartu zen Euskalgintzaren Kontseiluak joan den astean publiko egin zuen manifestua, Espainiako Auzitegi Konstituzionalak udaletako funtzionamendua erabat euskaraz izateko eskubidearen aurka emandako azken epaia irmoki salatzen duena.



LUKEN UGARTEBURU

Txirrista, udalekuak borobiltzeko

Gaur amaituko dira udaleku irekien azken astean, umeez Arrizuri kaleko aldapan jarritako txirrista erraldoiaz gozatzeko aukera izan dute. Jardun "oso pozik" dago: "Aurten 398 ume egon dira, guztira. Ederra da urtean zehar izaten ez diren harremanak sortzen direla ikustea; oso egoera politak bizi izan ditugu. Lainotuta egon dira egun gehienak, baina oso ondo ibili gara".

Laguntzak, euskara ikasi edo ikasketak euskaraz ere egiteko

Udaleko Euskara Zerbitzuak hiru dirulaguntza mota atera ditu aurtengo udan euskara ikasteko edo ikasketa osagarriak euskaraz egiteko: lehen Udal Euskaltegitik kanpo euskara ikasten duten bergarrendako dirulaguntza da, beste euskaltegi baten edo barnetegian ikasten duten bergarrei zuzendua; bigarrena da Udako Euskal

Unibertsitateak (UEU) antolatutako ikastaroetan parte hartzen duten bergarrendako laguntza; eta hirugarrena, berriz, UNE-Deko Idazle Eskolak antolatzen dituen saioetan parte hartzen dutenei dago bideratuta.

Dirulaguntza horien gaineko informazio gehiago jasotzeko, euskara@bergara.eus helbide elektronikora idatzi daiteke, edo Udalaren webguneko dirulaguntzen atalera jo. Eskariak BAZen erregistratu behar dira, irailaren 15a baino lehen.

OHARRAK

San Martin feria: postuak eta txosnak

Gaur, uztailak 21, da azken eguna ekoizleentzat irailaren 9an ospatuko den ferian izena emateko. Bestalde, irabazi asmorik gabeko elkarte bati esleitu ohi zaion taloak eta odolosteak saltzeko txosnarako, uztailaren 26a da azken eguna. Izena emateko edo informazio gehiagorako: www.bergara.eus.

Laboratorium: abuztuan ere zabalik

Museoak ez ditu ateak itxiko abuztuan zehar. Ordutegia: astelehenezik zapatuta, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara; domeketan, 10:00etatik 13:00etara. Zabalik dagoen erakusketa da *Iragana ilustratzen: Mauricio Antón eta paleoarte*, abuztuaren 21era arte egongo dena. Museoa bisitatzeko, honako telefono-zenbaki honetara deitu behar da: 943-76 90 03.

Saskibaloia saila, denboraldi berrira begira

2023-2024ko denboraldira begirako izen-ematea zabalik dago. Argibide gehiago: 696 53 07 71 edo bergarasaski@gmail.com.

Senior mailako futbol taldea, jokalaria bila

Preferente mailako nesken taldea osatzeko jokalaria behar dituztela adierazi dute. Argibide gehiago: bergarake@gmail.com.



Markel Azkargortaren liberazioa onartzeko bozketa: EH Bildu (10) alde eta EAJ (6) kontra; PSE-EEko zinegotzia ez zen egon. J.B.L.

Azken txanpan sartu da aurtengo Berumuga

Gaur eta datorren egubakoitzean izango dira Berumuga musika zikloko azken bi kontzertuak: gaur gauean, Family Folks boskotearen doinuak izango dira entzungai eta datorren egubakoitzean, berriz, Sweet Marta & Johnny Bigstone bikotea

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA

Berumuga musika zikloak aurrera segitzen du, eta gaur gauean, 22:00etan hasita, Galiziako Family Folks taldeak hartuko du Espoloia. Pop, psikodelia, country-rock eta blues doinuak lantzen ditu Bosco Hillek, Ruben Xuarezek, Xabier Vieitezek, Jorge Lorrek eta Rufus *El Guarro*-k osatutako boskoteak euren piezetan. Arrasate Irratiak Berumugari buruz egindako podcast berezian, Ubane Uzin antolatzaile eta Gaztelupeko Hotsak-eko kideak dio taldekide bakoitza beste proiektu batzuetan ibiltzen dela musikari modura, baina honako hau dela "euren proiektua". Galiziako taldeaz galdetuta, hauxe dio Uzinek: "Asko gogorarazten dit 60ko eta 70eko hamarkadetako rock-and-rolla. Hor definituko nuke. Oso dantzagarririk dira".

Hiru disko kaleratu dituzte eta argia ikusi duen azken lana *Naufra* izenekoa da. Kideetako zenbaitek ezagutzen zuten Bergarako musika zikloa; izan ere, 2020ko edizioan aritu ziren, The Bo Derek's taldeak egin zuen kontzertuan.

Harmonika protagonista

Bartzelonatik etorritako Sweet Marta & Johnny Bigstone biko-



Galiziako Family Folks taldea. F.F.

BERUMUGAKO KONTZERTU GUZTIAK BEZALA, 22:00ETAN IZANGO DIRA ESPOLOIAN

teak itxiko du 2023ko Berumuga musika zikloa, hilaren 28an, eta honako hau ere gaueko hamarretan izango da, Espoloian. Blues klasikoko bikote akustikoa da, eta generoko maisu handien bertsiok egiten ditu.

"Emakumezko blues harmonika-jole bakarrenetakoa da Espainiako Estatuan", eta hor jarri du azpimarra Uzinek: "Oso emakume gutxi daude harmonika jotzen dutenak". Iaz, gainera, Arrasate Bluesen hartu zuen parte, baina beste formatu batean.

Uzinek gaineratu du "aspalditik" nahi zutela ekarri: "Musikari profesionala da eta hainbat proiektutan aritzen da. Deitu genionean baietz esan zigun, baina biko formatuan etorri nahi zuela esan zigun. Ez genion inolako oztoporik jarri".



Iazko Semicup-eko une bat. ANDONI BRETANA

Semicup-en zazpigarren aldia bihar Seminarixoko patioan

Kanporaketa fasean hamabost taldek hartuko dute parte eta zortzi sailkatuko dira txapelketa irabazteko lehiara

I.A.A. BERGARA

Areto futboleko Semicup-en zazpigarren edizioa jokatu da bihar, goizeko zortzietan hasita, Seminarixoko patioan. Denera, hamabost taldek eman dute izena -123 lagun-, eta hiru multzotan banatu dira. Helburua bete dutela diote antolatzaileek: "Azken urtean talde gutxiago izan ginen, noizbait gehiago izan gara, baina helburu bezala 15-20 talde jartzen ditugu; beraz, helburua bete dugu".

Goiz osoan, 14:00etara bitartean, kanporaketa fasea jokatu dute. Goizeko norgehiagoka bakoitzak hamabi minutu iraungo du eta partida horietan erabakiko da nortzuk izango diren arratsaldeko finaleko faserako sailkatuko direnak. Denera, zortzi izango dira soilik: multzo bakoitzeko lehen bi sailkatuak eta hirugarren postuan sailkatzen diren bi talde onenak.

Arratsaldeko finaleko fasean hamalau minutuko kanporaketa partidak izango dira. Final-laurdenak 17:00etatik 18:00etara bitartean jokatu dira, eta lau taldek egingo dute aurrera. 18:00etan eta 18:15ean lehiatuko dira bi final-laurdenak. Hirugarren eta laugarren postuak 18:30ean erabakiko dituzte eta final nagusia 18:45ean jokatu da, "dena orduan bada".

Eguna borobiltzeko, kontzertua

Behin txapelketa amaituta, sari-banaketa egingo dute -lehen hiru sailkatuak; jokalar, atezain eta goleatzaile onenak eta jokalar berezia- eta Antzuolako Udazken taldeak ordubeteguruko kontzertua eskainiko du Seminarixoko patioan.

Halaber, areto futboleko aurtengo txapelketako babesle ofiziala Ekinez dela jakinarazi dute antolatzaileek.

Datozen asteetako kultura ekitaldiak

Uztail amaieran eta abuztuan zehar ere kultura ekitaldiak izango dute lekua Bergaran. Domekan, esaterako, *Frontona* antzerki emanaldia egingo dute Boluko frontoian, 17:00etan hasita. Izenari erreferentzia eginez, frontoia bihurtu ohi dute antzezlan interaktiboaren antzezleku.

Abuztuaren 2an, eguaztenean, Zirkugintza Zirkua antzerki

konpainiaren ikuskizuna izango da ikusgai Espoloian, 19:30ean hasita. Haurrentzako den zirkua ikuskizunak inklusioaz eta pertsonen gizartearen duten garrantziaz hitz egiten du.

Bestalde, JAC -Jaime Alvarelos Correcher- blues abeslari eta gitarra-joleak *Dry* izeneko azken diskoa aurkeztuko du abuztuaren 20an Fraiskozuri plazan, 20:00etan.

Erakusketak Aroztegin

Hilaren 28tik abuztuaren 13ra Olatz Irigarai eta Maritxu Intxaustik arroz-paper luzeetan egindako margolanak erakutsiko dituzte *Basati* erakusketan. Hain zuzen ere, horri buruzko erreportajea irakurgai dago gaur kaleratutako *Puntua* aldizkarian.

Abuztuaren 18tik irailaren 3ra, berriz, Miren Eva Careagaren eskultura, grabatu eta argazkiak izango dira ikusgai.

Musika Eskolako organo ikasleen emanaldia Bañaresen

Bergarako Musika Eskolako organo ikasleek iazko esperientzia errepikatuko dute, Bañaresko (Errioxa) Santa Cruz parrokiaren emanaldia egingo baitute bihar, 20:00tan hasita.

Lorea Larrañaga, Elena Laka, Eugenio Etxebeste, Miren Azkara, Peio Lete eta Leo Juaristi ikasleak joango dira Josean Pausal irakaslearekin batera, eta

ikasleek nahiz irakasleak pieza bana interpretatu dute. Honako hau da egitaraua: Girolamo Frescobaldiren *Partita sopra l'Aria di Follia*, Francisco de Arauxoren *Tiento XXIII de 6 tono por fe fa ut*, Pablo Brunaren *Tiento de falsas 2 tono eta Tiento de mano derecha y al medio a dos tiples*, *Volluntary in A minor (Allegro)*, Johann Sebastian Bach-en *Preludio 1 BWV 846* eta Johann Pachelbel-en *Was gott tut, das ist wohlgetan* (Jainkoak egiten duena ondo eginga dago).

ANTZUOLAKO JAIK 2023



Kurrin dantza egin zuten eguenean Oinarin dantza taldeko haurrek. TXOMIN MADINA

Eragileek eskerrak eman dizkiete jaietan parte hartu duten herritarrei

Udalak barkamena eskatu du, egubakoitzeko herri bazkarian arazo bat izan zelako; osterantzean, balorazioa positiboa da. Alardeko kideak ere eskertuta daude parte hartzaileekin, eta Txosna Batzordeak uste du antolaketa "egokia" izan duela

Amaia Ramirez de Okariz

Kortabarria ANTZUOLA

Beste urtebetez itxaron beharko dute antzularrek herriko jaie-tarako, uztailearen 13tik 16ra ospatu baitituzte, eta balorazioa egin dute eragileek.

Olatz Lezeta Antzuolako alka-teak, lehenengo eta behin, barkamena eskatu nahi izan die egubakoitzeko herri bazkarian egon ziren herritarrei. Izan ere, bazkarirako saldu ziren txartel-etan arazo bat izan zen, eta, ondorioz, ez zegoen aski janari parte hartzaile guztientzako. "Udalak barkamena eskatu nahi die herritarrei, eta,aldi berean, baita eskerrak eman ere izan-dako jarrerarengatik eta eman-dako laguntzarengatik".

Lehen balorazio orokorrari dagokionez, ordea, nabarmendu du positiboa dela. "Ez da ezer larririk pasatu, Udalak dakienez,

bederen, eta ondo joan da guztia". Halere, ohartarazi du balorazio orokorra Sormen Batzordean egingo dela, irailaren 5ean, eta parte hartzeko dei egin du.

Alardearen eskertza

Antzuolako Alardearen Kultur Elkarteak ere eskerrak eman dizkie herritarrei. Haren arabera, bi erronka zituzten esku artean: Edurne Iturberen ordezkari bat topatzea ofizial lanak egiteko, eta Juan Carlos Gomezena, mairu buruzagia izateko. "Biak ere txukun eta zuzen bete dituzte Xiker Iparragirrek eta Zishan Tariqek".

Horrez gain, eskerrak eman dizkie plazan aritu diren parte hartzaile guztiei, eta baita kanpo ibili direnei ere, hala nola entseguetako prestatzaileei, erosketak eta luntxa egin dituztenei eta Udalari eta udal lan-

gileei. "Zuen aleari esker, bikain gauditugu aurtengo erronka; guzti-guztiei mila esker, bihotzez. Eredugarriak zarete".

Txosnetako antolaketa

Txosna Batzordeak ere balorazio positiboa egin du, jendeak ondo erantzun duela nabarmenduta, baina baita eurek ere. "Iazkoaren ostean, hobeto antolatzeko beharra identifikatu genuen, eta gustura gaude egin dugun lanarekin. Ardurak ondo banatzea genuen helburu, eta hori erdie-tsi dugu". Azaldu dutenez, dirua erabili beharrean, tiketak erabili dituzte, eta uste dute funtzionamendua egokia izan dela. "Kanpora begira, agian, ez da horren ona izan, baina gu antolatzeko balio izan du". Horrez gainera, txosna bakarri jarri dute aurten, eta hori ere ontzat jo dute.



Helduei omenaldia. TXOMIN MADINA



Soka dantza. TXOMIN MADINA



Herri bazkaria egin zuten, lehen aldiz, egubakoitzean, Kalebarrenen. AITOR AGIRIANO



Mairuaren Alardea egin zuten zapatuan; Zishan Tariq-en estreinaldia. AITOR AGIRIANO



Dirt jump-a eta trialsin ikuskizuna egin zituzten domekan, Beheko auzoan. OIHAN LOITI



Domekan egin zuten larrain dantza, Oinarin dantza taldeak antolatuta. OIHAN LOITI

"Kaleko katuak mantendu nahi ditugu, bideratuta"

JOHANNA SANCHEZ ETA ALAITZ JAUREGI MIXI ELKARTEKO KIDEAK

Animalien Ongizateari buruzko Legea onartzekoa da Espainiako Gobernuak, eta horrek eragina du udaletan; kaleko katuen segurtasuna eta osasuna bermatu behar du

Amaia Ramirez de Okariz

Kortabarria ANTZUOLA

Mixi elkarteak sortzeko urratsak egiten dabilta Johanna Sanchez eta Alaitz Jauregi antzuolarrak, beste bi kiderekin batera. Azaldu dutenez, dagoeneko Udalarekin hitz egin dute, eta, orain, elkartearen parte izateko boluntario bila dabilta; udazkenean sortuko dute legalki. Horretarako, posta elektronikoko helbide bat jarri dute interesa nahi dutenen eskura, eta, hala, parte hartzeko gogoia izanez gero, mixielkartea@gmail.com helbidera mezu bat bidaltzeko eskaria egin dute.

Katuak hizpide dituen elkarte bat sortu nahian zabilzate. Zertarako?

Johanna Sanchez: Ni neu ez naiz katuak, baina herrian herriko katuak zaindu egin behar direla uste dugu. Gainera, Espainiako Gobernutik datorren Animalien Ongizateari buruzko Legea onartuko da irailaren 29an, etziko hauteskundeak eragina izan dezaketen arren, baina horrek eskumen batzuk ezartzen dizkio Udalari.

Zeintzuk?

J.S.: Jakitea, gutxi gorabehera, Antzuolan zenbat katu dauden, kontrola eramateko eta gehiegizko populaziorik egon ez dadin. Horrez gain, zikiratzea, albaitariarengana eramatea...

Alaitz Jauregi: Elkarteak helburu du zeregin horretan laguntzea. Gu arduratuko ginatke kaleko katu horiek non dauden jakiteaz, zer egin daitekeen pentsatzeaz, baina, horretarako, dirulaguntzak behar ditugu, eta Udalarekin elkarlanean jardun behar dugu. Gure asmoa baita kaleko katuak euren ingurunean mantentzea, baina bideratuta, zainduta.

Hitz egin al duzue dagoeneko Udalarekin?

J.S.: Maiatzean eduki genuen bilera bat, batez ere, galdetzeko ea pentsatuta zeukaten zerbait



Johanna Sanchez eta Alaitz Jauregi, Mixi elkartearen kideak, martitzenean. A.R.K.

"DIRULAGUNTZAK BEHAR DIRA, ETA UDALAREKIN ELKARLANEAN JARDUNGU DUGU"

egitea edo ez lege berria sartzean, eta ezetz esan ziguten. Guk orduan komentatu genien elkartearen sortzearen ideia.

Beraz, parte hartu nahi duenak bideratze lanak egingo ditu, ezta?

J.S.: Bai, aipaturiko lana. Eta, gainera, elkarlanean jardun nahi dugu herritarrekin; izan daitezela elkartearen parte.

Esate baterako, oporrak hartu aurretik, ume bat jarri zen gurekin harremanetan, eta proposatu nion oporretatik bueltan argazki-kamera batekin herrian dauden katuei argazkiak ateratzeko.

A.J.: Bai, hezkuntzaren puntua ere hor baitago. Erakutsi nahi diegu animaliak nola tratatu, noiz ukitu daitezkeen eta noiz ez... Adibidez, kuriositatetzat, joera dugu katu txikiei esnea ematekoa, baina horrela behar izaten dute, eta hil egi-

ten dira. Esne-hautsa eman behar zaie.

Elkarlanean jarduteko nahia dugu. Borondatez egiten den zerbait da, eta prest gaude gauza ezberdinak egiteko; esate baterako, eskolarekin.

Ba al duzue erreferentziarik?

A.J.: Erreferentziatzen dugu Arrasateko Kaonbi elkarteak. Hamazazpi urteko ibilbidea du egina, gutxi gorabehera. Horrez gain, Oñatikoa ere oraintxe sortu da, eta estatutuak-eta eurek pasatu dizkigute. Legazpikoarekin eta Urretxukoarekin harremana ere badugu. Sarea, beraz, badago, eta elkarrekin kudeatzen ditugu kontu gehienak.

Zeintzuk dira hurrengo urratsak?

J.S.: Estatutuak prest ditugu; beraz, oporren ostean elkarteko gara eta izendatuko ditugu zereginak. Diputaziora ere joango gara, elkarteak legalki osatzera, eta berriro jarriko gara Udalarekin harremanetan. Enpresetan dirulaguntzak eskatu nahi ditugu bideratu beharrekoak gauzatu ahal izateko. Bagabiltza lanean, eta dei egiten diegu herritarrei parte hartzera; bakoitzak egin dezala ahal duena, ahal duen neurrian.



NIRE USTEZ

OLATZ ABASOLO

Amesten

Zein da zure ametsa? Zer amesten duzu? Galdera sinpleak dirudite, baina, sarri, ez dugu erantzunik edo ez gara erantzuten ausartzen. Beteko ez den beldurrez. Lotsaraziko gaituzten beldurrez.

Egunerokotasuneko errutinan, denbora falta eta produktibitatea ditugu aitzakia. Ametsak itzaltzen ditugu, urrun ikusten ditugu eta frustraziotik babesten dugu geure burua. Ez lortzearen beldurrak eta galduko dugun pisuak balantza irabazten diote gure irudimenari.

Saiatzeari uzten diogu edo ez gara saiatu ere egiten. Ametsak ametsetan uzten ditugu, bazterturik. Eta gure egunerokotasunean murgiltzen gara. Gutxi batzuen ametsak betetzen direla ikustean, gainera, "zer-nolako zortea" edo "horrek bai asmatu" bezalakoak entzun ohi dira, inbidia kiratsa dariela.

Ausartu gaitezen amesten. Gure ametsetatik gertuago bizitzen, ametsak errealitate bihurtzen. Gure desio eta gogo sakonak merezi duten errespetuz eta maitasunez tratatzen.

Erreka auzolanean garbituko dute bihar, Udalak antolatuta

Herriko jaiak amaitu ondoren goi hitzordua izaten da azken urteetan erreka auzolanean garbitzea, eta horrela egingo dute aurten ere antzuolarrak.

Goizeko bederatzietan izango da hitzordua bihar, Herriko Plazan, eta udalak parte hartzeko dei egin die herritarrei, denen laguntzarekin garbiketara "berehala" egingo dela nabarmenduta. Are gehiago, hamarretakoa izango da lanak amaitzean.

Parte hartzeko asmoa dutenek, ordea, abisatu egin beharko dute alde aurretik, eta, horretarako, eskatu dute eguna baino lehenago udaletxera deitzeko. 943-76 62 46 da telefono-zenbakia.

Elkartasun jaira tortillak eramateko eskatu du Anelkarrek

Elkartasun jaira egingo du Anelkar elkarteak irailaren lehen egubakoitza, eta, oraindik egunak falta diren arren, elkartasun taldeak hitzordua agendetan apuntatzeko eta tortillak eramateko eskaria egin die herritarrei; izan ere, ohiturei jarraituz, boluntarioek eginiko tortilla-pintxoak izango dituzte salgai arratsaldean; ohikoa den legez, eguraldia lagun bada, Zurrategi plazan egingo dute.

Jaialdian pintxoaren salmentatik eskuratzen duten dirua, berriz, Kongon eta Senegalen martxan diren proiektu batzuetara bideratuko dute. Horrela egin izan dute beste zenbait alditan ere.

MUJIKA
HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA



Bazkaria, pandemia aurretik, San Roke kaleko jaietan. GOIENA

Bereziak izango dira aurten San Roke jaiak

Fernando Ojanguren izan da jai batzordeko motor nagusia azken hamarkadan, baina jakinarazi du erreleboa emateko unea heldu zaiola. Hala, lekuko aldaketa irudikatu gura du jai batzordeak abuztuaren 16ko bazkarian

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA Hiru aste pasatxo gelditzen dira oraindik San Roke egunerako, eta Jai Batzordeak jakinarazi du bereziak izango direla aurten; izan ere, Fernando Ojanguren agurreko jaiak izango dira. "Heldu da txanda emateko unea", esan du elgetarrak. Azaldu du sei bat laguneko taldea duela

inguruan jaiak antolatzeko, eta espero duela egotea lekukoa hartuko duenik.

Gogoan du gazte denboretan jai garrantzitsuak zirela sanrokeak. "Andra Mari jaiekin batera ospatzen ziren eta lau bat eguneko festak ziren".

Gustura ibili izan da beti jai batzordeetan Fernando Ojangu-

ren. Poto taberna zuela, Salvador jaiak antolatzen ere buru-belarri ibiltzen zen: "Lana da eta denbora eskatzen du, baina jendea elkartzea eta festa giroan ikustea oso pozgarria da".

Erreleboa

Datorren urtean ere San Roke jaiak egotea nahiko luke Ojan-



XALBADORPE ELKARTEA

Erretiratuak Santoña aldean ibili dira

Elgetako erretiratu talde bat Santoña aldean ibili zen hilaren 12an. "Egun zoragarria pasa dugu, eguraldi onarekin eta bazkari oso onarekin", azaldu dute.

Xalbadorpe elkarteak zuzendaritzak irailerako antolatu du hurrengo irteera. Leitzan dagoen Peru-

Harri ezagutzera joatea proposatu dute. Donezteben eta Lesakan ere egingo dituzte geldialdiak. Irteera irailaren 6an izango da, baina izen-ematea martitzenean egin behar da, 11:00etatik 13:00etara, Ozkarbi elkartearen. Prezioa 30 euro da.

"Atsedean hartzeko unea iritsi zait"

FERNANDO OJANGUREN
JAI BATZORDEKO KIDEA

Jaietako sortzaile nagusietako bat da Fernando Ojanguren (Elgeta, 1958). Lekukoa pasatzeko unea duela dio.

Zenbat urte dira jaiak antolatzen hasi zinetela?

Hamar urte dira. Hamarretakoa egiten zen aurretik, eta apur bat gehiago egin zitekeela pentsatuta hasi ginen bazkaria, erromeria eta beste antolatzen. Jendeak erantzun egin zuen eta segida ematea erabaki genuen.



L.Z.L.

Lekukoa pasatzeko unea heldu zaizu?

Bai. Behin adin batera, iritsita uztea tokatzen da. Eskerrak eman nahi dizkiet urte hauetan guztietan alboan izan ditudan laguntzaile guztiei.

Eta erreleborik baduzu?

Lantaldetxo bat bagara, eta esango nuke irtengo dela bateren bat lekukoa hartuko duena. Nahiko nuke, behintzat. Ni laguntzeko prest egongo naiz beti.

gurenek. "Lantaldea badago, eta nahiko nuke jaiak jarraipena izatea. Abuztuan hustu egiten da Elgetan, eta gelditzen garenendako ospakizun polita dira sanrokeak".

Aurtengo jaietara dagokienez, betiko moduan, gauerdian hasiko dira. "Su artifizialak, brindisa eta argazki emanaldia izango ditugu jaietara hasiera emateko. Argazki emanaldirako, gainera, bideo berezia prestatu dugu; azken urteotako argazkiak erakutsiko ditugu". Meza, hamarretakoa eta bazkaria ere izan-

go dira. "Bildotsa izango dugu bazkaritarako. Datorren astean jarriko ditugu txartelak salgai, Lola tabernan. Prezioa 28 euro da, eta erromeria aurten Mirari eta Aintzane trikitilarietara egingo dute". Jaietan parte hartzeko dei egin du Ojanguren.

BILDOTS-JANA EGINGO DUTE AURTEN; LASTER JARRIKO DITUZTE TXARTELAK SALGAI, LOLAN



L.Z.L.

Ur-putzuetan gustura

Uztailaren lau eguneguz egon dira ur-putzuak Elgetan. Urteroko ekintza da dagoeneko, eta antzoki aurreko plazan egon dira aurten putzuak. Gustura ibili dira han neska-mutikoak; batez ere, bero handieneko egunetan. Goizez udaleku irekietako erabiltzaileen gozamenerako izan dira putzuak. Askotariko jolasak egin dituzte.

"Ikastea eta txapelketaz gozatzea dugu helburu"

JESSICA OTS ARIMA GALDUAK TALDEKO JOKALARIA

Guztira, mundu osoko 68 taldek hartuko dute parte Munduko Juggur Txapelketan, eta haietako bat da Arima Galduak; Jessica Ots da hango kapitaina

Julen Murua Mesonero ELGETA

Munduko Juggur Txapelketa jokatu da asteburuan zehar Eibarren. Hara bederatzi herrialdeko taldeak joango dira; besteak beste, Ameriketako Estatu Batuetako eta Australiako taldeak; baina baita Debagoieneko bi ere: Arima Galduak eta Dragoi Arima taldeak. Jessica Ots (Bergara, 1982) Arima Galduak taldeko kide da, eta txapelketan parte hartuko du, kapitain.

Nola moldatu zarete Munduko Txapelketaren antolakuntzarekin?

Azkenengo xehetasun batzuk bete behar izan genituen, baina txapelketaren antolakuntzarekin ondo moldatu gara. Bertaratu den jendearentzat ura, fruta eta bestelakoak erostea izan zen azken egunetako eginbeharrekoa, baina istripuen segurua eta anbulantzia zerbitzuak aurretik kontratatuta utzi genituen. Hilaren 21ean, 22an eta 23an jokatu da txapelketa. Atzo, armek neurri guztiak betetzen dituztela ziurtatzea izan zen egin beharreko nagusia, eta, ostean, parte hartuko duten talde guztiei ongietorria egin genien. Gaur goizean, berandu datozen taldeen harrera egingo dugu, eta norgehiagokak goizeko hamaiketan hasiko dira.

Zenbat taldek osatuko dute txapelketa? Zein herrialdeetatik etorriko dira talde horiek?

Guztira, 68 talde izango dira, duela bi urte jokatu zen Munduko Txapelketan baino lau gutxiago. Herrialde askotako taldeak dira: Australia, Ameriketako Estatu Batuak, Hungaria, Lituania, Suitza, Suedia, Alemania, Frantzia eta Espainia. **Lortu duzue juggerra kirol gisa onartzea?**

Oraindik ez. Bartzelonan lortu zuten juggerra kirol gisa onartzea, eta Valladoliden eta Murtzian ere borroka federazioko modalitate bezala sartu dira.



Jessica Ots, Arima Galduak taldeko kapitaina. JESSICA OTS

"EUSKAL HERRIAN ORAINDIK EZ DUGU LORTU JUGGERRA KIROLTZAT HARTZEA"

Euskal Herriari dagokionez, Bizkaian izan du gorakada: hiru talde daude dagoeneko aktibo. Gipuzkoan bagoaz aurrera poliki-poliki; azkenengo asteetan talde batzuk batu dira eta txapelketa horretan parte hartuko dute. Debagoienean Arrasateko Dragoi Arima taldea ere badago, eta haiek ere Munduko Txapelketan izango dira.

Nola dago Arima Galduak?

Hasiberriak diren pertsona asko batu zaizkigu; beraz, ez dugu oso aurrean gelditzeko esperantza handirik. Gure taldeko kide dezente ez dute parte hartuko txapelketan; Euskal Encounter data beretan da, eta, han parte hartzen dutenez, ezingo dira etorri Munduko Txapelketara. Horrenbestez, orain arteko taldeko kide batzuk izango dira, baina jende

berri asko izango dugu taldean, eta haiek ere ikaste prozesu bat pasa behar dute.

Zein da Arima Galduak taldearen helburua Munduko Txapelketan?

Lehiatu egin nahi dugu, baina sailkapeneko postuak ez dira gure helburu nagusien barruan sartzen; ez gaitu arduratzen. Guk nahi duguna da taldean denbora gutxien doan jendeak kirol honen inguruko gauzak ikastea, poliki-poliki bada ere. Garrantzitsua da horrelako garrantzia duen txapelketa batean parte hartzea ikusteko zer nolako garrantzia duen txapelketa eta beste herrialdeetako taldeen maila ezagutzeko. Gainontzeko taldeekin harremanak sortu eta denon artean txapelketaz gozatzea eta ondo pasatzea da gure helburu nagusia.

Eta etorkizunera begira, zer?

Handitzen jarraitu nahi dugu, jende gehiagorengana iritsi. Badakigu gorakada prozesuan gaudela, eta, beraz, nahi duguna da gure kirola ezagutzera ematea eta prozesu horretan geroz eta jende gehiago batzea; izan ere, hori ona izango da guretzat eta juggerrarentzat.



Julen Garmendia, Bergarako kamisetarekin. MIKEL LARRAÑAGA BURGAÑA

Bergaran jokatu du Julen Garmendiak denboraldi berrian

Elgetarrak Eibarren jokatu ditu azkeneko hiru denboraldiak; Gazte Mailako taldean aritu da

J.M.M. ELGETA

Aurrelari elgetarrak Bergarako futbol taldean jokatu du datorren denboraldian, eta Oho-rezko Erregional Mailan lehiatuko da.

Azkenengo urteetan Eibarko futbol taldean jokatu du, baina, talde armaginean kontratua amaituta, Bergarara itzultzea erabaki du Garmendiak.

Ettxera itzulera

Gazte mailan egin zuen Garmendiak Eibarren jokatzeko urratsa, eta han egin ditu hiru urte. Aurtengoa izan da haren azken

denboraldia han, eta Eibarrera joan aurreko taldera itzultzea erabaki du: Bergarara.

Helburu handiak

Eibarren mailaz igotzea lortu zuen Garmendiak: Gazteen Euskal Ligatik Gazteen Nazional Ligara. Orain, talde mahoneroarekin bide beretik jarraitu eta "Hirugarren Mailara igotzea" gustatuko litzaiokeela dio.

Horretaz gain, aurten Agorrosinen jokatu ditzakeen "minutu guztiez eta, orokorrean, denboraldiaz, gozatzea" da aurrelari elgetarraren helburua.



KANTSATZEKE MENDI TALDEA

Uda aurreko azken irteera

Kantsatzeke mendi taldeak antolatuta, kostaldean ibili ziren hainbat elgetar domekan. Lekeitio inguruko parajeak ezagutzen izan ziren. Argazkian aldapan behera agertzen dira, herrigunea, Isuntza hondartza eta San Nikolas uhartea bistan dituztela. Ibilbide polita eta bista ederrak izan zituzten. Irailean egingo du Kantsatzekek hurrengo irteera.

Udalekuak: umeak eta antolatzaileak, oso pozik

Udaleku irekietako, arte udalekuetako eta kirol kanpainako balorazio positiboa egin dute arduradunek eta erabiltzaileek. Aurten, gainera, historiaren inguruko azalpenak ere jaso dituzte, txokolatezko balea-txalupa ikustera bisitak egin dituzte eta

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Topalekua gaztelekuan izan ordez, Eltzian elkartu dira lehen orduan udaleku irekietan ibili diren gaztetxoak, eta hori izan da aldaketa nagusia, agian, aurtengo uztaierako Udalak antolatu dituen eskaintzen barruan. Eta aldaketara egokituta, "oso ondo" pasa dituzte herriko udalekuak erabiltzaileek zein antolatzaileek. "Eltziak badu espazioa, eta han elkartuta ere herri osora zabaldu dira gero taldeak. Modu horretara, gainera, arte udalekuak gaztelekura itzuli dira, eta haiendako ere espazio egokia izan da hori", adierazi du Haur eta Gazte Saileko udal teknikariak, Jon Lopezek.



Gaztelekuko paretan ibili dira murala egiten arte udalekuetako gaztetxoak. O.E.G.

Turismo Sailarekin elkarlanean

Prestatutako ekintzen osagarri, txokolatezko balea-txalupa ikustera egindako bisitetan ikasitakoarekin osatu dute umeek udaleku irekietako eskaintza. 200 ume baino gehiago joan dira

ikustera, eta txokolatearen jatorria, bitxikeriak, baleontziak, Selma Huxleyk egindako ikerketa, historia eta gozoaren eta azukrearen arteko ezberdintasuna ere ikusi eta ikasi dute, besteak beste, erakusketara

egindako bisitetan eta horiei lotutako ekintzetan.

Umeekin batera, guztira, 100 begirale baino gehiago ibili dira azken lau aste hauetan udaleku irekietan, arte udalekuetan eta kirol kanpainan.

Zer moduz ibili zara herriko udalekuetan?




IZAR ZUBIA
UDALEKU IREKIAK

"Oso-oso ondo ibili naiz. Ilea eta azazkalak margotu ditugu, koltxetan ibili gara, ur-txorrotetara joan gara... Gauza pila bat egin ditugu. Pena dut bukatu egin direlako, baina datorren urtean berriz etorriko naiz. Pena handi handia hartuko dut berriz etorri ezingo naizen urtean".



CARLA LUMBRERAS
ARTE UDALEKUAK

"Joan den urtean ere arte udalekuetan ibili nintzen, aurten ere bai eta datorren urtean ere bai. Oso ondo pasa dut. Guggenheim museora joan ginen egun baten, Bilbora, eta nire behatzaren eskultura bat egin dut ore berezi batekin. Beste lagun batzuek ahoarena eta belarriarena egin dute".



EKAIN PEDREGAL
KIROL KANPAINA

"Urteren baten pilotan ere ibili naiz, baina tenisa aukeratzan dut beti. Aurten ere bai. Urtean zehar ere aritzen naiz teniseari, Aloña Mendirekin, baina oso gustukoa dut eta udan ere kirol bera aukeratzan dut. Gustura aritzen naiz hemen, baina begiraleekin ere. Ahal badut, errepikatuko dut".

Abuztu amaierarako bukatuko dituzte biribilguneko lanak

Goribarren, biribilgunearen ondoan, oinezkoen irisgarritasuna hobetzeko obrak hastear daude

O.E.G. OÑATI

Abuztuaren amaierarako herri sarrerako biribilguneko lanak amaituta egotea aurreikusten du obrak egiten ari den Donostiako Orsa enpresak. Urak bideratzeko hodia ere aldatu egin dute. "Igeltserotza lana da gelditzen den handiena. Martxa onean doaz lanak, bai, eta abuztuaren bukaeran amaituko ditugu. Argiteria jartzea faltako da gero", dio obrak egiten ari den taldeko langile batek.

Gipuzkoako Aldundiarena da biribilguneara egiteko proiektua,

eta, horrekin batera, autobus geltoki bat jartzeko oinarriko lanak ere egin dituzte. Udalak Otadui zuhaitzitik Torreazura eta Kanpizelaitik Torreazura oinezkoen irisgarritasuna bermatu gura du, eta hori hobetzeko eta autobus geltokia egokitzeko obrak esleitu dizkio Echaiden enpresari. Bi fasetan egingo dira: lehen fasean ezkerreko aldea egingo dute, Kanpizelai aldekoa; eta bigarrenan, Urbietako aldea. Lanak egiteko epea zortzi astekoa da eta aurrekontua, 111.000 euro.

GORA ETA BEHERA



Hondakinak, ontzietatik kanpo

Hondakinak ontzietatik kanpo egoten direla salatu du herritar batek: "Oñatin aspalditik dago arazo hori. Herritarren jarrera, lotsagarria; Udalarena, jakitun izanda, lotsagarriagoa".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

OHARRAK

Madalenako jaiak

Auzoko jaiak ospatuko dituzte, gaurtik, Santxolopeztegi auzoan. Domekara arte iraungo dute.

Udako ordutegia udal zerbitzuek

Abuztuaren udako ordutegia izango dute udal zerbitzuek. Kiroldegia, esaterako, 10:00etatik 20:00etara zabalduko dute; domeketan itxita egongo da. Liburutegia ere goizetik bakarrik egongo da zabalik; eta HAZ bulegoa, 08:30etik 14:30era.

Argirik ez abuztuaren 10ean

Abuztuaren 10ean argia kenduko dute herri osoan 15:00etatik 19:00etara, argindarraren sarean hobekuntza lanak egiteko.



Urbil Artola eta taldekideak, Bergarako Seminarixoan emandako kontzertuan. IMANOL SORIANO

Esentzia berarekin, baina musikalki berrituta

Txomin Artolak 1978an kaleratutako 'Belar hostoak' lan ezagunaren birmoldaketa egin du haren seme Urbil Artolak. Hark eta haren taldeak kontzertua eskainiko dute asteazkenean, hilaren 26an, arratsaldeko zazpitan hasita, Lazarraga lorategian

Iñigo Barrena Kortabarria OÑATI
Kalean udako kultur egitarauaren barruan, hitzordu berezia izango da datorren asteazkenean, hilaren 26an, arratsaldeko zazpitan hasita, Lazarragako lorategian. Hain zuzen ere, Txomin Artolak 1978an argitaratu zuen *Belar hostoak* diskoa eguneratu egin du haren seme Urbil Artolak, Bilboko Loraldia festibalak egindako proposamenaren eskutik.

Oholtza batetik bestera ari da azken hilabeteetan Urbil Artolak, Dani Venegasek, Andoni Etxebestek, Antxon Sarasuak eta Jon Gurrutzagak osatzen duten boskotea; Oñati izango dute hurrengo geltokia. "Jendaurrean proiektua aurkezteko aukera dugun bakoitzean gogotsu egoten gara, aukera askorik ez dugulako izaten eta hasieran ez genuelako uste kontzertuak emango genituenik ere. Oñatin jotzea erakargarria da, eta, are gehiago, Lazarraga lorategia moduko plaza batean eta uda

sasoiko gaueko giroan", dio Urbil Artolak.

Gainera badaki bertaratuko den jendea

Espazioetara egokitu beharra
Orain arte emandako kontzertuetatik ezberdinena da, agian, datorren eguaztenean Oñatin joko dutena. Barrualdean ariztetik kanpoko emanaldira igararako dira Artola eta taldekideak. Taldeko gitarrak dio ez dituztela emanaldiak "aldatzen" eta Oñatikoak ere orain arte eramandako "bide bera" izango duela. Dena dela, espazio ezberdinetara moldatzeko "beharra" izaten dutela aitortzen du, akustikoki toki bakoitzean soinu "aldatu" egiten delako. Era be-

'KALEAN' UDAKO KULTUR EGITARAUKO AZKEN KONTZERTUA IZANGO DA EGUAZTENEKOA

rean, oholtza eta inguruan sortzen den "atmosfera bakoitzera" ere moldatu beharra izaten dutela gaineratzen du.

Aitak baino aukera gehiago
Diskoa 1978koa izanik, 40 urte baino gehiago igaro dira; ibilbide luzea dauka, baina oholtzako emanaldiak, aldiz, ez horrenbesteak. Urbil Artolak berak aitortu duenez, aitak diskoa atera zuenean ez zuen jendaurrean osorik jotzeko "aukera askorik" izan, eta orain, haren lana beste modu batera errekuperatu dute: "Azkenaldian, aitak esan izan dit diskoa hura bakarka defendatzeko modua konplikatua zela, eta haren kontzertuetan lan hartako kantu batzuk bakarrik jotzen zituen. Orduan ez zen aukera askorik egon zuzenean entzuteko; orain, berriz, bai". Era berean, Artola jakitun da gauzak aldatu egin direla, baina "mamiak" eta "oinarriak" berdinak izaten jarraitzen dutela azpimarratu du.



NIRE USTEZ

JONMIKEL INTSAUSTI

Jende arrunta

Berriki hil zaigu osaba, 88 urte zituela, azken urteak jaioterriko geriatrikoan igaro ostean. Ez zuen bizitza errazik izan; 9 urterekin geratu zen aitaren umezurtz, eta, ondoren, familia osoak, amonak eta bi semeek lanean aritu behar izan zuten aurrera egitearren: gerraosteko urte gorriak ziren. Hil eta bi egunera hileta izan genuen, eta sermoian apaizak osabari buruz hitz batzuk bota zituen -aurretik beilatokian galdera batzuk eginak zizkigun-.

Apaizak birritan kokatu zuen osaba pertsona arruntaren artean: "Bizitza arrunta izan zuen, herri berean jaio, herri berean bizi eta herri berean hil". Haren bizitzan deus berezirik ez balitz bezala. Arruntak ere badira senideak, lagunak eta herriko bizilagunak, goizero lanera doazen langileak, arratsalde bulegoa garbitzen dutenak, arruntak herriko saltzaileak, okinak, osasun langileak, irakasleak, arruntak liburuzainak, suhiltzaileak, postariak eta modelistak.

Bai, modelistak ere bai, osaba bezala; arruntak denak, baina ezinbestekoak.

Goriziako lehiaketan parte hartuko du Ganbara Abesbatzak

Astehenera bitartean, Ganbara Abesbatzak Gorizian (Italia) egingo den abesbatzen nazioarteko lehiaketan hartuko du parte. Aitor Biain Bidartek zuzendutako taldeak zortzi kanta abestuko ditu. Alde batetik, folkloean, *Lau teilatu*, *Maiteagoak*, *Aldapeko* eta *Kitolis* piezak abestuko dituzte, eta, hori gutxi balitz, abestiek interpretazioa ere izango dute. Polifoniaman, berriz, *Die mit tranen*, *Laudibus*, *Love tempest* eta *We beheld once again* abestiak egongo dira entzungai. Hala, ilusioarekin eta inongo presiorik gabe, final handian izateko ahalegina egingo dute Ganbara Abesbatzakoek.

Jazzaldian jotzeko aukera izango du Ramada Inn taldeak

Hilabete oparoa izaten ari da Oñatiko Ramada Inn taldearentzat. Hil hasieran euren bigarren diskoa, *Real Tree*, bost abestiko EPA, grabatu berri dute, baina zitarik esanguratsuen datorren martitzenean izango dute, Donostiako Jazzaldiaren barruan. *Nauticool* agertokian izango dira, hiruko formatuan, eta, euren lehen diskoko kantak ez ezik, grabatu berri duteneko abestiak ere eramango dituzte oholtzara. Tartean, baina, izan dituzte beste pare bat kontzertu ere: hilaren 20an Abadiñon jo zuten, baita Baionan ere, Zipa gaztetxeak antolatutako Musika Besta jaialdiaren barruan kontzertua egin zuten eta.



Aurten Labegaraietan jokaturako Bergararen eta Aloña Mendiren arteko partidua. IMANOL SORIANO

Euskadiko Txapelketara itzuliko da Aloña Mendi

Denboraldiko helburua zen galdutako maila berreskuratzea, eta, nahiz eta kantxan ez den izan, Euskadiko Txapelketako Bigarren Mailan izango da Mekalki Aloña Mendi. Igoerari uko egin dion talde baten eskaintza onartzea erabaki dute oñatiarrek

Iñigo Barrena Kortabarria OÑATI
Ez da denboraldi erraza izan amaitu berri dena Mekalki Aloña Mendirentzat. Hasiara kaxkar batek baldintzatuta, atzetik aurrera lan egitea tokatu behar izan zaio Aitor Ugartek zuzentzen duen taldeari. Lesioak eta arrazoi pertsonalak medio, denboraldi erdira arte ezin izan dira talde osoarekin lehiatu; behin arazo horiek pasata, bigarren itzuli ona osatu dute txantxikuarrek, baina ez da nahikoa izan igoerako *play-off*-a jokatzeko.

Kirolak, baina, bigarren aukera bat eman dio saskibalo sailleko talde gorenari, denboraldi hasieran finkaturako helburua, kantxan ez bada ere, bete egin dutelako. Igoera lortu eta mailaz igotzeko aukerari uko egin dion talde baten hutsunea betetzeko eskaintza jaso zuten saskibalo sailean; txantxikuarrek erronka onartu eta Euskadiko Txapelketako Bigarren Mailan jokatu dute datorren denboraldian. "Proposamena

jasota, bilera bat egin genuen, taldea aurrerapauso hori emateko prest zegoen edo ez jakiteko. Azkenean, erronka onartzea erabaki dugu", dio Aitor Ugarte entrenatzaileak. Iaz galdu zuten maila, eta helburua lehenbailehen galdutako kategoriara itzultzea zen; helburua bete du Ugarteren taldeak.

Maila berria, ilusio berriak

Igoera lortzeko ilusioa pizten du edozein kiroleretan eta taldetan, eta Aloña Mendikoak ere indarberrituta iritsiko dira denboraldi hasiera berrira. Nahiz eta joko maila handiagoa erakutsi beharko duten, Ugarterenak prest daude konpromiso handiagoa hartu eta azken urteetan

MAILA GALDU ETA URTEBETERA ITZULIKO DA MEKALKI ALOÑA MENDI EUSKADIKO TXAPELKETARA

Euskadiko Txapelketako Bigarren Mailan erakutsi zuten lehiakortasuna berreskuratzen. "Kirol arloari dagokionez, Euskadi mailan arituko gara eta zailtasunak gora egingo du. Dena dela, kantxa handiagoetan bi epailerekin eta 24 segundorekin jokatu dugu, eta horrek taldeari ilusio berezia egiten dio. Gainera, esango nuke joko aldetik ere hobeto etorriko zaigula maila honetan aritzea", adierazi du Aitor Ugartek.

Bergarak ere bide bera

Mahoneroek ere Aloña Mendiren bide bera erabili dute mailaz igotzeko. Bergararrek bai jokatu zuten *play-off*-a, baina ez zuten igoera lortzerik izan; kolpe latza, zalantzarik gabe. Denboraldia amaituta, bulegoetan eskaintza jaso zuten eta haiek ere erronka onartzea erabaki dute. Aurten gertatu bezala, bi derbi izango dira Aloña Mendiren eta BKEren artean 2023-2024ko denboraldian.



Mikel Olalde, podiumean ENEKO AZURMENDI

Iazko garaipena errepikatzen gertu gelditu da Mikel Olalde

Bigarren postuan amaitu zuen Kantoikriten zortzigarren edizioa; zapatuko protagonista, baina, euria izan zen

I.B.K. OÑATI

Euria izan zen protagonista zapatuan jokatu zen Kantoikriten zortzigarren edizioan, eta, eguraldiak lasterketa baldintzatu zuen arren, lasterketa zirrargarria bizi izan zen, beste behin, Oñatiko kaleetan barrena. Mikel Olalde iazko balentria errepikatzen asmoa zuen, eta, azken unera arte borrokatu ostean, bigarren gelditu zen; lan ikaragarria. Podiumean Javi Mateos txapeladunak eta Gerard Saltor hirugarrenak lagundu zioten. Berritasuna, baina, emakumezkoen sailkapena izan da aurten,

eta lehenengoa Sanhoy Beltrane, Maria Orregok eta Wendy Dayan Patiñok osatu zuten.

Kaleak, beste behin, beteta


Herritar eta jende ugari batu izan du Kantoikritek urtetik urtera, eta aurten ere euriak ez zuten inor kikildu; lepo bete ziren herriko kaleak. "Proba polita izaten da ikusteko. Nahiz eta hasieran euriarekin jendea ezkutatu egin den, ondoren kaleak bete egin dira eta ikuskizun politarekin gozatzeko aukera izan dute", adierazi zuen Iñigo Idigorasek.



ALOÑA MENDIREN MENDI SAILA

Mendi sailekoak, Pirinioetan

Aloña Mendiren mendi sailak Pirinioetara irteera antolatu zuten joan den astebururako. Hogei bat lagunek parte hartu zuten irteeran eta asteburu borobila izan zuten. Lehen egunean Artiestik Restanca aterperaino egin zuten bidea. Bigarrean, berriz, aterpean hasi eta Montardo mendia igo zuten, berriz Artiesera jaitsi eta etxera buelta egin aurretik.



19. UDAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA *egin klik!*



Kuba | Argazkia: Olaia Otero Aiausti



Esne Bidea Rinlo gainean (Galizia) | Argazkia: Mikel Lasa Murguizu



Contis (Landak) | Argazkia: Juan Luis Zabala



Kurtzetxiki, goizean | Argazkia: Unai Elorza



Argazki guztiak kanal berezi honetan: <https://labur.eus/udakoargazkiak-2023>

MARTXAN DA!

Goienaren Udako Argazkien
Lehiaketa abian da! Nondik nora
ibiliko zara aurten? Hurbil geldituko
zara ala urrutira joango zara?

Argazkiak posta elektronikoz
(argazkiak@goiena.eus) edo Whatsapp/Telegram
bidez (688 69 00 07) bidal ditzakezu; uztailaren
14tik irailaren 18ra arte –biak barne–.

Sariak

Zu ikusi nahi zaitugu; nondik nora ibili zara?

Bidali zure argazkiak Goienara eta sari hauetako bat
irabazteko aukera izango duzu:

- 1. saria:** Arrasateko eta Bergarako Halcon Bidaiei esker, Kantabrian gau bat eta gosaria bi lagunendako.
- 2. saria:** Arrasateko Eroski hipermerkatuari esker, eskuko telefono bat: Samsung Galaxy A14, 128 GB.
- 3. saria:** Gure Ametsa jatetxean bi pertsonarentzako afaria edo bazkaria.

Gainera, **publikoaren saria** ere izango dugu, **Bergarako Ereindajan**-en eskutik: bertako eta kalitatezko produktuen saski ederra.

Oinarriak

- Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira: -Egilearen izen-abizenak. -Harremanetarako telefonoa eta posta elektronikoa. -Debagoieneko zein herritakoa den edo zeinetan bizi den egilea -Argazkia non ateratakoa den.
- Argazkiak eta datu GUZTIAK posta elektronikoz (argazkiak@goiena.eus) edo Whatsapp/Telegram (688 69 00 07) bidez bidali daitezke.
- Argazkiak bidaltzeko epea: uztailaren 14tik irailaren 18ra arte (biak barne).
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Debagoienean jaio edo bizi den orok parte hartu ahal izango du.
- 16 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiok (sare sozialak salbu).
- Argazkiak koloretan zein zuri-beltzean izan daitezke.
- Argazkiek originalak izan beharko dute.
- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.
- Hiru sari nagusiak Goiena Komunikazio Taldeko kideek osatutako epaimahaiak aukeratuko ditu. Argazkiaren kalitatea eta originaltasuna hartuko dituzte kontuan.
- Irailaren 22tik 27ra Publikoaren Saria aukeratzeko epea zabalduko da. Lehiaketan parte hartu duten argazki guztien artean aukeratuko da Publikoaren Saria, bozketa bidez.
- Irabazleak nortzuk diren irailaren 29an emango da aditzera, GOIENA aldizkarian eta Goiena.eus-en.
- Saria jasotzeko, irabazleei eskatuko zaie lehiaketaren babesleekin argazki bat ateratzeko.
- Argazkiak Goienaren hainbat euskarritan argitara daitezke: Goiena.eus atarian, GOIENA aldizkarian, *Puntua* aldizkarian, telebistan eta sare sozialetan.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez badago, Goienak aukeraketa egingo du, egokien iruditzen zaizkion irizpideen arabera.
- Jasotako argazkiak Goienaren artxiboan gordeko dira, eta, aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adieraziko da.

Oinarriak eta lege oharra osorik: <https://labur.eus/oinarriak-2023>

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

EROSKI
ARRASATE

GURE AMETSA
Restaurante • Jatetxea

BERGARA
EREIN
DA
JAN

Halcon BIDAIAK
ARRASATE BERGARA

Xabier Urzelai BERGARA

Bost urtez Ondarroako Arraun Taldean jardun eta gero, Nerea Agirrezabalek (Bergara, 1994) trainerutik jaisteko erabakia hartu zuen iaz. Baina... bizitzaren paradoxak: ez zuen itsasotik urruntzeko tarte handirik izan, Euskotren ligan diharduen Tolosaldeako arduradunen deia jaso zuen-eta segituan. Eta maila gorenera salto egiteko aukerari ezin izan zion ezetz esan. Ez hori bakarrik: inork espero ez zuen liga hasiera egiten dabil Tolosaldea, bost estropada egin eta gero –Coruñako estropada bat bertan behera geratu zen– hirugarren daude-eta sailkapenean, Donostia Arraun Lagunak eta Orioren atzetik.

Arrauna alde batera uzteko erabakia hartetik maila gorenera salto egitera pasa zara. Zer moduz?

Ondo, oso ondo. Urte askoan Ondarroan egon naiz, beheargoko mailan, eta, han ere gogor eta serio entrenatzen baginen ere, akaso, orain konpromiso eta zorroztasun gehiago eskatzen duen kategoriara pasa naiz. Eta exijentzia maila ere handiagoa da.

Uztailen hasi zenuten Euskotren liga, Galizian. Eta, irailera arte ez duzue atsedenik hartuko.

Hala da; Kontxako Banderara arte ia astebururo izango ditugu estropadak. Uda sasoi beteaz izaten dugu guk, eta ohituta gaude horretara.

Eta zer sentitzen da ligako oilarren artean zaudetela ikusita? Izan ere, oraindik ez duzue estropadarik irabazi, baina hirugarren zaudete.

Egia da ez genuela halakorik espero, ez guk eta ez inork. Oso gogor ibili gara entrenatzen, eta entrenatzaileak ere horixe aitortu digu. Eta oso garbi dugu hor egon nahi dugula, baina Coruñan jokatuak lehenengo estropadan bigarren geratu ginen... ezustea hartu genuen denok. Egia da sekulako parekotasuna dagoela Euskotren ligan, talde asko gaude segundo gutxiko tartean eta estropada bakoitzean detaile bakoitza erabakigarria da. Akats txikiena garesti ordaintzen da hemen, eta konturatu orduko zortzigarren postura joaten zara.

Domekan Oriok etxean irabazi zuen, eta hirugarren izan zineten zuek, hamar segundora.

Hamar segundo asko dira, baina ez dira horrenbeste. Hau da, Oriok etxean jokatzen zuen, eta



Nerea Arrizabalaga, taldekideekin, Orioko estropadan. EUSKOTREN LIGA / AITOR ARRIZABALAGA

"Inork ere ez zuen espero gu hain aurrean ikustea"

NEREA AGIRREZABAL TOLOSALDEA ARRAUN KLUBEKO ARRAUNLARIA

ARRAUNA laz erretiroa hartu zuen bergararrak, baina Tolosaldeak fitxatu eta Euskotren ligan hirugarren postuan daude. Kontxako Banderarekin egiten du amets

guk lehenengo txandan hartu genuen esku. Gure txandan bigarrenari 30 segundo atera genizkion; alegia, erlojuaren kontrako proba bat egin genuen, baina erreferentziarik gabe. Orio ondoan izan bagenu non egongo ginatkeen... ez dago jakiterik.

Posible ikusten duzue bandera bat irabaztea?

Ez dugu denboraldi hasieran bezain urrun ikusten. Tolosaldeak bi urte daramatza Euskotren ligan, eta oraindik ez dugu inoiz banderarik irabazi; historia izango litzateke klubaren-

dako. Garaipena oso garesti dago, baina egia da, baita ere, orain arte bandera irabazi duten horiei estropadaren batean irabazi egin diegula guk ere. Zorte apur bat ere behar da, kale egokia izatea, luze onak egitea...

Ze bandera irabazi nahiko zenuke? Kontxakoa, zalantza barik. Baina Euskotren liga barruan edozein esango nizuke, hor ez daukat preferentziarik.

Debagoiendar bat Kontxako Banderaren lehian ikusi ahal izango dugu aurten?

[Barreak] Egia da badudala arantza hori sartuta; alegia, Onda-

roarekin behin baino gehiagotan egon ginen Kontxako Banderarako sailkatzeko puntuan, baina segundo gutxigatik ez dugu lortu izan –2021ean bi segundoko aldegatik geratu zen Ondarroa Cikautxo kanpoan–. Kontxako Bandera zortzi traineruk jokatzen dute, baina bat Donostiarra da, etxeokoz zuzen sartzen direlako finalera. Horrenbestez, zazpi onenen artean egon behar duzu, eta, esan moduan, atarian egon ginen behin baino gehiagotan. Eta orain bai, Tolosaldearekin berez tokatzen da Kontxako Banderan egotea,

baina berriro esango dut: akats txikiena oso garesti ordaintzen da hemen; horrenbestez, ligan aurrean egoteko moduan Kontxan egoteko ere oso ondo egin beharko ditugu gauzak. Hemen inork ez du ezer oparitzen.

Beste baliabide batzuekin lan egiten denean presioak ere gora egiten du? Beste exijentzia maila bat duzue?

Berez, hala beharko luke, baina guk ez dugu halakorik sentitzen, berez ez garelako faboritoak; ez zuten espero gu hor egotea. Aurten helburua *play-off*-etan egotea da, horretarako gabilta lanean, eta, oraingoan, bide onetik goaz. Baina bai, azken estropada hauetako emaitzak ikusita, gure lehenengo garaipenarekin amesten ere hasita gaude.

Play-off horiekin amaituko da liga...

Bai; Kontxako Bandera ostean jokatzen dira *play-off* horiek. Berez, hara sailkatzen ez direnek Kontxako Banderarekin amaitzen dute denboraldia, eta ligako lau talde onenak *play-off*-etarako sailkatzen dira [Play-off-etako lehenengo jardunaldia Bermeon jokatuko dute irailaren 16an, eta irailaren 17an Portugaleten]. **Bitxia da Tolosa moduko herri batek, kostaldekoa izan gabe, arraun taldea izatea... Zelan eta non entrenatzen zarete?**

[Barreak] Askok galdetzen diguten gauza bat da hori. Esango nuke Tolosan [Oria errekan] batelak soilik entrenatzen direla. Guk trainerillak eta trainerua egin ditugu aurten, eta trainerua San Pedroko klubaren lokalean gordetzen dugu, Pasaian. Hala, entrenamendu bakoitza egiteko, lehenengo, Tolosan elkartzeko gara; hara autoz joaten gara kanpokoak garenok eta han pare bat furgonetan sartzen gara Pasaiara joateko. Hala, entrenamenduak Pasaiako portutik kostaldera bitarteko tartean egiten ditugu. Lan kontuengatik denboraz justu banabil zuzen joaten naiz Pasaiara; bestela, Tolosan elkartzeko naiz taldekideekin.

Joan-etorri asko dira horiek; apustu pertsonala ere hor dago.

Bai, eta hori da gogorrena. Bergaran halakorik izango bagenu, pentsa ze erraza izango litzatekeen... Lanetik irteten, motxila hartu eta zuzen entrenatzera. Baina bai, joan-etorri asko egin behar izaten ditut eta nekagarria egiten da. Neguan, esaterako,

aste barruko lana sikuan egiten dugu, gimnasioan, eta lan hori bai egiten dut Bergaran. Eta asteburuan joaten gara uretara, egubakoitz eta zapatuetan. Urtarrilean domeketan ere hasten gara uretan entrenatzen, eta hilabeteak aurrera joan ahala handitzen joaten dira uretan egiten ditugun saio kopuruak. Sasoi honetan, esaterako, egunero joaten gara uretara. Lehenengo, bestelako ariketak egiten ditugu, sikuan: korrika, pisuak... Entrenatzaileak agintzen duena. Eta ondoren joaten gara uretara. Eta entrenamenduetan ikusten duenaren arabera aukeratzen du talde titularra.

Hamalau lagun izaten zarete traineru barruan. Eta taldean zenbat zarete, guztira?

Hemeretzi gara.

Horrek esan nahi du estropada bakoitzean bost lagun kanpoan geratzen direla.

Halaxe da. Orain, asteburu bakoitzean bi estropada izaten

"KONTXAKO BANDERAN EGON NAHI DUT AURTEN"

"EZ DUGU PRESIORIK, EZ GARA LIGARAKO FAVORITOAK"

"PASAIARA JOATEN GARA EGUNERO ENTRENATZERA"

ditugu, eta entrenatzaileak aldaketak egiteko baliatuko du hori, jendeari atsedena emateko. Egia da orain arte ez duela aldaketa handirik egin, eta, zorionez, talde titularrean izan naiz, baina etorriko dira aldaketa horiek, bai. Gero, kontuan izan behar da arraunlari batzuk abarrekoko direla eta beste batzuk istriborrekoak. Traineruaren alde bakoitzean egoten ikasi egin behar da; palada ezberdina da. Hala, estropadaren egunera arte ez dugu jakiten estropada horretan ze taldekideek hartuko duten esku; momentuan esaten digute.

Zuendako zein izaten da etxean jokatzen duzuen estropada?

Pasaiakoa. Egia da Euskotren ligan ez dugula han estropadarik, baina, esaterako, martxoan jaitsierak jokatzen ditugunean Pasaian bai izaten dugu estropada bat. Hala, gizezkoetan San Pedro izaten da etxeko trainerua eta emakumezkoetan Tolosaldea da etxekoa, San Pedoren barruan gaudelako.

Euskotren ligan bi favorito aukeratu beharko bazenu... noren alde egingo zenuke apustu?

Gure alde! [Barreak]. Bada, ez daukat batere garbi. Arraun, Orio, Donostia... Horiek dira orain aurrealdean dabilen taldeak, baina ez dakit bat aukeratzeko.

Asteburuan atsedena duzue. Bestelako planik bai?

Entrenatzea [Barreak]. Hemen ez dago atsedunik; zapatu eta domeka goizean entrenamenduak izango ditugu Pasaian.



Ainara Urrutia, iazko lehenengo edizioan, Duranako helmugan txaloak jasotzen. GOIENA

Ikazkin Trail proba: bigarrena, irailaren 9an

MENDI LASTERKETA Iazko estreinaldiaren ostean, iraileko bigarren asteburuan egingo dute Aretxabaletan Ikazkin Trail lasterketaren bigarren edizioa. Parte-hartzaileek 21 kilometroko luzera eta 1.200 metroko desnibela duen ibilbidea egin beharko dute

X.U. ARETXABALETA

Dortsala soinean eramaten duten ikazkinak bigarren urtez joan ahal izango dira Basobeltzera, garai bateko beharginek egiten zuten moduan, ikatz bila. Izan ere, irailaren 9an egingo dute Ikazkin Trail probaren bigarren edizioa, eta horrek esan gura du batek baino gehiagok abuztuan jatekoak eta edatekoak apur bat zaindu egin beharko dituela, eta hondartzan etzanda bai, baina kirola ere egin beharko duela.

Izen-ematea dagoeneko zabalik dago Rockthesport-eko webgunean -25 euro-, eta, guztira, 300 lagunendako tokia izango da -dagoeneko 80 lagunek eman dute izena-. Bada, UDAko ordezkariak

martitzeneko prentsurrekoan eman zituzten lasterketaren xehetasunak. Horretarako, iazko irabazlea gonbidatu zuten, nazioartean aurten ere nabarmentzeko moduko denboraldia egiten dabilen Ainara Urrutia: "Bai, prestatuta etortzea komeni da, baina hori betikoa da; norberak daukan helburuaren eta jarraitu nahi duen erritmoaren arabera ere bada hori. Lasterketak berak denetik du; maratoni erdi exijente samarra dela esango nuke, tarte batzuetan malda politak dituelako. Eta gero, jaitsiera politak ditu, eta baita korrika egiteko tartek ere. Eta ibilbidea lasai egin nahi duenak ere gozatu ederra har-

tuko du, paraje ederrak zeharkatzen direlako. Anima dadila jendea".

Bidea ezagutzeko, topaketa

Bihar, uztailak 22, topaketa egingo dute, xehetasunak bertatik bertara ikusteko -09:30, Urkuluko iturria-. "Helburua da bidea ezagutzeko eta, neurri handian, jendeak izan ditzakeen beldurrak uxatzeko irteera egitea", adierazi dute antolatzaileek -topaketan izena emateko, Instagramen Ikazkin Trailek duen kontuan-. Antolatzaileek esan dute lasterketaren egunean boluntario lanak egin gura dituztenak besoak zabalik hartuko dituztela.

Calbano, Ruiz de Azua eta Axpe, Torrentera uztailaren 28an

ATLETISMOA Valentzian egingo duten Espainiako Txapelketa absolutuan izango dira ibarreko hiru atletak

X.U. ARRASATE

Malen Ruiz de Azua, Maialen Axpe eta Andoni Calbano Espainiako Txapelketa absolutuan izango dira uztailaren 28tik 30era bitartean. Pertika-saltoan Ruiz de Azua da aurten marka onena

egin duena, 4,43koa egin zuen Bordelen urtarrilean, baina Arrasatekoa min hartuta ibili da azken hilabeteotan, eta aire zabaleko prestaketa goitik behera baldintzatu dioten arazo fisiokoak izan ditu. Hala, joan den

astean Espainiako Lurraldeko Txapelketan bigarren egin zuen. Maialen Axpe, berriz, maiatz amaieran Manresan egingako 4,40ekoarekin aurkeztuko da txapelketara.

Eta hirugarren ordezkaria Bergarako Andoni Calbano da; hain zuzen, duela hiru aste 200 metroko distantzian euskal atleta azkarrena bilakatu zena. Calbanok 20.77ko marka egin zuen Anoetan; oraingoz, Espainiakorako urteko hirugarren marka onena da.



Nerea Agirrezabal, ezkerrean, Tolosaldeako traineruan, taldekideekin batera. JOSU Z.

"Nire ibilbide artistikoa markatuko du kantua"

AIERT MUSIKARIA

Urtarrilean Danbaka Musika Lehiaketako Publikoaren Saria irabazita, 'Omen ala behar' kantua eta bideoklipa estreinatuko ditu Oñatiko musikariak uztailaren 27an

Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Abao Komunikazio Agentziaren eskutik grabatu du orain arteko abestiak baino "elektronikoagoa" den kantua bideoklipa.

Zure lehen bideoklip profesionala estreinatzeko atarian, ze sentsazio dituzu?

Urduritasun puntu bat dut, baina oso pozik nago emaitzarekin, sentsazio oso gozoak ditut.

Omen ala behar da bideokliperako aukeratu duzuna. Zeri buruzkoa?

Oinarrian barne gatazkak eta, orokorrean, gizartearen ikusten ditudan bestelako gai orokorraok dira nire kantuen oinarriak. *Omen ala behar* kantuan, bereziki, egiten ditugun gauzak guk nahi edo guk erabakita ala gizarteak edo daroagun bizimoduak inposatuta egiten ditugun kantatzen eta kantatzen dut.

Kantuan %100ean zeure burua aurkitu duzula diozu.

Nahiko autobiografikoa da, bai, hitzei dagokionez, eta musikaliki ere identifikatuta sentitu naizen abestia da.

Formatu akustikoan ezagutu zintugun, baina elektronikora egin duzu salto orain.

Kantu honekin beste forma bat hartu du, baina, esentzian, nire-nirea da; hala ere, aurrerantzean nire ibilbide artistikoa markatuko duela esango nuke.



Aiert, Oñatiko musikaria. IRINA ALVAREZ

Arrasateko Shot! estudioan grabatu nuen, martxoan, Iñaki Bengoarekin, eta hark nahastu du gero. Era berean, Zigor DZ izan da ekoizlea, hark sortu ditu oinarri elektronikoa.

Irudiei helduta, Elgetan eta Trebiñu inguruan grabatu dituzue. Zelako esperientzia izan da?

Ikaragarria! Ondo zainduta eta eroso sentitu naiz. Barruko planoak Elgetako Espaloian grabatu genituen, ekainean; kolore gorria da nabarmen protagonista. Paisaia lehorrera eramaten ninduen kantua, eta Trebiñu

inguruan dagoen meategi batzuetan grabatu genituen, orain dela aste batzuk, kanpoko planoak. Horietan kolore urdina edo hotzagoak dira nagusi.

Mimoz landu duzue, detaile txikiak ere aintzat hartuta.

Proiektu oso bat moduan ulertzen dut nik Aiert; musika estiloaz gainera, kontzeptu estetikoagoa edo zabalagoa, artistikoagoa, horrela ulertzen dut nik artea, eta hala egiten saiatu gara. Asko zaindu dut nire iruditegia; hau da, jantziak eta makillajea, kaleari dudana baino artistikoagoa,

akaso, baina identifikatzen eta eroso sentitzen naizena.

Musikari gaztea zara, baina diozu babestuta sentitu zarela.

Bai, duda barik, oso eskertuta nago ni moduko musikari hasiberri baten sinistuta jaso dudana laguntza handiagatik. Izen asko aipa nitzake; horien artean, Abaoko langileak, Shot! estudioa, La Furia musikaria, bideokliparen azala egin duen Itzal Zubillaga nire lehengusina...

Datorren egueneko gauerdian hasita sare sozialetan izango da ikusgai. Non aurkituko zaitugu?

Aiert izen artistikoarekin askotariko sare sozialetan izango duzue ikusgai; esaterako, YouTube, Instagramen, Spotifyn, Apple Musicen eta Tiktoken. Horrez gainera, *Goiena.eus* atarian ere bai.

Bideoklipa egiteko aukeraz gainera, zer gehiago eman dizu Danbaka Musika Lehiaketak?

Zentzu askotan igarri dut Danbakaren eragina. Jende gehiagorengana heltzeko aukera eman dit, eta Aiert proiektuarekiko interesa duela erakutsi didate askok. Kontzertuak eskaintzeko aukerari dagokionez ere eragin duela esango nuke; besteak beste, Otxandioko gaztetxera, Gasteizera eta beste areto batzuetara joateko aukera izan dut urtariletik hona.

Datozen astei begira, baduzu emandiren bat lotuta?

Ari naiz, bai, emandiri batzuk lotzen; esaterako, uztailaren 27an Elorrioren izango naiz, pintxo-pote ekimenera gonbidatu naute eta.

Aurrera begira, bakarlari moduan ala talde formatuan ikusten duzu Aiert proiektua?

Bada, egia esanda, ez dut oraindik oso argi. Eztabaida dut neure buruarekin; beraz, ezin

dizut ezer argirik esan, oraingoz, ez daukat eta ezer zehatzik erabakita. Musikagintzan jarraitu gura dut eta bide berriak aztertzeko eta topatzeko gogoz nago; batzuetan asmatuko dut eta beste batzuetan, akaso, ez horrenbeste, baina bide eta aukera berriak probatzen jarraitu gura dut. Izan ere, gaizki egindako gauzetatik ere asko ikasten da, eta beharrezkoa da hori artista baten ibilbidean. Aiert berri bat jaio dela sentitzen dut, ea, bada, nora naraman bide horrek.

18 urte dituzu, batxilergo ikasketak bukatu berri; zein asmo duzu datorren ikasturteari begira?

Euskal Herriko Unibertsitatera joango naiz, eta gradu bikoitza egiteko asmoa dut: Soziologia, Gestio Publiko eta Zientzia Politikoak, hain justu.

Ikasturte luzea baina emankorra izan da zuretzako, ezta?

Duda barik; bereziki, azkeneko hilabeteak, eskolako lanak eta arlo musikalekoak batuta, oso lanpetuak eta intentsuak izan dira, baina oso politak.

Eta musikari profesional izatea duzu amets?

Ikusi egin behar nora naraman. Afizio edo ofizio moduan ez dakit, baina argi dut musikagintzan aurrera egin gura dudala, eta, alde horretatik, lasai nago; beraz, etorri behar dena etorriko da. Harro eta pozik nago orain arte egindako ibilbidearekin, eta hala jarraitu nahiko nuke.

"OSO ESKERTUTA NAGO JASOTAKO LAGUNTZAREKIN, MUSIKARI HASIBERRIA IZANDA"

ABUZTUAN ZABALIK!

ABUZTUKO OPORRETAN ERE GERTUKO INFORMAZIOA ESKAINIKO DIZUEGU GOIENA TELEBISTAN, 'GOIENA.EUS' ATARIAN ETA 'GOIENA' APLIKAZIOAN.



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA



goiena
Zu hemen zaude.



Daniel Nespereira, Zihara Etzebarria, Nagore Osa eta Ariana Nespereira zinemagileak. PERYFERYKA

Zinemagile nerabeen film labor profesionalak

'El color del engaño' film laburra estreinatu berri du Debagoieneko lau gaztek osatzen duten Peryferyka ekoiztetxeak; Youtuben duten 'Peryferyka Producciones' kanalean dago ikusgai, eta baita aurrez egindako bi ikus-entzunezkoak ere

A. Aranburuzabala ARRASATE

Arrasateko Doke Antzerki Eskolan ezagutu zuten elkar Ariana Nespereirak, Zihara Etzebarria eta Nagore Osa; ikus-entzunezkoekiko duten zaletasunak bultzatuta elkartu, eta hala egin zuten, Daniel Nespereira talde-erata, urtarrilean *Erbestean* film laburra. Harrezkero beste bi lan gehiago argitaratu dituzte: *Post mortem* izenekoa maiztzean eta uztailearen 14an estreinatu zuten *El Color del engaño*.

'El color del engaño'

Ekainaren 16an eta 17an grabatu zuen nerabe-laukoteak, Arrasateko Ilea apaindegian, "aurreko lanak baino komikoa-

goa" den film laburra. "Laura, Raquel eta Cristina ile-apaintzaileak dira istorio zoro horretako protagonistak; hilketa bat tarteko, askotariko abenturak biziko dituztenak. Guretaiko ikasketa-prozesu aberasgarria da egin dugun lan bakoitza; izan ere, guk egiten dugu prozesu osoa: gidoia idatzi, grabatu, muntaia eta zabalkundea. Lan batetik bestera pauso bat harago ematea da gure asmoa, eta esango genuke lortu dugula. Taldekideoz gainera, Mariasun Pagoaga, Amaia Abarrategi eta Juan Dugarte dira hamar minutu irauten duen *El color del engaño* filmeko aktoreak", azaldu du Ariana Nespereirak.

Peryferyka ekoiztetxea

Zinemagintzan lan egitea du laukoteak etorkizunerako amets, eta ausardiaz eta jakinduriarazi dira bidea egiten; horren erakusle da sortu duten Peryferyka ekoiztetxea. "Lan guztiak batzeko sinadura bat behar genuen, eta, gurasoen babesa badugu ere, gure inizatibaz sortu genuen ekoiztetxea. Youtuben *Peryferyka* kanala dugu, eta han daude hiru filmak ikusgai. Horrez gainera, gaur, egubakoitza, *El color del engaño* lanari buruzko podcasta estreinatuko dugu. Dagoeneko laugarren gidoia prestatzen ari gara; euskaraz izango da eta urrian grabatzeko asmoa dugu".

'Hazia' musikala, "formatu modernoan" eskuragarri

Arrasateko Esperientzia Kooperatiboaren sortzaileari buruzko musikalaren askotariko erpinak batzen ditu

A.A. ARRASATE

Arizmendiarraren Lagunak Elkarteak eta Gontzal Mendibil musikariak, Arrasateko Udalaren babesarekin, sortu zuen *Hazia* musikala, eta 2022ko irailaren 17an estreinatu zuten

Arrasaten; harrezkero, sei emandaldi "arrakastatsu" eskaini zituzten askotariko aretoetan.

Antzerkia, musika, dantza eta bestelako osagarri gehiago uzartu zituen *Hazia* musikala "beste modu baten gozatzeko"

aukera eskaini du orain Arizmendiarraren Lagunak elkar-teak, argitaratu berri duen musikalaren *pack*-arekin. "Euskarazko eta gaztelarazko bertsiok dira, eta musikaleko eszenak, abestiak eta Arriaga antzokian egindako zuzeneko grabazioa jasotzen ditu sortak".

40 eurotan, salgai

Sorta eskuratu gura izanez gero, idatzi *Amigos.jma.lagunak@mondragon.edu* helbidera edo deitu 674 04 15 90 zenbakira.

Goienakideen txokoa

UZTAILEKO SARIAK

TD Telebista (32')

Parte hartzeko sariaren izena: telebista

EROSKI
ARRASATE

Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ
GRATIKO SARRAK

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harremandenda.org
Bidezko Merkataritzako produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE
"sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzearen artean egingo da zozketa. Inbentarioaren inguruan 06/11/1999 legearen arabera, jantzi-eremuak zuzen erabiltzeko eta funtzionaltasunaren aldetik ez dagoen baten erabilera. Baita baita horien helburu, balena da inbentarioaren inguruan erabiltzeko. Erabiltzeko gidoia irakurri behar da. Erabiltzeko gidoia irakurri behar da. Erabiltzeko gidoia irakurri behar da. Erabiltzeko gidoia irakurri behar da.

Irabazi bi lagunendako otordua

SANTA ANA JATETXEARI ESKER

Begiratu *Puntua* aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte!
Parte hartzeko azken eguna: uztailek 25

☎ 043 25 05 05 ✉ goienakide@goiena.eus 📱 "Goiena app"-a / zozketa atalean.

📞 GOIENAKIDE Jatetxea
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailez gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA: 45€
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Hiru logelako etxebizitza behar dut errentan. Arduratsua gara, lan kontratuarekin eta erreferentzia onekin. 612 51 42 99

Arrasate. Hiru ume eta bi helduk osatutako familia bat gara eta hiruro logelako etxebizitza behar dugu. 633 68 35 76

Arrasate. Hiru kideko familiak etxebizitza behar du errentan, gaur egungo etxea saltzera doazelako. Lanarekin. 663 46 66 73

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Etxeren baten egun osoz lan egiten duen emakume batendako logela daukat errentan emateko. 632 83 32 44

4. LANA

402. ESKAERA

Arrasate. Asteburuetan edo gauean garbiketan zein nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Telefonoa: 632 83 32 44

Arrasate. Bi logelako etxebizitza behar dugu errentan hartzeko. Telefonoa: 698 42 33 43

Arrasate. Martitzen eta eguenean garbiketan edota nagusiak zaintzen aritzeko gertu nago. Soziosanitario agiria daukat. 632 91 23 61

Arrasate. Mutil gazte gertu arratsaldetan edo asteburuetan lan egiteko. Zerbitzari, garbitzaile, zaintzaile edota pintore laguntzaile. 722 51 53 75

Arrasate. Neska arduratsua garbiketarak egiteko gertu. Orduetegi malgua. 631 25 26 67

Arrasate. Umeak edo ospitalean dauden gaitxoak zaintzen lan egingo nuke. 688 76 12 18

Arrasaten eta inguruan. Asteazken orduka eta asteburuan lan egingo nuke zaintzan eta garbiketan. 658 95 79 51

Bergara. Animaliak zaintzeko prest, opor sasoiaren pasean atera eta jana ematen. 696 84 19 51

Debagoiena. Orduka lan egingo nuke nagusiak zaintzen; goizez edo arratsalde. 699 66 33 63

Debagoiena. Asteazken zehar arratsaldetan eta asteburuan egun osoz lan egiteko gertu nago. 656 79 28 37 (Eider)

Debagoiena. Asteburuetan, orduka, lan egingo nuke nagusiak zaintzen edota garbiketan. Soziosanitario titulazioa daukat. 632 34 22 25

Debagoiena. Emakumea gertu etxeko langile moduan, garbiketan edota nagusiak zaintzen lan egiteko. Deitu 632 19 08 26 telefonora.

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten pertsona nagusiak zaintzeko prest. 614 36 45 32

Debagoiena. Garbiketan eta pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Orduka edota asteburuetan. 612 56 12 39

Debagoiena. Goizetan, 15:00ak arte, lan egingo nuke ostalaritzan, nagusiak zaintzen edota garbiketan. Bidali Whatsapp mezua zerbaki honetara: +351 932 35 22 77

Debagoiena. Lanean hasteko gertu nago erailkuntzan edo margolari lanetan. 631 60 13 62

Debagoiena. Legezko agiriak eta soziosanitario ziurtagiria dituen emakumea lan bila. 677 00 90 26 edo 632 76 59 52

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko gertu, etxean bertan bizi izaten zein orduka. 643 29 75 77

Debagoiena. Nagusiak zaintzen eta garbiketarak egiteko prest. 632 63 77 38

Debagoiena. Neska arduratsua lanerako gertu: nagusiak zaintzen, garbiketan, sukalde laguntzaile edota frutategian. Deitu 643 09 07 47 telefono zenbakira.

Debagoiena. Neska gaztea lanerako gertu. Nagusiak eta umeak zaintzen eta etxeko garbitzen esperientziaduna. Telefonoa: 672 78 04 30

Debagoiena. Lan egingo nuke, zaintzan, zerbitzari, garbiketa, harrera, edo justu laguntzaile moduan. 612 55 95 93

Debagoiena. Orduka lan egingo nuke garbiketan eta nagusiak zaintzen. 691 28 53 25

Debagoiena. Pertsona arduratsua gertu nagusiak zaintzeko edota

etxeko garbitzeko. Telefonoa: 631 79 87 75

Debagoiena. Soziosanitario agiria duen emakumea lanerako gertu. Orduetegi aukera guztiak. 605 28 85 92

Debagoiena. Sukalde laguntzaile, garbitzeetan, hoteleko langile moduan edota denetariako garbiketarak egiteko prest. Telefonoa: 688 71 08 09

Debagoiena. Zaintza eta garbiketa lanak egingo nituzke, baita etxean bertan bizi izaten ere. Esperientzia dut. Telefonoa: 666 49 37 17

Debagoiena. Zaintza eta garbiketa lanak egingo nituzke, bertan bizi izaten edo orduka. 613 77 18 56 edo 605 28 85 92

Debagoiena. Zapatu eta domekatan, eta abuztuan egunero, zaintza lanak egiteko gertu nago. Telefonoa: 642 49 94 09

Korosti
inmobiliaria

Bergara: Eskuarte,
79m², 3 logela,
igogailua, garajea,
trastelekua.
la berria.
190.000€

Bergara: Burdiñate,
65m², 2 logela,
igogailua,
trastelekua,
bizitzera sartzeko.
175.000€

Bergara: Ernai,
60m², gela 1,
trastelekua,
terraza, bizitzera
sartzeko.
166.000€

Ibargarai 3 BERGARA
Tel.: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

Informazio
gehiago:



IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarriak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarria bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarrien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ZORION AGURRAK



ARAMAIO
Irati
Garaitonandia Martelo
15ean, 14 urte. Zorionak, Irati! Patxo handi bat etxeko eta familia osoaren partetik!



ONATI
Lea Perez
Romaratezabala
Uztailaren 27an, 3 urte. Zorionak, politt hori! Egun ederra pasau! Askok maitte du!



BERGARA
Ekhi Manzanedo
San Martin
23an, 5 urte. Zorionak, maixbia! Egun eder-ederra pasau eta patxo handi bat etxekuen partetik.



ONATI
Oier Sanchez Gomez
Uztailaren 21ean, 14 urte. Zorionak, Oier! Oso ondo pasa zure eguna. Zelako haundia egin zaren, nire bihotza. Muxuak.



ARAMAIO
Nahikari Rivera
Garaitonandia
Uztailaren 18an, 4 urte. Zorionak, Nahikari! Patxo handi bat etxeko eta familia osoaren partetik!



BERGARA
Unax
Barrenetxea Gandra
3an, 10 urte. Zorionak, txapeldun! Ze haundi jada... Ospatu merezi dozun moduan!



ANTZUOLA
Amair
Iparragirre
Etxeberría
26an, 3 urte. Zorionak, pitxin! Hiru urtetxo! Patxo potolo bat danon partetik!



BERGARA
Oier Gantxegi
Gallastegi
23an, 10 urte. Zorionak, Oier! Primeran ospatu zure eguna. Muxu asko etxeko guztien partetik.



ONATI
Iban Guridi Diaz
Uztailaren 21ean, 15 urte. Zorionak, asko maite zaitugun ama eta aitaren partetik zorionak.



ONATI
Kattalin
Zubuzbiskar
Lizarra
Uztailaren 17an, 2 urte. Zorionak, maixbia! Putz in fuerte kandelairi! Askok gura zau! Mua!



ARRASATE
Amaia Garcia
Zumalde
12 urte. Zorionak, Amaia. Oso ondo pasa zure eguna, printzesa! Askok maite zaitugu. Besarkada handi bat.



BERGARA
Izar Goikoetxea
Makazaga
Uztailaren 26an, 6 urte. Zorionak, politx hori! Egun politx-politxa pasau familia eta lagunekin. Patxo handi bat.



ARRASATE
Jon Martinez
Canas
23an, 7 urte. Zorionak, Jontxu! 7 urte gure artean zoriontasuna ematen. Jarraitu horrela, maixbia!



ONATI
Larraitz
Aranburu
Zabaleta
21ean, 2 urte. Zorionak, polit hori! Segi halako alaia izaten. Patxo potolo bat!



BERGARA
Adei Ernabide
Sebal
Uztailaren 17an, 4 urte. Etxeko txikiak jada lau urte. Zorionak, 'pitxito'! Ondo ospatu, familia eta laguntzekin.



BERGARA/ELGETA
Koldo Irizar
Beistegi eta
Haritz Gillegi
8 urte, 29an. Zorionak! Ondo pasa eguna!



ESKORIATZA
Oskar Manex
Maturana Sheen
Uztailaren 25ean, 11 urte. Zorionak zure familixaren partetik!



ONATI
Laia Umerez
Eceolaza
22an, 9 urte. Zorionak, Laia! Askok maite zaitugu. Segi horrelakoa izaten. Besarkada bat lizeiren partetik.



ARRASATE
Jare Bergaretxe
Arkauz
19an, 8 urte. Zorionak, pitxin! Jada zortzi urtetxo! Muxu potolo bat danon partetik. Bereziki Hegoarena.



ONATI
Oxel Aranburu
Larrañaga
Uztailaren 19an, 4 urte. Zorionak Oxeltxo! Muxu potolo bat familixa danaren partetik. Disfrutau egunaz!



ARRASATE
Irati eta Marisa
Marisak uztailaren 24an, 45 urte eta Iratik 25ean, 12 urte. Zorionak, neskak! Oso ondo ospatu zuen egunak. Besarkada handi bat danon partetik!



ONATI
Iraia Leibar
Zumalde
27an, 7 urte. Zorionak, Iraia! Segi zaren moduko saltzera eta alaia izaten. Askok maite zaitugu.



ONATI
Noa Garcia
Albizu
24an, 5 urte. Zorionak, maixbia! Ondo pasau! Patxo potolo bat etxeko danon partetik. Izugarri maite zau!



ARAMAIO
Markel
Arrizabalaga
Gonzalez
22an, 8 urte. Zorionak, Markel! Etxeko danon ta bereziki Bajongo familixen partetik.



ONATI
Axel Asensio
Cabrera
19an, 4 urte. Zorionak maixbia! Topera ospatu zure eguna. Patxo asko! Dare, aitaixo eta amaxo.



ARRASATE
Juliana Roca
Montano
Uztailaren 22an, 20 urte. Zorionak, Juliana! Ederto ospatu eta besarkada handi bat familixaren partetik!



ARRASATE
Markel
Arambarri
Foronda
27an, 6 urte. Zorionak, Markel! Ederto ospatu eguna. Patxo handi bat, txapeldun!



ESKORIATZA
Juan Carlos
Kortazar
Uribesalgo
24an, 66 urte. Zorionak, Juan Carlos! Oso ondo pasau eguna eta besarkada handi bat!



ARRASATE
Leo Berezibar
Uztailaren 21ean, 10 urte. Zorionak, txapelduna! Zuretzat etorkizunik oparoena! Izan zu!



ANTZUOLA
Axel Asensio
Cabrera
19an, 4 urte. Zorionak maixbia! Topera ospatu zure eguna. Patxo asko! Dare, aitaixo eta amaxo.



ARRASATE
Juliana Roca
Montano
Uztailaren 22an, 20 urte. Zorionak, Juliana! Ederto ospatu eta besarkada handi bat familixaren partetik!

OROIGARRIA



**Ixiar
Unamuno Zabarte**

2023ko uztailaren 14an hil zen.



Beti izango zaittugu gure bihotzetan.

'Gure Ixi' taldeko lagunak.
Arrasaten, 2023ko uztailaren 21ean.

OROIGARRIA



**Ixiar
Unamuno Zabarte**

2023ko uztailaren 14an hil zen.



Beti pozik, beti laguntzeko prest. Gero arte, gure Ixi.

Santa Agedako lagunak.
Arrasaten, 2023ko uztailaren 21ean.

OROIGARRIA



**Ixiar
Unamuno Zabarte**

2023ko uztailaren 14an hil zen.



Mila muxukin be ezin eskertu zugandik jasotakua, Ixi.

Oporrerruak.
Arrasaten, 2023ko uztailaren 21ean.

BADESLEA

Oroilore

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

Guri deitu zuzenean edo, nahiago baduzene, jakinarazi zuen aragorri-koopariari gurekin nahi duzuela agurtu maite duzuenak.



Marioven, Ibanen eta Maribiren partetik, bezarkada magikoak zuzentzeko, bihotza sendatzeko balo dutes horietakoak. Guk baditugu gordena zuzentzeko, gure beharra duzuenenak.

Mario, Iban eta Maribi

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua ONATI • Tel.: 943 71 66 37

OROIGARRIA

**Mari Jose
Astaburuaga Aiestaran**

2023ko uztailaren 14an hil zen, 57 urte zituela.



Beti gurekin.


Txikipanda.
Arrasaten, 2023ko uztailaren 21ean.

OROIGARRIA



**M. Carmen
Urrutia Galdos**

Eskoriatzan hil zen, 2023ko uztailaren 15ean.



Gellako Txoko ederrien Iturben sortutakue famili giro onien bertan sustraitutakue, gazte-gaztetik lanien gogor aritutakue bizitza latza izan arren aurrera egindakue.

Baserri girue maitte itzela emandakue gorputzez arin, argala eta bihotz handikue, ahaztezina benetan zurekin bizitakue betirako bihotzien nire amapuntekue.

Zure besoetakuek.
Arrasaten, 2023ko uztailaren 21ean.

HILDAKOAK

- Esteban Barbero Sanchez.** Arrasaten, uztailaren 7an. 67 urte.
- M. Angeles Baena Amador.** Arrasaten, uztailaren 7an. 93 urte.
- Susana Mendizabal Agirre.** Oñatin, uztailaren 7an.
- Txomin Ezpeleta Urkia.** Arrasaten, uztailaren 8an. 90 urte.
- Valentin Ojanguren Ugarte.** Arrasaten, uztailaren 9an. 80 urte.
- Karmele Ruiz Ugarte.** Arrasaten, uztailaren 9an. 51 urte.
- Roman Guridi Aguirre.** Oñatin, uztailaren 9an. 97 urte.
- Miguel Zelaia Azkarate.** Bergaran, uztailaren 10ean. 68 urte.
- Maria del Carmen Herrero Montero.** Oñatin, uztailaren 10ean. 82 urte.
- Santos Mesonero Vicente.** Aretxabaletan, uztailaren 11n. 83 urte.
- Xabier Labaien Bergara.** Bergaran, uztailaren 11n. 59 urte.
- Ion Olaizola Aldabaldetrekue.** Aretxabaletan, uztailaren 12an. 71 urte.
- Mielanjel Ibabe Erostarbe.** Oñatin, uztailaren 12an.
- Mari Jose Astaburuaga Aiestaran.** Arrasaten, uztailaren 14an. 57 urte.
- Jose Luis Ayastuy Arrieta.** Arrasaten, uztailaren 14an. 84 urte.
- Ixiar Unamuno Zabarte.** Arrasaten, uztailaren 14an.
- Joxe Zeziaga Lazpiur.** Arrasaten, uztailaren 14an. 93 urte.
- Mari Carmen Ambroy Aranzabal.** Bergaran, uztailaren 14an. 92 urte.
- Luisa Quintas Gonzalez.** Bergaran, uztailaren 15ean. 91 urte.
- M. Carmen Urrutia Galdos.** Eskoriatzan, uztailaren 15ean. 88 urte.
- Jesusa Elejalde Elkorobarrutia.** Eskoriatzan, uztailaren 15ean. 92 urte.
- Jose Maria Altuna Ondarza.** Oñatin, uztailaren 15ean. 96 urte.
- Maritxu Murgiondo Mugika.** Bergaran, uztailaren 17an. 87 urte.

URTEURRENA



**Kontxi
Martinez
Martinez**

2022ko uztailaren 29an utzi gintuen, 87 urte zituela.



*Beti gogoan, beti gurekin
Ama, Amama Kontxi*

Zure familia.
Arrasaten, 2023ko uztailaren 21ean.

URTEURRENA



**Jose Luis
Ezkurra Arregi**

2022ko uztailaren 19an agurtu gintuen, 79 urte zituela.



Gogo barnekoa izan da gure maitasuna heriotzak askatu ezingo duen lotura zu baizinen gure bizitza, gure argia eta poza zurekin elkartu arte aita, behar dugu zure laguntza.

Zure familia


Lehen urteurreneko meza uztailaren 23an izango da, igandean, 12:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Arrasaten, 2023ko uztailaren 21ean.

URTEURRENA

**Gorka
Galdos Goikoetxea**

2020ko uztailaren 27an hil zen, Mexikon.




*Gure artian jarraituko duzu betiko, Gorka.
Maitte zaitugu, GGG!!*

*K viva Mexiko...
Aurrera bolie!*


Zure lagunak.
Arrasaten, 2023ko uztailaren 21ean.

URTEURRENA



**Juan Anjel
Salegi Olazabal**

2022ko uztailaren 19an hil zen, 64 urte zituela.




Neguko ihintzean eta udako epelean oroitzen zaitugu.

Etxeokak.
Uberan, 2023ko uztailaren 21ean.

BERRI-ZAKUA

**Hermínia Juradok 102 urte**


Uztailaren 13an bete zituen. Familiak afari-merienda eginda ospatu zuen. Mezu honen bidez, Iturbide egoitzako langileek eta egoiliarrek prestatu zioten jai eta harekin duten tratua eskertu nahi diete.

**Ezkontza bihar**

Iker Nuñez bilbotarra eta Adriana Arenas arrasatearra bihar ezkonduko dira. "Zorionak, bikote! Egun bikaina pasatzea opa dizuegu. Askok maite zaituztegu. Zuen familiak".

**Urrezko ezteiak**

Juan Jose Orueta eta Maria Angeles Markuleta oñatiarrek gaur dute ospakizun eguna. "Zorionak, bikote! Urrezko ezteiak! Ondo pasa eguna. Patxo pila, familiakoen partetik".

**Urrezko ezteiak**

Agustina Reyes eta Antonio Sierra bergarrek hilaren 25ean dute ospakizun eguna. "Zorionak eta besarkada estu bat, familia osoaren partetik. Segi orain arte bezain zoriontsu izaten. Askok maite zaituztegu!".

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 21**ARETXABALETA Eskola Ibiltaria**

08:30ean, gosaria; 09:00etan, ibilaldia; 14:00etan, bazkaria; 16:30ean, *Prozesu sozialista eta ikasle langileon zeregina* hitzaldia; 19:00etan, Edu Zardoyaren kontzertu akustikoa; 21:00etan, afaria; eta, 22:30ean, gaubeila. *Aretxabaletan*.

OÑATI Madalenako jaiak

16:30ean, etxafuego jaurtiketa; 17:00etan, bizikleta ibilaldia; eta 22:30ean, Eztan Ilen, Erne eta Kontralde taldeak. *Santxolopeztegi auzoan*.

ARETXABALETA Zerendepya taldea

Aretxabaletako taldearen kontzertua, Urbaltz-ek gonbidatuta. *Mitarte plazan, 19:30ean*.

ARRASATE 'Los perros' dantza ikuskizuna

Led Silhouettes konpainiaren eskutik, Udazabal ekimenaren baitan. *Zaldibar frontoian, 20:00etan*.

BERGARA Santa Ana jaiak

20:00etan, txupinazoa eta Santanabxoren jaiatsiera; 20:15ean, buruhandiak; 20:30ean eta gauerdian, Azkaiter Pelox; eta 22:30ean, Good Vibes. *Bolan*.

BERGARA Family Folks taldea

Berumuga zikloaren baitan. *Espoloiaren, 22:00etan*.

ZAPATUA 22**BERGARA Semicup txapelketa**

Zazpigarren aldia egingo dute. Egun osoko txapelketa izango da. *Seminarioko patioan, 07:00etan*.

ARAMAIO Eskola Ibiltaria

09:00etan, gosaria; 10:00etan, *Ikasle antolakuntza eta etorkizuneko erronkak* hitzaldia; 12:00etan, ibilaldia; 14:00etan, bazkaria; 18:00etan, esku pilota partidua; 21:00etan, Baskibiltx taldearen kontzertua; 22:30ean,

ekitaldi politikoa; eta ostean, Youth United, Improbus eta DJ Mondongo. *Aramaion*.

OÑATI 'Gatzagintzaren sekretuak' bisita gidatua

Izena emateko: 943-78 28 94 edo arantzazu@gipuzkoanatura.eus. *Parketxean, 10:30ean*.

ARRASATE 'Arrasateko industria ondarea' bisita gidatua

Industrializazioa garaiko hainbat eraikin eta istorio ezagutzeko aukera. Izena emateko: *Arrasate.eus* edo 943-25 20 00. *Biteri plazan, 11:00etan*.

OÑATI 'Oñatiko altxorrak' bisita gidatua

Sancti Spiritus unibertsitatea eta parrokia ezagutzeko aukera paregabea. Izena emateko: 943-78 34 53 edo turismo@onati.eus. *Turismo Bulegoan, 13:00etan*.

OÑATI Madalenako jaiak

14:00etan, auzo-bazkaria; 17:00etan, mus txapelketa; eta, 22:30ean, Laizo Beltzak eta Zopilotes Txirriaos; eta ostean, Xaukena elektrotxaranga. *Santxolopeztegi auzoan*.

OÑATI Espeleotxiki abentura

6 urtetik gorakoendako. Izena emateko: 943-08 20 00 edo arrikruz@onati.eus. *Arrikruzten, 15:00etan*.

ARAMAIO Akelarre, 3 Kuervos, Expropiacion, El Exterminio De La Raza Del Mono, Tenso eta Sin Emu taldeak

Debalde. *Anboto tabernan, 18:00etan*.

DOMEKA 23**ARRASATE Murugaini bira**

10,4 kilometroko ibilbidea. Izena emateko: *Arrasate.eus* edo 943-25 20 00. *Herriko Plazan*.

OÑATI Madalenako jaiak

12:00etan, meza; 13:30ean, luntxa; eta 14:30ean, etxafuego jaurtiketa jaiak bukatzeko. *Santxolopeztegi auzoan*.

OÑATI 'Oñatiko altxorrak' bisita gidatua

Sancti Spiritus unibertsitatea eta parrokia ezagutzeko. Izena emateko: 943-78 34 53 edo turismo@onati.eus. *Turismo Bulegoan, 13:00etan*.

BERGARA 'Frontona' antzerki emanaldia

Kultura herrigunera eraman eta kulturarekiko interesa eragiteko asmoz sortutako ikuskizuna. Iñigo Otegi, Unai Ormaetxea eta Anne Maiza oholztan, besteak beste. *Boluko frontoian, 17:00etan*.

MARTITZENA 25**BERGARA Txistularien kalejira**

Basagoko Santiago jaien baitan. *Basalgon, 10:00etan*.

OÑATI 'Oñatiko altxorrak' bisita gidatua

Sancti Spiritus unibertsitatea eta parrokia ezagutzeko. Izena emateko: 943-78 34 53 edo turismo@onati.eus. *Turismo Bulegoan, 13:00etan*.

OÑATI Bingo-jokoa

Erretiratuendako. *Lagun Lekun, 17:00etan*.

EGUAZTENA 26**OÑATI 'Belar hostoak' diskoaren moldaketa emanaldia**

Txomin Artolaren izen bereko diskoaren moldaketa egin du haren seme Urbil Artolak. *Lazarraga lorategian, 19:00etan*.

EGUBAKOITZA 28**OÑATI 'Kakaoaren bidaia' bisita gidatua**

Izena emateko: 605 763 595 edo www.ruralgest.net. *Txokolateixan, 12:00etan*.

OÑATI 'Balea-txalupetatik txokolatera, historian zehar bidaia' bisita gidatua

Izena emateko: 943-78 34 53 edo www.ruralgest.net. *Protokoloen Artxiboan, 13:00etan*.



KONTRALDE

OÑATI Kontralde taldea

Arrasateko laukoteak *Erantzunen bila* diskoa aurkeztuko du Madalena jailetan. Ezten Ilen eta Erne taldeek ere joko dute. Debalde. *Gaur, egubakoitza, Oñatiko Santxolopeztegi auzoan, 22:30ean.*

ARAMAIO San Esteban jaiak

16:00etan, auzo-lana; 19:30ean, txupinazoa eta kanpai-jotzea; eta, 21:30ean, kantu eta bertso afaria. *Uribarri auzoan.*

BERGARA Sweet Marta & Johnny Bigstone bikotea

Marta Suñeren eta Johnny Pedrazaren emanaldia, Berumuga zirkloaren baitan. *Espoloiari, 22:00etan.*

ZAPATUA 29**ARRASATE 'Arrasate, hiribildu bizia' bisita gidatua**

Aukera paregabea ondare historiko kulturala eta bertako jaien eta ohituren kontakizunak ezagutzeko. Izena emateko: *Arrasate.eus* edo 943-25 20 00. *Biteri plazan, 11:00etan.*

ARAMAIO San Esteban jaiak

12:00etan, meza; 13:00etan, bolo txapelketa; 17:30ean, briska eta mus txapelketa; 18:00etan, umeendako jolasak; 21:00etan, *Zuk egin zuk jan* afaria; eta, 22:30ean Joseba B. Lenoirren eta Postigo maisuaren kontzertua. *Uribarrin.*

LEINTZ GATZAGA Bisita gidatuak Gatz Museoan

12:00etan euskaraz eta 13:00etan gazteleraz. Izena emateko deitu 943-71 47 92 telefonora edo idatzi: *reservas@gatzmuseoa.com. Gatz Museoan.*

OÑATI 'Oñatiko altzorrak' bisita gidatua

Sancti Spiritus unibertsitatea eta parrokia ezagutzeko aukera. Izena emateko: 943-78 34 53 edo *turismo@onati.eus. Turismo Bulegoan, 13:00etan.*

OÑATI Espeleotxiki abentura

6 urtetik gorakoendako. Izena emateko: 943-08 20 00 edo *arrikruz@onati.eus. Arrikruz kobak, Oñati 15:00etan*

DOMEKA 30**ARAMAIO San Esteban jaiak**

12:00etan, meza; eta, 12:30ean, mus eta briska txapelketetako finalak. *Uribarri auzoan.*

LEINTZ GATZAGA Bisita gidatuak Gatz Museoan

12:00etan euskaraz eta 13:00etan gazteleraz. Izena: 943-71 47 92 edo *reservas@gatzmuseoa.com. Gatz Museoan.*

OÑATI 'Oñatiko altzorrak' bisita gidatua

Sancti Spiritus unibertsitatea eta parrokia ezagutzeko aukera paregabea. Izena emateko: 943-78 34 53 edo *turismo@onati.eus. Turismo Bulegoan, 13:00etan.*

ARETXABALETA San Inazio Eguna

19:00etan, bolo txapelketa; eta 21:30ean, bertso afaria Onintza

Enbeitarekin eta Andoni Egañarekin. Afarian parte hartzeko izena emateko azken eguna uztailaren 23a da, *murualdelkartea@gmail.com*-era mezua bidalita. *Muru-Alde elkartearen.*

ASTELEHENA 31**ARETXABALETA Muru-Alde elkartearen jaiak**

Salda eta txorizo-pintxoak egongo dira San Inazio eguna ospatzeko, trikitilariak lagunduta. *Elkartearen, 12:00etan.*

OÑATI 'Oñatiko altzorrak' bisita gidatua

Sancti Spiritus unibertsitatea eta parrokia ezagutzeko aukera paregabea. Izena emateko: 943-78 34 53 edo *turismo@onati.eus. Turismo Bulegoan, 13:00etan.*

KRITIKA

El regreso de las golondrinas

Zuz.: Li Ruijun. Herr.: Txina (2022). Aktoreak: Renlin Wu, Hai Qing
Iraupena: 131 minutu. ★★★★★

Bi izaki bakartiren arteko amodio istorioa

ANTONIO ZABALA

El regreso de las golondrinas filmaren hasieran, emakume baten eta gizon baten familiak biltzen dira, adostutako ezkontza baten bitartez, haiengandik libratzeko asmoz. Bikoteak ez du elkar ezagutzen, biak isilik dira eta bizitzak kolpatutako pertsonaiak dira. Asto bat eta gurdi bat besterik ez dute euren gauzak eramateko. Ez dira oso komunikatiboak eta denbora beharko dute euren artean harremanak sendotzen joateko. Nekazaritza eta abeltzaintza dira euren ogibideak. Zuzendariak zehaztasunez eta presarik gabe euren bizitza nolakoa dena azaltzen digu. Bikotearen bizitzarekin batera, istorioak Txinako nekazarien bizi-baldintzak erakutsiko

MARTITZENA 1**OÑATI 'Kakaoaren bidaia' bisita gidatua**

Izena emateko: 605 76 35 95 edo *www.ruralgest.net. Txokolateixan, 12:00etan.*

OÑATI 'Balea-txalupetatik txokolatera, historian zehar bidaia' bisita gidatua

Gaur, azken eguna. Izena emateko: 943-78 34 53 edo *www.ruralgest.net. Protokoloen Artxiboan, 13:00etan.*

OÑATI 'Oñatiko altzorrak' bisita gidatua

Sancti Spiritus unibertsitatea eta parrokia ezagutzeko aukera paregabea. Izena emateko: 943-78 34 53 edo *turismo@onati.eus. Turismo Bulegoan, 13:00etan.*

dirizkigu. Nekazariak euren etxeak husten dituzte, eta bertara heltzen direnak etxe arrunt horiek hartzen dituzte lurra lantzeko eta animaliak hazteko. Gero, lortutako produktuekin, jauntxoengana joaten dira, horiek saltzeko asmotan. Jauntxoek oso gutxi ordaintzen diete nekazariak produktuengatik.

Istorioren protagonistek odola ere partekatu beharko dute jauntxoarekin. Landa-lana desagertzeko arriskuan dagoen bizimodua da. Bikote protagonista, kemenez eta lan asko eginez, elkarrekin bizi berri bat sortzen joango da. Keinu eta detaile txikiak bitartez zuzendariak bi gizaki bakartiren amodio istorioa nola kontatzen digu.

EGUAZTENA 2**LEINTZ GATZAGA Bisita gidatuak Gatz Museoan**

12:00etan, euskaraz eta 13:00etan, gazteleraz. Izena: 943-71 47 92 edo *reservas@gatzmuseoa.com. Gatz Museoan.*

OÑATI 'Oñatiko altzorrak' bisita gidatua

Sancti Spiritus unibertsitatea eta parrokia ezagutzeko aukera paregabea. Izena emateko: 943-78 34 53 edo *turismo@onati.eus. Turismo Bulegoan, 13:00etan.*

BERGARA 'Zirkoteke' ikuskizuna

Gizartean egoki ahokatzan ez diren lagunek osatzen dute herrira helduko den zirkua. *Espoloiari, 19:30ean.*

EGUENA 3**OÑATI 'Kakaoaren bidaia' bisita gidatua**

Izena emateko: 605 763 595 edo *www.ruralgest.net. Txokolateixan, 12:00etan.*

OÑATI 'Balea-txalupetatik txokolatera, historian zehar bidaia' bisita gidatua

Izena emateko: 943-78 34 53 edo *www.ruralgest.net. Protokoloen Artxiboan, 13:00etan.*

EGUBAKOITZA 4**OÑATI 'Kakaoaren bidaia' bisita gidatua: gaur azken eguna**

Izena emateko: 605 763 595 edo *www.ruralgest.net. Txokolateixan, 12:00etan.*

OÑATI 'Balea-txalupetatik txokolatera, historian zehar bidaia' bisita gidatua

Izena emateko: 943-78 34 53 edo *www.ruralgest.net. Protokoloen Artxiboan, 13:00etan.*

OÑATI Espeleotxiki abentura

6 urtetik gorakoendako abentura. Izena: 943-08 20 00 edo *arrikruz@onati.eus. Arrikruzten, 15:00etan.*

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



VOLKSWAGEN ID4 ELEKTRIKOA



TEKNOLOGIA ETA ETORKIZUNA